HARKAITZ CANO

Pasaia blues

narratiba Susa

Liburu honen salneurria: 3 € + BEZ.
Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:
http://susa-literatura.com/ebook

© 1999 Harkaitz Cano
© edizio honena: Susa
cc-by-sa Creative Commons Aitortu Partekatu
http://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/deed.eu

Lehen edizioa paperean: 1999ko azaroa
Edizio hau: 2011ko ekaina

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz
Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea
Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu
Telefonoa: 943 83 26 55
Elektroposta: susalit@armiarma.com
Webgunea: http://susa-literatura.com

Bi punturen arteko distantziarik
laburrena lerro zuzena da.
Uste zabaldua

Lerro zuzenak deshumanizaziora
eramaten gaitu.
Friedensreich Hundertwasser, arkitektoa

Zai

Ireki eskua jauna, etorkizuna iragarriko dizut.

Abenduaren hasiera izan arren bero egiten zuen. Cesar Telleria asper-asper eginda zegoen hiri itogarri hartako kaleetan bata bestearen segidan gainera botatzen zitzaizkion etorkizun igarleekin. Kale tarteetan barna jarraitu behar zuena jarraitzen ez zioten uzten, hori zen bestea. Txaketako patrikatik katalogotik erauzitako argazkia atera zuen eta espaloiaren bestaldean zihoan emakumearekin erkatu zuen. Bat eta bera ziren, dudarik gabe: Veronica bezala ezagutzen zuen emakumea. Izerditan blai zegoen Cesar, bizkarra erabat lika eginda, eta errua, pentsatu zuen, bere jakarena zen. Argazkia tolestu beharrik izan gabe nonbait, patrikaren batean edo sartu ahal izateko baino ez zuen jaka hartu. Hartu zuen ba eskoziar oihalezko partxea zuen jaka hura, hartu bazuen. Damutu zen.

Ireki eskua jauna, etorkizuna iragarriko dizut. Ehun eskudo, jauna. Ehun bakarrik.

Popatik atso madarikatua. Veronica bezala ezagutzen zuen emakumea galdu egin zuen, jendetzaren artean. Eguzkitako betaurrekoak kopetara altxatu eta inguru guztia eskuaretu zuen begiradaz. Ia etsitzear zenean, keinu ezagun bat atzeman zuen mila keinu arrotzen artean. Gutxigatik ez zion ihes egin. Han zegoen Veronica, jende saldoaren artean. Ez zuen oraindik galdu, beraz. Maleta zurrun bat zeraman ezker eskuan eta presaka zihoan orain ere. Maleta beltza zen eta ertz zilarreztatuak zituen, gainindartuak. Argazkilariek erabili ohi dituzten maleta haien itxurakoa zen. Kale are estuago batera jiratu eta ezker-eskuin begiratu ondoren lasto makilatxoz osaturiko errezela zeharkatu zuen emakumeak. Cesar Telleriak kanpoan itxaron zuen, bi hatzekin poxpolo bat piztu eta bi hatzekin zigarro bat errez.

Bi hatzekin, bai. Bakoitzak bere estiloa dauka. Eta estilo honetaz erritu, aldarrikapen, bizilegea egiten dugu, gainera. Nor bere burua eta bere pertsonalitatea eraikitzeko ezinbesteko bihurtzen da azkenerako bi hatzekin zigarroa piztu eta bi hatzekin zigarroa erretzea. Eta, ez

gaitezen engaina, erabaki ttiki horiekin osatutako estiloa da ia beti lagun hurkoa eta etsai hurkoa limurtzeko emana izan zaigun bakarra.

Lokaletik atera zenean sartu zeneko maleta beltz bera zeraman emakumeak berekin. Lastozko gortina zeukan ezkaratzeko lokalaren zenbakia eta helbidea koadernoan apuntatu eta emakumeari jarraitu zion berriro ere. Veronicak taxi bat hartu zuen. Cesarrek beste bat. «Jarraitu aurreko taxi horri», txantxetan ari garela uste izaten du horrelakoetan gidariak, eta dirua aurretik eman behar izaten zaio, bi mila bat eskudo bai, behar adinako arreta jar dezan. Lehen taxia bidaia-agentzia baten parean geratu eta bidaiatxartelak ziruditenak eskuetan zituela atera zen handik Veronica, minutu gutxiren buruan. Gero, egunsentiko ordu goiztiarrean atera zeneko hotel berera itzuli zen, ertz zilarreztatuak zituen maleta beltz gainindartua inongo unetan eskuetatik askatu gabe.

Hoteleko kafetegian ura eta kafea edan zituen emakumeak eta bere arropetako poltsiko guztiak arakatu ondoren argazki batzuk atera zituen azken patrikatik. Banan-banan eta arreta

gehiegirik gabe begiratu ondoren, argazkietako batean geratu zen: erditik puskatu zuen argazkia eta mahaiko hautsontzian utzi zuen argazkiaren zati bat. Beste erdia eta gainerako argazkiak hasierako patrikara bueltatu zituen. Bi gauzatan bazuen behintzat emakume hark bere antza: kafezalea zen eta arropatako patrikak edozer garraiatzeko erabiltzen zituen, berak ohi zuen bezala. Lastima zen, agian gauzak bestelakoak izan zitezkeen egoera ezberdin batean *ezagutu* balute *elkar*... Izan ere, oilanda ederra iruditu zitzaion emakume hura Telleriari. Aspaldi ez zen emakume batekin egon eta txorimalo batekin ere joko zukeen behin hartara ezkero, hori ere egia zen. Ordu laurden baten ondoren, kafetegiko mahaia utzi eta komunera zuzendu zen emakumea. Komunean ezpainak margotu eta margo gehiegi eman zuela iruditu zitzaionez, kleenex batekin xukatu zuen soberan zegoela irizten zuena. Bitarte horretan, Cesar, Veronica egon zeneko mahaira zuzendu eta emakumeak hautsontzian utzitako argazkia hartu zuen: argazki puskatu baten erdia zen, zehazkiago; bitan tarratatua izan zen argazki baten erdia. Veronica

bera agertzen zen argazki desfokatuan, ohe batean, izara artean irribarrez. Ohean beste norbait ere egon izan balitz bezala zen, Veronicak berekin hartu izango zuen argazki tarratatuaren beste erdian. Argazkia hartu eta txaketan sartu zuen, Veronicaren artxiboko argazkiarekin batera. Harrera gelara zuzendu eta emakumea eskaileratan gora zihoala ikusi zuen, bere gelarantz.

Cesar Telleria hoteletik atera eta ahalik eta azkarren telefono kabina bat bilatzen saiatu zen. Kaleak mukuru zeuden oraindik. Azkenean aurkitu zuen bat. Txanpon dexente bota behar izan zituen. Linea ez zen oso garbia.

– Sarean daukat, alajaina. Harrapatu dut. Veronica da. *Media Vida* hotela dauka ostatu eta hegazkin txartelak erosi berri ditu. Usapala hiritik ateratzekotan dela dirudi. Maleta beltz bat dakar berekin, ertz metaleztatuak dituena, argazkilariek erabiltzen duten horietakoa. Estu-estuko laguna du. Azkazal pare bat emango nituzke barruan zer daukan jakitearren.

Ehun eskudo. Osasuna, dirua, maitasuna. Jakin nahi duzun guztia. Ireki eskua, jauna, ireki eskua.

Honezkero ezagutzen zuen amarrua: ezker eskuaren irakurketagatikoak ziren ehun eskudoak, gero beste ehun kentzen zituzten eskuinekoa irakurtzeagatik. Egun hartan ordea, eskuinekoa dohainik irakurtzen omen zuten, behin ezkerrekoaren irakurketagatiko zerga ordaindu ondoren.

Veronica ez, baizik eta benetan beste edozein izen izango zuen Veronica harenak egin zuen. Oraingoan ere, zortea alde lerratu zitzaion Cesarri. Eta zorte huraxe berekin luzaro egongo zeneko sentipen irmoa zuen. Hain gustura sentitzen zen bere buruarekin, zorte hark sekula ihes ezin egingo zioneko pentsamendu lausoa baitzuen buruan. Eta zorteak noizbait abandonatzen bazuen, hark alde egiterako, jada ez zuela zorterik behar izango, eta bost axola izango ziola galera hark, hala pentsatu zuen, patuarekiko mesfidantza izpi ttikienik gabe.

Gauzak ongi ari zitzaizkion ateratzen eta baikor sentitzen zen Cesar Telleria eguerdi sargori hartan. Kalean zehar barreiaturik zeuden aulki xixtrin haietako batean eseri eta ezker eskua ireki zuen, erdi txantxetan, latorrizko txanpon

zerrenda bat buruan diadema bezala jarrita zuen atso haietako baten aurrean, irribarrez.

Pasai Antxo. Auto tailer mekanikoak, torloju bakoitzari koska bat estuago lotzean munduko makina-gelari eragiten ziotela ziruditen langile buzodunak eskuak galtza urdinetan igurtzitzen, tarteka eguzkiari zeharka so egiten ziotenarekin batera. Gasoil usaina, konpontzen jarritako sare lerroei arrainek behin erantsitako hozkaden lurrin urruna, behiala merkantzia sartu-irten eta jarduera handia izan zuten lokal orain hautsez-tatu eta leihorik gabeak, laurogeiko hamarkadan –*Bahía de Pasaia* kantuaren garaian– jonkien babesleku izandako komun apurtuak, dagoeneko geratzen ziren jonki apurrek ere leku erosoagoen mesedetan abandonatuak. Pasaiako portu inguruko pabilioiek osatu perfilak bazuen hortzadura izorraturik zuen agure zahar baten ahoaren antza: pabilioietako horma eroriak, falta diren hormak, eta horma batetik besterako koska irregularrak.

Abenduak bere bigarrena betetzen zuen. Pasaiako kaleak eta hormak afixaz beteta zeuden,

Hernaniko Young Play dantzalekuan jokatzekoa zen boxeo lehia iragarriz. Normala zen alde batera, pasaitar gazte baten debuta ez baitzen egunero sortzen zen berria. Egunkariek ere, Paulino Uzkudun eta Paco Buenoren garaiko argazki hautseztatuak kaxoien hondo ozeanikoetatik berreskuratu eta beren argazkilari eta bekarioak zakurren gisan bota zituzten Pasaiako gimnasiora, barruko orrialdeetarako kutsu melodramatiko eta ukitu bogartardun kronikak idazteko agindu-ta. «Txiki-txiki egingo dut», «Begiak zapi batez lotuta ere irabaziko nioke», «Agure horrek jakin behar luke erretirada duela garaipenerako bide bakar, eta garaiz dago oraindik».

Olatzek bere apartamentutik ikus zitzakeen Pasaiako kaleak eta hormak zirrikiturik utzi gabe estaltzen zituzten afixa haiek guztiak, Martak leihora gehiegi ez ateratzeko agindua emana zion arren.

Olatzek hogeita bost urte zituen. Ile motza eta begirada oreinkumearena. Oinez zihoan ahala edo geldirik zegoela ere, sorbaldak kizkurtu eta lepo-keinu berezia egiteko joera zuen, keinu erreflexu eta kontrolaezin bat, denbora

guztian zerbaitegatik barkamena eskatzen ariko balitz bezala. Gorputz meharra eta erkina izanagatik ere, bere bizitzan korrika saio gehiegi ez egin izanaren itxura zuen. Hatz luzeak eta meheak, eraztunez beteak. Sei hilabete baino ez ziren erretzen hasia zela, Martarekin bizitzen zeramatzan sei hilabete haiek berberak. Ez zuen egunero dozena erdi bat zigarro baino gehiago erretzen, hala ere. Anaia kartzelan zuen. Ama auto istripu batean hila, kartzelan zuen semea bisitatzetik etxera itzultzear zela. Informazioa biltzea izan zen beti Olatzen ardura, baina ardura horrek espero ez zuen leku bateraino eraman zuen azken sei hilabete haietan. Pasaiako bere apartamentuan bakarrik bizi izan zen ordura arte eta ez zuen zalantza une bat bera ere izan leku seguru bat ezagutzen ote zuen galdetu ziotenean. Edo agian bai, agian izan zuen zalantza une bat. Zalantza uneak izaten dira, geure buruari izan direnik aitortzen ez diogunean ere. Beste gauza bat da zalantza une horrek, aitorgarria izan dadin, une batekoa baino apur bat luzeagoa izan behar izaten duela. Beldurgarria litzatekeelako albora begiratu eta ohartzea zalan-

tza izan dela egun daukagun eta ez daukagun guztiaren errudun. Baina azken batean, mundua elefante batek sustengatzen zuela uste bazen duela ez hainbeste urte, eta elefante hori bigarren elefante batek eta bigarren hori dortoka batek, argi dago dortoka hori zalantzak bakarrik sustenga dezakeela.

Martarekin bizitzen hasi zen arte Olatzek ez zuen sekula errebolber bat ikusi. Azken sei hilabeteetan ikusi bai, baina ez zuen bat bera ere ukitu nahi izan. Ez zitzaizkion armak gustatzen. Lanen banaketa hasiera hasieratik egon zen garbi, bera auto gidari trebea zen aldetik, eztabaida guztiak soberan zeuden.

Ez zitzaion zaila suertatu bere eguneroko harremanak apurka-apurka baztertzen joatea. Oraindik fitxatu gabea izanagatik, oso bizitza diskretua zeraman. Bakardadea maite zuen eta bere istorioak eta bere ametsak konpartitzeko laguna zeukan orain, gainera. Ez zuen gehiegi behar, eta ez zuen bere lehenagoko bizitzatik gauza handirik beharresten, batzuetan paranoiko bihurtzen ari zela iruditzen bazitzaion ere.

Eguraldi sargori erabat sasoiz kanpokoari jarraiki, udakoa zirudien zaparrada eta trumoien erasana entzuten zen kanpoan. Gogotik ari zuen euria eta sofan kizkurtuta zegoen Olatz. Marta, berriz, horma ondoan zeharka jarrita, leihotik begira, Pasaiako portuan aingurаturiko merkatontzi hori ikaragarri bati so. Argia joan eta irratia itzali zeneko unea baliatu zuen Olatzek elkarrizketa hasteko. Izan ere, ez zen erraza Martarekin luzaro hitz egitea. Ekintzarako emakumea zen bera: kolpea eman eta leizera itzuli, horixe zen bere leloa. «Ez gauden hemen zuzentasunari buruzko manualak idazteko, laztana». Bere egitekoan zein fokatuta zegoen ikusteak biziki ematen zion atentzioa Olatzi. Miresten zuen, nolabait, gogorra iruditzen zitzaion arren.

– Nire buruari galdetzen nionan, noiz arte ibili beharko dugun horrela.

– Argirik gabe, dion? Oraintxe inguratuko dinat kandela bat.

– Kandelarena baino azkarrago agortzen diren su eta metxez ari naun Marta, ondo dakin hori.

– Beharrezkoa den denboran, Olatz. Beharrezkoa den denbora guztian ibili beharko dinagu horrela.

– Ez zekinat, baina bihozkada bat zeukanat. Atzetik ditugula iruditzen zaidan.

– Normala dun hori. Denoi gertatu zaigun. Ikusiko dun, hemendik sei hilabetera pasatuko zain.

Olatzek ohiko lepo-sorbalda keinua egin zuen, etengabeko barkamena eskatzen ariko balitz bezala. Gero, bere burua lasaitzen saiatu zen.

– Ziur baietz. Badakin? Horrelakoetan behin kontatu zidaten istorio batekin kontsolatzen naun. Entzun nahi dun?

– Gaur ez dinagu beste zeregin askorik.

Zeregin berezirik gabe zain eta euriari begira egoteak bazuen denbora mastekatzearen antza. Mastekatzeko tabakoa bezala, minutu bakoitza ahoan batera eta bestera erabiltzen zuten, norberak nahi orduko ailegatzen ez zen hurrengo minutuaren zain. Argiak eta irratia bat-batean piztu ziren, eta berriro, sukaldetik elektragailu

berpiztu berrien jeneradoreak txistuka hasi ziren. Denbora mastekatzaile, hauek ere.

– Entzun nahi dun orduan?

– Zer nahi dun esatea? Nahi izan gabe ere entzun egin beharko dinat.

Bazen zerbait samurra Martaren jarrera zakar, distante eta itxura batez desatseginean. Olatzek hala uste zuen behintzat. Marta odol hotzeko eta kalkulatzaile haren barruan bazela samurtasun puska bat, denbora asko baino lehen, kasu, beste sei hilabete igaro aurretik, azaleratuko zena. Olatz ziur zegoen.

Sei hilabete epemuga egokia zen. Gauza askotarako.

Cesar Telleria postal baten bila zebilen liburudenda baten kanpoaldeko alanbrezko apalategi birakorrean. Baikor sentitzen zen eta eguzki laranjaren peko paisaje bat aukeratu zuen. Postala ordaintzera sartu zenean neskatila atsegin bat suertatu zitzaion ordainlekuan.

– Bakarra jauna? Bigarren bat aukera dezakezu. Bi dira baten prezioan.

Etorkizuna igartzen zuen atsoaren alaba izan behar zuen hark, inondik ere.

– Batekin nahikoa dut, mila esker.

– Ziur zaude?

– Erabat ziur eta nire gaitasun psikiko guztiak martxan, eder hori.

– Sobre bat jarriko dizut.

Horixe marka, sekula ulertu ez zuena. Postal bat erostera joan eta sobrea oparitzea. Liburudendatik atera ahala, hala ere, egitura metaliko birakorrean gustuko suertatu zitzaion bigarren postal bat topatu zuen: hiriko eliza bateko horma batean idatzitako graffiti baten argazkia zen. Tom was here, Nikolas Txiki hemen izan zen, Urliak Sandia maite du eta antzeko sinadura eta esaldi inozoz zipriztinduriko horma horietako bat zen eta izkribu guztien artean bazen bat, berezi-ki nabarmendua eta barregura eman ziona: *Ni ez naiz sekula hemen izan eta igual igual bizi naiz.* Postal huraxe hartu zuen eta sobrera sartuz, dendatik urruntzen hasi zen.

– Lapurra, lapurra! Goiti eskuak!

Hamar urte baino gehiago izango ez zituen mutiko bat korrika zetorkion atzetik cowboyare-

na eginez. Cesar Telleria erabat zurbildu zen, eta lurrean iltzaturik geratu zen, inguruko jendearen begirada zorrotzen pean masailak gorrituta.

– Erregalukoa hartu besterik ez dut egin, mukizu hori!

Mutiko salatariaren oihuek ohartaraziak, bi gizon mozkote inguratu ziren eta besoetatik heldu zioten Telleriari. Iskanbila berehala heldu zen liburudendaraino eta emakume gaztea apuratuta hurbildu zen atera.

– Utz nazazue bake santuan faborez, erregalokoa hartu besterik ez dut egin eta! Bi ziren baten prezioan, ala? Galdetu neskari bestela.

– Egia da, utzi joaten. Manolinho, ez arduratu. Honek ordaindu du.

Mutikoa korrika aldendu zen eta arrantzaleen sareak pilatzen ziren saski horietako baten barruan ezkutatu zen, ziztu bizian.

– Barkatu mutikoari jauna, badakizu umeak nolakoak diren. Azken bolada honetan egun guztia polizia eta espietara jolasten ematen du.

Cesar Telleriak mutikoari begiratu zion. Saski barruko kamuflajea itzela zen. Sareen artean ezkutatuak, katu batenak bezain desafiagarri eta

geldiak ziren bere begiak. Arreta berezia jartzen ez bazen, ezinezkoa zen atzematea. Ahapeka mintzatu zen, bere aldarte ona egoera desatsegin hark hain tupustean eta hain era leloan zapuztu izanak bereziki gogaiturik.

– A zer familia demonioa: igarlea, saltzailea eta espia.

– Barkatu, jauna? Zer diozu? Sentitzen dut... Dena den, hirugarren postal bat har dezakezu etxekoon kontura, oraingoan, gura baduzu...

Cesar Telleriak ez zion neskari erantzun eta kafetegi baten bila abiatu zen *Ni ez naiz sekula hemen izan eta igual igual bizi naiz* zioen postalari begira. Kafetxe batean eseri eta kafe baten aurrean, postal huraxe hartu eta atzealdean esaldi pare bat zirriborratu zituen. Idatzi ahala ordea, gibelaldean ezinegon ttiki bat ernetzen ote zitzaion sentitu zuen. Fetxa jarri, lehenbailehen postalean helbidea idatzi, zigilua erantsi eta kafetegia utzi ondoren, buzoi batean bota zuen.

Sorbalda makurtu eta buzoiaren ahotik begira geratu zen, postala txirrista ttikian behera nola irristatzen zen entzun eta barruraino heltzen zela ziurtatuz. Beste zenbait segundoz ge-

ratu zen buzoiaren barrualdeko iluntasunari begira, auskalo zeren esperoan. Bere karta saihets batean harrapatuta geratu eta sekula postariak jasoko ez zuela pentsatzen duten neurotiko gizagaixo horietako bat izan zitekeen bera ere.

Gaixo bat bezala portatzen ari zela ohartu orduko, buzoitik urrundu zen pausoa luzatuz, bere buruaz lotsatuta.

– Nire istorio kuttuna dun. Gerra piztear dela, nonbait, itsasertzeko herri batean, ama bat negar batean ari da bere lurretako mugak zedarritzen dituen egurrezko hesiaren alboan. Petatea lepoan hartuta, gerra itsasontzi batean ontziratzera doan marinel bat inguratu zaio orduan, zer gertatzen zaion galdezka. «Gerra piztear da eta pizten bada, nire semea, nire seme bakarra, gudarako sasoian eta edadean dagoena, gudara joateko deituko dute. Eta hil egingo da». Marinelari pena ematen dio emakumea hain lur jota ikusteak eta animatzen saiatzen da. «Baina emakumea, lasai egotea daukazu. Gehiegi kezkatzen zara. Ez du merezi zure burua hainbeste estutzea. Utzi gero negar egiteari. Ikustagun:

gerra piztear deneko hori ikusteko dago. Bi gauza gerta daitezke oraindik: gerra piztea edo ez piztea. Gerra pizten ez bada ez duzu zertan kezkaturik, eta pizten bada ere ez. Izan ere, gerra pizten bada beste bi gauza gerta baitaitezke: zure semea armadara deitzea edo ez deitzea. Deitzen ez badute, egon lasai, ez da-eta ezer gertatzen. Eta deitzen badute ere ez, ezen eta bi gauza gerta baitaitezke: frontera destinatzea edo administrazio lanetara destinatzea. Bulego batera destinatzen badute ez dago zertan kezkaturik, eta frontera destinatzen badute ere ez. Zeren bi gauza gerta baitaitezke: lehen lerroan borrokatu behar izatea edo atzeko babes lerroetan borrokatu behar izatea. Atzeko babes lerroetan borrokatu behar izatea egokitzen bazaio ez dago arriskurik, eta lehen lerroetan borrokatu behar izanda ere ez, zeren eta kasu honetan, bi gauza gerta baitaitezke: zure semea etsaiak zauritzea edo ez zauritzea. Zure semea etsaiak zauritzen ez badu ez dago arazorik, eta zauritzen badu ere ez, zeren eta beste bi gauza gerta baitaitezke: zure semea hiltzea edo bizirik ateratzea. Bizirik ateratzen bada ez dago zertan negar

eginik, eta hiltzen bada ere ez. Ezen eta bi gauza gerta baitakizkioke zure semeari hiltzen bada: zerura joatea edo infernura joatea. Zure semea zerura joaten bada, andre maitea, harro egon zaitezke, eta ez dago negar egiteko arrazoirik, kontrakoa baizik. Pozik egon beharko zenuke. Eta infernura joaten bada ere ez dago triste egoteko arrazoirik, ezen eta, ze seme eskas da hori, zerua merezi ez eta infernua merezi duena. Infernua zain duen seme batek ez du beragatik malko bat bera ere isurtzerik merezi, andre maitea!». Ez al dun ona?

– Itzela Olatz, itzela. Harrituta nagon kristau izatea zein gauza ona den ikusita. Txalo egin behar al da?

Hasieran min eman izan zion Martaren jarrerak, baina orain bazekien berak ere estimatu egiten zuela istorioak kontatzen zizkion norbait ondoan edukitzea, denbora mastekatzearen pisua erraztuko zion norbait. Eta horregatik, ez zion Martaren itxurazko estimazio ezari kasu gehiegirik egiten. Eskerrak emateko era berezi samarra zuen, hori zen dena. Sei hilabete eta bi aukera

eman behar zizkion bere buruari eta beste hainbeste Martari ere.

– Nahi dunana esango dun baina asko laguntzen diten horrelako istorioek. Barre egitea eta istorioak kontatzea dun salba gaitzakeen bakarra. Zenbait gaixotasun Marx anaien filmekin sendatzen omen ditizten Ameriketan. Hala entzun dinat. Hik ez al daukan istorio kuttunik?

– Ez.

– Ez dinat sinesten.

– Eman ezan bakea, Olatz. Denok ez gaitun hi bezalakoak, ulertzen? Linboan hago beti. Hi eta hire istorio madarikatuak!

– Bazekinat ez hi eta ez ni, ez gaudela geure onenetan. Baina istorio bat eskatzen dinat. Besterik ez.

– Erreguka hasten haizenean nire amaren antza hartzen dinat. Jasanezina jartzen haiz batzuetan, Olatz, benetan. Istorio bat nahi dun? Ados. Nire istoriorik gustukoenak ez din beste misteriorik: Kafkaren *Metamorfosia* dun. Tipoa zomorro bihurtzen denekoa. Pozik? Orain badakin.

– *Metamorfosia!* Gustura entzungo niken hire ahotik.

– Itzel, joder, itzel. Bakeak ere balio din eta. Gutxi gorabehera, ezta? –portuan zegoen merkatontzi erraldoia bistatu zuen une batez, N-1 errepidearen eta trenbidearen bestaldean aingurraturik zegoena; errepide ertzeko hormak boxeolarien afixez beteak. Hasperen egin zuen hizketan jarraitu aurretik. Leihatila batean norbaiti kexan ari zitzaion tonuan mintzo zen Marta–. Ba hau dun... Hau dun Gregor Samsa goizean esnatzen denekoa eta jakina, izaten ditun egunak, izaten ditinagu denok egunak, erran nahi baita ezertarako ez gauden egunak, eta horietako bat zen, bizitza guztia lo pasatuko genukeela uste dugun goiz horietako bat, han edo hemen ote gauden jakitea zaila den egun horietako bat, sukaldera jo eta sukaldetik berriro ohera, gorputzaldi arraro bat, kafea egiteko gogorik ez. Total, ze arraio egin behar dinat gaur, hemendik sei mila milioi urtera eguzkia itzali eta dena Judasen inbutuaren zulotik amilduko bada? Eta Gregorrek ere sentitu zinan, Nescafe poto hutsaren aurreko sentipen hori, ezta? Guk denok bezala zenbait

goizetan, kakazahar hori, mobida guztia, egunerokо berun pisu hori korapilatzen eta hazten gure barruan... Ba hori, nola zen ba? Piztia bat zela amets egin eta esnatzean oraindik piztia zela ohartu zunan. Eta agian, joder, latzena zen agian piztia izan zela bere bizitza osoan ohartu ere egin gabe, istorioaren benetako aldea orduan hasten zela, eta ordura artekoa amets bat besterik ez zela izan akaso. Eta gainera beste *zera* itzel hori zegoen, jakina.

Olatz poza ezin ezkutaturik zegoen. Elkarrekin bizi zirenetik ez zuen sekula Martak hain luzaro hitz egin. Bere zakarrean ez zen Marta hain kontalari makala. Lakar azaldu nahi hura zen gainera, grazia berezia ematen ziona, beharbada.

– Zein beste *zera*?

– Ba beste mobida, bere gelakoa, zera, kakazaharra... Esnatu zenean, dinosauroa oraindik han zegoenekoa, alegia.

– Dinosauroa? Hori beste istorio bat dela uste dinat, hegoamerikar baten ipuin hiperlabur bat. Zooa osatzeko moduan haiz laster, neska!

Marta deseroso sentitu zen eta leihora inguratu zen, bere begirada Olatzen bistatik urrundu nahian. Damutu egin zen isilik ez geratu izanaz. Ez zizkion neska hari esperantza gehiegi eman behar.

– Tira, igualtsu dun, ez? Joder, zein estua haizen. Eman ezan ba bakea, bi kontatu ditinat eta baten prezioan!

Gainerako soinu arruntekiko ezberdina zirudien soinu batek atezuan jarri zituen biak. Gero ordea, denbora mastekatzeko era berezia zuen hoditeriaren zarata besterik ez zela ohartu ziren.

Jendea eta jendea ikusten zuen kaleetan barna. Eskailerak igo eta jaisten, aurpegi anonimoak, berak sekula ezagutuko ez zituenak. Berezkoa zuen aurpegi bakoitzak inguruko guztietatik bereizi eta banatzen zituen ezaugarriak nahi gabe apartatu eta buruz ikasteko joera. Automatikoki buruan zuen artxibategia osatzen joango balitz bezala. Ezikusiarena egin behar zen eta aurrera jarraitu. Baina ez zen beti hain erraza. Aurpegi haietara begiratu eta zirena konturatu. Haurdun geratu arren oraindik ez zekiten emakume gaz-

teak, ninfomanoak, emaztea jipoitzen zuten gizatxarrak, etorkizun igarleak, top-less dantzariak, edo eta azken hauek hilekoa zutenean tampaxaren haria tangaren kanpoaldetik ikus ez zedin mozten zieten gizonezko lizunak. Ogibide faszinanteak bai baitaude eta Cesar Telleria zur eta lur geratu zen gizakiaren endekatzetik sortu diren hari moztaile hauen berri izan zuenean bere ogibidearen ondorioz zapaldu behar izan zituen top-less lokal anitzetako batean. Tangaren azpiko haria ez ikustearen ardura moztaile hauena zen, nonbait, eta kabaret handi eta ez hain handietan bazen pertsona bat *Harimoztaile* lanak egiten zituena. Jende masa handi bat ikusten zuenean ezin zuen ekidin haien barrura sartzea, eguna zertan alferrik galtzen zuten imajinatzea, alferrik galtze horren kontzientzia edo kontzientzia ezari buruzko hipotesiak asmatzea; pentsatzea organismo bizidun haiek guztien baitan gaitzak eta birusak zelulekin pokerrera ariko zirela une hartantxe, beren bizitzak eta maite zituen jendearenak hankaz gora jarri zitzakeen deskarte egokiaren esperoan. Ia erabat patuaren mende zeuden hainbat bizitza eztanda egitear

egon zitezkeen, eta haiek ez zekiten ezer, ezta arrastorik ere. Usaindu ere ezin zuten egin.

Erailerik ere izango zen jende multzo ikaragarriaren tartean: akaso Poliziaren galderen aurrean bizilagunek «erabat pertsona normal eta langile» bezala deskribatzen dituzten horiek, akaso sekula harrapatuak ez diren eraileen ehuneko hainbateko hura osatzen zuten sindikatu ezkutuko partaideak, komisariako psikologoek elkarrizketatu eta beren krimenen zergatiaz galdetzen dietenean «emakume batek sudurrean errebolber bat duenean nola jokatzen duen besterik ez nuen jakin nahi» bezalako erantzunak ematen zituztenak. Eta Cesar Telleriak jakin nahiko zukeen nor zen nor. Baina ez zen beti hain erraza. Horretan zetzan jokoa, hain zuzen. Jendetzek klaustrofobia sorrarazten zioten, bai. Baina maite zituen, bestalde. Metro geltokietako eskaileratan gora egitea zen onena, estu eta jendez leporaino betetako metro sarreretan zure aurretik zihoan emakumearen gonaren mugetaraino sar zenezakeen sudurra, eta bat-batean dena ulertu, lehen aldiz eta bizkarrez baino ikusi ez dugun emakume horren jaiotze data, haurtza-

roa, nerabezaroko larrujotze urrun eta idealizatu baten ondorengo insatisfakzio kateatuen minberagarritasuna eta heriotzaren egun zehatza asma zenitzakeen lepo keinu baten segurtasun faltaren eta usain arrunt pare baten nahasketaren arabera. Ahultasun uneren batean emakume hauetako bat bizkarretik eraso eta –bere ahuldadeaz ere jakitun– bere bizitza gurearekin lot zezan eskatzeko tentazioan erortzea ez zen zaila, metroko eskaileratako zurrunbilotik atera eta parez pare itsutzen gaituen eguzkiak sortutako enajenazioaren pean. Adi egotea zen kontua, eta istant bat beranduago dena zenekien aukeratutako emakumeari buruz. Eta ze ahuldade handiagorik, besteak berataz dena dakizula jakin dezan baino.

Adi egotea bazen kontua, Cesar beti zegoen adi.

Eta gero begien arteko interakzioa zegoen. Espiral formako begiradak, joanekoak, joan-etorrikoak. Dena sailkatzeko zuen behar obsesiboak begiradak berak ere klasifikatzera eraman zuen Cesar Telleria, ez aspertzeko. Bazen adibidez begirada mota bat damua adierazten ez zuena eta

desatsegintasuna adierazten ez zuena eta resignazioa adierazten ez zuena eta aukera okerra egin izanaren zalantza adierazten ez zuena eta lotsa adierazten ez zuena, baina apur bat hauek denak adierazten zituena. *Begirada* hura zen akaso gainontzeko ugaztunek ez zeukaten zerbait, gizakia gizaki egiten zuena.

Demagun metroan edo autobusean gaudela. Bikote bat hizketan ari da eta elkarri laztan ttikiak egiten, elkar musukatzen. Demagun neska dela kasu honetan mimosoena eta mutila eskutik helduta daukana eta honen eskua aske uzten ez duena hau libratzen saiatu arren. Mutila neskari begira dago, neskak esaten dituen guztien aurrean adi dagoeneko itxurak egiten, eta orduan, neskak batere diskretua ez den muxu bat ematen dio ezpainetan eta bagoi guztian entzun daitekeen zerbait esaten du. Adibidez: «Hiru seme-alaba izango ditugu, lehenengo biak neskak eta hirugarrena mutila. Mutilak David izena izango du. Maite zaitut». Hori da unea *Begirada* gauzatzen dena. Mutilak neskari begiratzen dio, mutilak badaki denek entzun dituztela hitz haiek eta bere buruari galdetzen dio patua ote den edo

aukera librea, eta neskari begiratu ondoren, lekuko objektibo bat behar du, oxigeno globo bat, begietatik hartu behar du arnas eta zu bilatzen zaitu, bagoian parez pare eserita zauden hori, itotzen ari dela onartu duen marinel harroegiak, bere harrotasuna baztertu eta itsasoak irentsi aurretik soka eskatzen duenean bezala.

Horixe zen damua adierazten ez zuen eta desatsegintasuna adierazten ez zuen eta resignazioa adierazten ez zuen eta aukera okerra egin izanaren zalantza adierazten ez zuen eta lotsa adierazten ez zuen, baina apur bat hauek denak adierazten zituen begirada. Nola erantzun begirada hauei? Aukera guztiek zuten, Cesar Telleriaren arabera, beren alderdi txarra. Begirada apartatuz gero, soka ukatzen diogu itotzen ari denari. Begirada gozo eta ulerkor bat eginez gero, berriz, barrez ari gatzaizkiola uste lezake subjektu begirale aktiboak, soka bota bai, baina bakardadearen bizitza gozoan harrokeriaz babestuta gaudela eta arraza goren batekoak garela esaten diogula, tronu hantuste batetik. Bizitzan beste asko bezala, irtenbiderik gabeko kalea zen hura ere. Zer egin? Autobusek, trenek edo me-

troek –eta bizitzak berak, bidaia bat omen denez gero, azken finean– «sehaska-efektua» izenez ezagutzen dena sortzen dutenez bidaiariengan, lo itxurak egitea izan daiteke aukera burutsuena. Ondo ikertuta zeukan dena Cesarrek, agi danean.

Ez. Cesar Telleriak ez zuen arkitekturan sinesten. Ez zuen ingeniaritzan sinesten. Ring gaineko kordelak bezalako kordelak ziren begiradak. Eta begiraden armiarma sare erraldoi hura zen mundua sustengatzen zuena. Soken kontra jaurtiak ginenean soka horiek berek bueltatzen gintuzten koadrilateroaren erdira. Gutxi fidatu gainera, atso marmartiek etorkizuna irakurtzeko erabiltzen zituzten eta bakoitzak gure esku ahurrean ditugun marra horiek guztiak, lasai demonio izan zitezkeen gure bizitzan zehar egindako begirada –mingarri nahiz alai– guztien diagrama laburtua.

Bakoitzak bere teoriak dauzka mundu honetan. Hura zen berea. Jendearen aurpegietara begira pasatzen zituen egunak eta berak bazekien zerbait horretaz.

Bi hatzez zigarroa piztu eta bi hatzez zigarroa sustengatuz, lehen sakatua eman zion. Hartu zuen kearen erdirik ere ez zuen kanpora bota.

Martak hamabost kilometro korri egiten zituen goizero, Pasaiako portuan, garabien artean. Gustuko zuen hango paisajea, kapusaidun txandala jantzi eta erdi eroritako pabilioi eta txatarra meta ikaragarrien artean ibiltzea. Zer zegoen txatarra meta haietan? Auto kolpatuen kolpeleungailu zimurtuak, sukalde lurperatuen hondakinak, altzairuzko idazmakinak, urpekontzi errusiarren periskopio txikituak, trenbide zatikiak. Gustatzen zitzaion halakoak imajinatzea, Olatzi bere alderdi hura sekula aitortuko ez zion arren. Lasaitu egiten zen halakoak pentsatuta. Ona zen egunero rutina batzuk izatea, bestela erotu egiten zen bat denbora mastekatzearen mastekatzeaz. Birikek ere eskertzen zioten. Olatzekin bizitzen jarri zenetik gehiago erretzen zuen. Batzuetan nerbioak estutzen zizkion neskatxa hark, egia esan.

Olatz eta bere istorioak. Beldurra ere ematen zion, iparra galduta bailuen jokatzen baitzuen

sarritan –beste txatarra meta bat: Auschwitzeko lanpara zanpatuak, haizezko instrumentu akastun eta herdoilduak, erlojuen orratzen kontrako norabidean zihoazen erloju matxinatu eta matxuratuak– eta Martak ez zuen jakiten horrelakoetan zer pentsatu. Bestalde ordea, maite zuen xalotasun hura. Martak bazuen Olatzek berekiko sentitzen zuen miresmen disimulaezinaren berri. Miresmen horren adibiderik garbiena zen sekula zigarro bat probatu ez zuen Olatz erretzen hasi zela Marta harekin bizi zenez geroztik, mimetikoki, barregarri samar gainera, kea irentsi ez arren eztul betean hasten baitzen lehen sakatua irensten saiatu orduko. Olatz asko harritzen zuen beste zerbait zera zen: bera pasaitarra izan arren, Martak, Trintxerpekoa izaki, berak baino askoz jende gehiago ezagutzen zuela Pasaian, haien artean hainbat estibadore, eta baita Pasaian garai zaharretan kontrabandoan ibilitako makina bat pertsonaia hala-moduzko ere. Olatzen alde esan beharra zuen auto batean sartzen zen unean eraldatu egiten zela. Beste bat ematen zuen. Bolantea esku artean hartzen zuenean, onena zen. Ez zegoen zer esanik. Badago

jendea larruzko jakak ongi egokitzen zaizkiona gorputzera. Olatz ostera, gidariaren aulkian esertzen zenean, berea zen azal baten baitan barneratzen zen.

Bai. Zain egotekoak ziren egun haietan erra-zena ohean geratu eta portu gaineko hodeiei begira egotea zen. Hodeiek ere, txatarra meta erraldoiek bezala, urpekontzi errusiarren periskopioen edo eta haizezko musika tresna akastunen antza ote zuten asmatzen saiatzea. «Hurrengo lainoa agertu eta leiho paretik erabat desagertu arte ez naiz jaikiko» eta antzeko jokoak proposatzea nork bere buru nagituari. Eta gero hurrengoa pasa arte, eta gero hurrengoa. Nork bere buruari iruzur egitea beste guztiei iruzur egitea bezain erraza balitz.

Animoaren araberakoak izaten ziren lainoen eiteak, jakina. Baziren egunak aulki elektrikoaren antza zuenak lehen hodeiak, Sacco eta Vanzetti anarkista kondenatuena haren segidakoak, epaile baten mailu hautsiarena hurrengoak.

Goiz hartan, euri gehiegi ari zuela eta, arratsean egin zuen Martak footing saioa. Etxerakoan, sofan erdi etzanik aurkitu zuen Olatz. Bere-

hala igarri zion Martak Olatzi, berak sarraila giltzaz zulatzen zuela entzun zuenean piztu berria izango zuela Olatzek hatz artean baldarki sustengatzen zuen zigarroa. Dutxara bidean zorrozki begiratu zion.

– Nirekin etorri beharko huke lantzean behin.

Olatzek ez zion erantzun. Bazuen nahikoa lan zigarroaren kea begietatik sar ez zekion. Neska hark bazuen ikasteko borondatea behintzat, hori ukaezina zen, otu zitzaion Martari irribarre gozo batekin. Dagoeneko argiak pizteko garaia izan arren, itzalita zeuden apartamentuko argi guztiak. Martak dutxa azkar bat hartu eta salako atearen markoaren kontra bermatu zuen sorbalda, ile bustia ezker eskuan zuen toailaz igurtzitzen zuela. Patti Smith zirudien, kontzertua eman ondorenean. Ilea apur bat lehortu zuenean, errebolber zilarreztatua trapu batekin igurtzitzen hasi zen. Ilea bustirik zeukan ordea oraindik eta tantaren bat lurrera erori zen. Segurua kendu eta kargadorea ongi olioztatua zegoela baieztatu zuen hitz egiten zuen bitartean. Sofapean gorde zuen arma. Harritzekoa zen Olatz hain isilik eta pentsakor egotea.

– Mihia kontrako eztarritik joan al zain? Zer gertatzen zain gaur? Garrantzitsua dun elkarren susmoen berri izatea. Edozein txikikeria, intuizio ustel edo instintuen traizioa bada ere. Dena. Non zapaltzen dugun jakin behar dinagu abiatu aurretik. Beti. Aingeru pausoekin ibili beharra zeukanagu. Elkarrengan konfiantzarik ez badinagu gureak egin din. Ulertzen?

Martaren mintza-historiako bigarren hitzaldirik luzeena. Aingeru pausoenak grazia berezia egin zion. Baiezko keinua egin zuen Olatzek, ulertzen ziola. Sofaren ertz-ertzean zegoen eserita, hanka biak zabalik eta eskuak soberan balitu bezala, zintzilik, zurrun. Martak sofan bere gorputza erortzen utzi zuen, Olatzen ondoan. Olatzek erorialdian murgilduta jarraitzen zuen bitartean, Marta oin biekin lurra kolpatzen hasi zen. Galtza motz estu batzuk eta etxerako jertse beltz bat baino ez zituen soinean. Aurpegia zurbil zuen eta eskuin eskuko hatz puntez bere ezpainak laztantzen hasi zen, hatz erakuslearekin katua sakatzen deneko keinua eginez, emeki, lantzean behin Olatzi so galdetzaileren bat luzatzen ziola.

– Zer gertatzen zain gaur hiri?

– Ezer ez.

Norbaitek ateko txirrina jo zuen behetik. Martak, ziztu bizian sofatik altxa eta zalutasun handiz sofapean ezkutatu berri zuen errebolber kargatua atera zuen, leihora inguratuz. Gazte bat ikusi zuen behean, atarian. Gero irribarre modukoa egin, ile mataza bustiak begien paretik apartatu eta pistola leiho ondoko mahaian paratu zuen.

– Bera da. Heldu da gure mutila.

Haiek biak baino zaharragoa izan arren, oraindik gaztea zen, altua, sorbalda zabalekoa, leporainoko ile beltza zeukan eta pastazko betaurrekoak. Ez zegoen batere gaizki, pentsatu zuen Olatzek. Baina urduria zirudien. Inpultsiboegia gauza onerako, pentsatu zuen Martak.

– Ez zitzaizun inor segika ibiliko, ala?

– Ez dut uste. Neurri bereziak hartu ditut.

– Hala hobe. Ekarri al duzu?

– To. Dena karpeta honetan dago. Eskutitz bat ere bada tartean. Eta beste gauza bat badago jakin behar duzuena.

– Beste gauza bat?

Era hartan egindako iragarpenak ez zuen batere itxura onik.

– Bai. Akaso ez zaizue gehiegi gustatuko, baina zuekin geratu beharko dut oraingoz. Agindu zehatzak jaso ditut.

– Gurekin hemen? Nola da hori?

– Ez al duzue entzun *Bermudetako Triangeluarena*? Ia larrutu gintuzten. Dena errepide kontrolez josi dute eta zenbait auzo etxez etxe ari dira eskuaretzen. Amarauna zabaldu dute toki guztietan. Zuekin geratu beste erremediorik ez daukat. Koba guztiak erreta daude eta hau da lekurik seguruena.

Koba guztiak erreta daude eta hau da lekurik seguruena. Hoa ba Santimamiñera txo, esateko gogoz geratu zen Marta. Olatzi begiratu eta honek ere bere kezkak konpartitzen zituela iruditu zitzaion. Olatzekin bigarren begirada bat trukatu ondoren, ezpainei kosk egin eta zakarregi ez mintzatzen saiatu zen. Gizajo hura benetan urduri zegoen. Ziurtasun handiz mintzatzeko plantak egin arren, gehiegi igartzen zitzaion ahotseko dardara. Etxera bidean esan behar zituen guztiak entseatu zituenaren traza guztia. «Itzel

joder, itzel» ahomentatu zuen Martak. Ez ziren ordea haiek izan ozenki ahoskatu zituen hitzak.

– Hemen geratu behar baduzu, hau Olatz da eta ni Marta.

Olatzek agur keinu azkarra egin zion eskuaz. Mutiko ile luzeak ez zuen ezer erantzun, ez zuen itxuraz aurkezpenik entseatu.

– Horrelakoetan elkarren izenik ez jakitea hobe izaten zela uste nuen.

– Jakina, jakina... Berria zara, ezta?

Baiezkoa egin zuen lepoaz. Nerbioen lau harietatik zintzilik zegoen, txotxongilo baten gisan.

– Orduan ez diguzu zure izenik esan behar?

Olatz zen orain galdezka, eraztunez betetako bere ezker eskuaz zigarroa pizten zuela sofan erdi etzanda. Ez zegoen lehen bezain zurrun eta erorita, halere. Bisitaldiak apur bat inarrosi zuen Olatz, itxuraz. Mutilak zalantza une bat izan zuen. Une bat baino gehiago. Zalantza une luze bat, elkar ongi uler dezagun.

– Pataki deitzen didate denek.

Olatzek ezin izan zuen barre algara saihestu eta gaztea nora begiratu ez zekiela geratu zen, lokiak gorrituta. Martak gaitzespen begirada

bota zion Olatzi, prozedura jarraitu beharko zenuke edo arauak arauak dira esan nahiko zuen begirada bat, desafio keinu batekin Martaren begien pareraino jaso zuena. Olatzek, eskua ahoratu eta bat-batean eten zuen barrea. Sofatik altxa eta, zerbait zentzuduna eta koherentea egiteko ezgauza, leihora inguratu zen, iritsi berriari eta Martari bizkarra emanez. Leiho hura izaten zen ihesbide bakarra, askotan. Ford Mondeo beltz bat zegoen zain kanpoan, motorra piztuta. Une batez, gidaria leihotik norbait begira zuela ohartu ote zen iruditu zitzaion: bolanteari zakarki eragin eta karril azkarrera altxatuz alde egin baitzuen autoak. Gauzak okerrera joango zirela pentsatu zuen, baina ez zuen ezer esan. Edozein txikikeria, intuizio ustel edo instintuen traizio. Dena. Non zapaltzen dugun jakin behar dinagu abiatu aurretik. Aingeru pausoekin ibili beharra zeukanagu. Orduan ohartu zen Martari hitz emandakoa betetzea zein zaila izango zen. Bere burua lasaitu nahi izan zuen Olatzek. Zigarroa lepo pareraino jaitsi eta melenadun iritsi berriari irribarre urduria zuzendu zion. Zigarroaren keak aingeru baten antza zuen lehenbizi eta gurutzil-

tzatu batena gero, dena batera. Hala iruditu zitzaion. Marta kanpamentua birrantolatzen ari zen.

– Pataki, beraz. Gaurkoz nik sofan egingo dut lo. Nire gela har dezakezu zuk, Pataki.

Bi aldiz eta duintasun berezia erantsiz esan zuen *Pataki*, eta bigarren aldiz esan zuenean, aurrerantzean ere hitzari erraz akituko ez zitzaion solemnitate batez ahoskatu zuen ezizena. Martak, bere neurrien barruan abegikor izaten saiatu arren, gozotasunik ez zuen irribarre saiakera haietako bat egin eta kanpoko ateko kisketa bikoitza itxi zuen. Gero, pertsianak jaitsi eta argiak piztu zituen. Lehenago ere berandu zen horretarako. Bazen garaia.

Kanpoan oraindik boxeo konbaterako kartelak itsasten ari ziren. Batzuk buruz behera zeuden itsatsita eta bertan ageri ziren boxeolariek pertxa batetik zintzilik jarritako saguzar erraldoien antza zuten.

Lehenbizi katalogoak sartu zituen maletan. Eta gero, bere atseden egun luzeetan pentsioan irakurri ohi zituen fisonomia liburuak. Liburu haue-

tako batean Adolf Hitlerren karikatura ageri zen, hogei bat aldiz errepikatua, baina aldiro bere aurpegia munduko arraza ezberdin bateko bisaiara egokitua: judua, txinatarra, kenyarra, hungariarra, frantziarra. Bitxia zen. Cesar Telleriak ezin izan zuen irribarrea saihestu ezpain artean zigarroa zeukan Adolf Hitler bakarra espainiar hitlerra zela ikustean. Orrialde hartan bertan gorde zuen Veronica bezala ezaguna zen emakumeak kafetegian ahaztuta utzi zuen argazki desfokatu eta erditik ebakiaren puska. Gero, liburua itxi egin zuen, kontu handiz, liburu arrunta baino areago bisagra kruzial bat bailitzan.

Eguna eguzkitsua izango zela pentsa zitekeen leihoko pertsiana apurtutik sartzen zen argiari begiratuz gero. Doctor Marteens bota beltzak sartu zituen ohe gainean zegoen larruzko maleta laukiluzean, liburu eta katalogoen gainean. Zerraldo ttiki bat apurka-apurka betetzea bezala zen, hala iruditzen zitzaion Cesarri, erabilitako arropak jada desagertua zen norbaitenak bailiran. Uniformezko ertzain xehe moduan lan egiten zuenean krematorio bat edo beste bisitatzea tokatu izan zitzaion eta bertan entzundako

istorio bat etorri zitzaion gogora: koloretako goma eta lokarriekin sailkaturiko eskutitzez beteriko kutxa erraldoi batekin krematorioan azaldu zenaren istorioa, hain zuzen. Minbiziak jota omen zegoen eta karta haiek guztiak erre nahi zituen hil aurretik. Non eta krematorioan. Ez zitzaion axola ordaindu beharreko prezioa. «Maitasun kartak dira» izan omen zen bere azalpen bakarra. A, maitasun kartak ziren. Orduan dena zegoen argi, ez zen azalpen gehigarrien premiarik, itxuraz. Jendea gero eta eskuetatik joanago zegoen.

Bi alkandora, hiru galtza pare, eta jaka beltz bat, eskoziar oihalezko partxea zuena. Bere aspaldiko neskalagun batek oparitu zion azken hau. Neska hura oraindik ere asko maite zuela iruditzen zitzaion eta damutu ere egiten zen batzuetan, behin batez haren argazkiaren atzealdean bere telefono zenbakia apuntatu eta sekula gehiago ikusi ez zuen norbaiti eman izanaz, zeukan neskalagunaren argazki bakarra galduz honela. Azkenik, beste jaka bat beix kolorekoa, panazkoa. Denak egokiro tolestu eta katalogo nahiz liburuen gainean jarri zituen, espazioa

ahalik eta ongien baliatu nahian. Lehen jaka zen, argazkirik ezean, aspaldiko neska hura oroitarazten zion gauza bakarra, ikaragarri estimatzen zuen. Ikaragarri. Bigarren jaka, bere lehen soldatarekin erosi zuen, eta maleta mukuru bazuen ere, ez zuen ezergatik ere bertan utzi nahi. Denak tolestu eta maletara sartu zituen, katalogo polizialak eta fisonomia liburuak estaliz. Ondoren galtzerdiak, bi gerriko, barruko arropak eta nezeserra, maletaren ertzetan.

Iratzargailuari orratzak gerarazi eta nezeserraren ondoan jarri zuen. Makurtu eta ohe azpian bere botikin partikularra xerkatu zuen: ohepetik sei botila Cutty Shark atera zituen, hasi gabe zeudenak, eta zazpigarren bat, azken hau erdiraino beteta. Kontu handiz, gaumahaiko edalontzia hartu eta bertan zegoen ura edan zuen trago bakar batez, gero, erdiraino beterik zegoen Cutty Shark botilatik apur bat basoan isurtzeko. Sei whisky botila hasi gabeak ohe gainean lerratu zituen, perfektuki, maniatiko batek bezala, etiketa etiketaren parean, botilek argazki baterako posatu beharko balute bezala. Gero botilak maletan sartzen saiatu zen. Hiru baino ez ziren

sartzen. Bere arroparik gehienak armairuan uzten bazituen ere, maleta hark ez zuen askotarako ematen. Birao pare baten ondoren, onena fisonomia liburuak bertan uztea izango zela iruditu zitzaion. Bakarra hartu zuen: Hitlerren karikaturak eta haien artean Hitler espainiar erretzailea zituena, liburu honen barruan Veronicaren argazkiak gorde zituela gogoratuta.

Halere kanpoan geratzen zen azken Cutty Shark botila. Duda-muda une baten ondoren, trago bakar batean husteko gehitxo geratzen zela deliberatu zuen. Panazko jaka beixa atera eta ohe gainean utzi zuen, jakaren ordez azken Cutty Shark botila maletaratuz. Lehentasun kontua zen, eta hozki pentsatuz gero, ez zituen bi jaka behar izango. Beste jaka, neskalagun ohiak oparitutakoa, beltza, ezker besoan partxe eskoziarra zuena –hura ez zuen ezergatik ere utzi nahi– soinean jarri zuen eta maleta itxi ondoren azken begiratua eman zion gelari. Depresio baten mamua sumatu zuen Cesar Telleriak bere inguruan. Lehertzear zegoen maleta berriro ireki eta hainbeste ahaleginen ondoren maletaratutako azken Cutty Shark botila maletatik atera eta

trago bakar batez hustu zuen geratzen zena. Botila hutsa txaketa beixaren gainean erortzen utzi zuen ondoren, ohe ondoan.

Poliki itxi zuen maletaren kremailera, gelan beste norbait esnarazteko beldurrez balego bezala. Gelan norbait esnarazteko arriskua izatea desiratu zuen, guztizko indarrez.

Atea itxi eta kalerantz abiatu zen, egurrezko eraikuntza zaharkitu hartako lehen eskailerak kraskatuz. Whiskyaren zapore konfortagarria suma zezakeen eztarrian, eta horrek baikortasunez bete zuen.

Pentsioko gela isiltasunean geratu zen. Ordea handik gutxira, eskaileratan gorako kraskatekoa entzun zen berriro. Giltzak atearen begia zarata handiz zulatu eta atearen atalasa zeharkatu gabe, norbaitek txaketa beltz bat jaurtiki zuen gela barrura, indiferentziaz baina amorrurik gabe: ohera bidean zutabe bat topatu zuen jakak eta zutabeko koadroa kulunkatu eta erori egin zen. Jaka beltza, ezker besoan partxe eskoziarra josirik zuena, lurrean geratu zen, ohean abandonaturiko fisonomia liburu, jaka beix eta Cutty Shark botila hutsetik oso gertu.

Ikasi beharreko lezioa da: maleta batean ez da bizitza guztia sartzen.

Abendu hasierako bero olde hura ez zen batere normala. Ez zuen aspaldiko neskalagun hark oparituriko jaka hura ere beharko. Eguna garbi eta eguzkitsu zetorren, amarrurik gabea, doratua, Cutty Shark trago bat bezalakoa. Ez zuen jakarik beharko, ez horixe, eta gainera, ze jaka eta ze arraio, behin adin batez gero, sentimentalismoak ez zuen lekurik eduki behar gizonen bizitzan.

Marta lokartu ezinik zebilen Pataki zelako hark ekarritako gutuna irakurri zuenetik. Eta gero prentsak *Bermudetako Triangelua* izenez bataiatu zuen Andoain, Hernani eta Usurbil herrien arteko azken gertakizunak zeuden. Hiru tiroketa izan ziren azken hilabeteetan eta hiru aldiz desagertu ziren tirokatzaileak Triangeluan, Ertzaintza eta Guardia Zibila autoz atzetik izan arren. Azken bietan auto istripua izan eta korrika, mendirantz batean eta Andoaingo kaleetan barna bestean alde egin zuten iheslariek, egun argiz, polizia barregarri samar utziz. Pataki hura beraz,

haiekin ordura arte harremanik izan ez zuen komando batetik, Bermudetako Triangeluko istoriotik zetorren, eta berak kontrakoa esan arren, posible zen Polizia atzetik izatea.

Gero gutunarena zegoen eta hori zen kezkagarriena. Eta gauaren erdian kadentzia irregular batekin apartamentu paretik igarotzen ziren auto madarikatu haien zarata eta argi etena.

Ordu hartan autoen faro bikoitiek gehiago argitzen zutela zirudien. Bere gelako sabaian ikus zitzakeen, isla gorriak, joanerakoak, alde batean, eta zuriak, etorrerakoak, bestean. Bat-batean, itzal baldar batek zeharkatzen zuen alderik alde errepidea eta auto gidariak siku sakatzen zion balaztari, autoen argi hark airean distira bortitza dibujatzen zuela. Billar jokalari zarpail batek bat-batean tapete orlegia tarratatzean nola, hala tarratatzen zen gaua, balaztaren txilioarekin batera. Gaua ere billar mahai bat da, nolabait. Baita bizitza ere, gogoetatzen zuen Martak: makilkadak jaso eta, maldan behera, lerro zuzenean eta abiadura biziz kiribiltzen.

Eta gero kolpea eman eta zuloan desagertu. Horrelako zerbaitetara mugatzen zen dena batzuetan.

Edozein gautan zoritxarren bat gertatuko zen, hala ere. Gauaren erdian errepidea zeharkatzen zuten mamuak bezalakoak ziren gaueko gidari lasaien bidea aztorarazten zuten haiek. Errepidean zihoazen trailer eta auto gidariengan harridura eta izua sorrarazten zuten, ezustean, Renfeko trenbidea igaro eta metalez betetako zakukada pisutsu bat lepoan hartuta N-1 errepidea zeharkatu eta Pasaiara korrika ihes egiten zuten iluntasunaren zerbitzari haiek, gauak zurrupaturik desagertzen zirenak gero.

Pasaiako portuko zaindari eta estibadoreek *diamante-la purrak* esaten zieten, portuan pilatutako txatarra meta eskergen baitan, brontzea, kobrea edo aluminio pieza ttikiak bilatu eta lapurtu ondoren badia inguruan merkezurrean ziharduten txatarreriatara saltzen zituztelako.

Batzuetan egun argiz jarduten zuten, haientzat are arriskutsuago zena, trenbidea eta N-1 errepidea hurrenez hurren igaro behar izaten zituztenez. Gainera, garabietako langileentzat ere

neketsuagoa zen lana, diamante-lapurren agerreraz geroztik kontu handiz jardun behar izaten baitzuten txatarra ontzietatik deskargatzean, txatarrazko metan burdina bila zebilen diamante-lapur koitadua bertan ez xaflatzeko. Hasieran poliziari hots egiten zioten portuko zaindariek, baina aspaldian etsia hartua zuten: inoiz ez zen hogeita hamar mila pezeta baino gehiagokoa lapurtzen zutenaren balioa, eta aske geratzen ziren berehala.

Diamante-lapur haietako batzuen ezizen bitxi eta deszifraezinen berri ere bazuten garabietako langileek: Txekiarra, Juan Perro eta Laranja Mekanikoa, sarrien azaltzen zirenetako hiru baino ez ziren. Langabezian zeuden gizonak ziren, adinean sartuxeak gehienak, estatistiketan «langabetu desanimatuak» sailean sartu ohi diren horietakoak eta lapurreta ttikiokin bizirauteko txanpon puskaren bat lortzen zutenak: hemezortzi bat duro aluminio kiloko, hura baitzen txatarra-meta erraldoietan errazen aurkitzen zena.

Azaroak bederatziko gertakizun hura gogoan zuen oraindik Martak. Hiru gizasemek, trenbidearen erdian, bertan behera utzi behar izan

zuten esku artean garraiatzen zuten ehun kiloko pieza bat, ustekabean trenak harrapatuko zituela ikustean. Tren-gidariak doi-doi lortu zuen lokomotora geratu eta metal zati hura saihestea. Lokomotoraren argiek ere, gauaren tapetea urratzen deneko distira bortitz eta dirdaitsua marraztuko zuten noski airean, tren gidariak siku balaztari sakatu zionean.

Kolpea eman eta zuloan sartu. Diamante-lapurrek ere halaxe jokatzen zuten. Bazuten haien antza apur bat.

Diamante-lapurren gaiak ez zuen komunikabideetan oihartzun handiegia izan. Garaitsu hartan, Pasaiako portuaren inguruko pabilioietan zakurren arteko borroka klandestinoak egiten zireneko susmoen gaineko ikerketak eta zurrumurruek baitzuten prentsan protagonismo gehien. Hemerotekak aztertuz gero, zakur borrokak eta boxeolari pasaitar gazte baten debutaren notizia ziren lehen orrialdeko notizietariko bi, letra handiegietan ageri ez ziren arren.

Egia esan, ongi etorri zitzaien diamante-lapurrei txakurren afera. Nolabait, kate motzean lotuta zeuzkaten jabeek beren maskotatxoak. Pa-

bilioietako apustuetan lehiatzen zirenak doberman, presa canario, rottweiler, dogo argentinar, pitbull edo bulldozerrak lako zakur handiak izan arren, entrenamenduetarako zakur ttikiak erabiltzen zituzten sparring bezala, handiagoek bertan sarraskitu eta txikitzen zituztenak. Beren zakurra galtzeko beldur, psikosiaren pean ziren honenbestez inguruetako zakurren jabeak, eta ez soilik zakur handienak. Zakur asko desagertu zen aspaldian paraje haietan, eta Pasaiako sukaldeetan ere preso zeuzkaten gauaren erdian jabeek beren animaliak, hozkailu erdi huts eta itxien giderrei lotuta edo. Hala zirudien behintzat, Laranja Mekanikoari eta bere lagunei ez baitzieten aspaldian, Sakamantekasen gisara, zakua hartuta, trenbidea eta N-1 errepidea zeharkatu izan zuten azken aldietan batere zaunka salataririk egin.

Martak beren apartamentuko leihotik ikus zitzakeen txatarra meta haiek guztiak, sukalde lurperatuen hondakinak, altzairuzko idazmakinak, urpekontzi errusiarren periskopio txikituak, Auschwitzeko lanpara zanpatuak, haizezko instrumentu akastun eta herdoilduak, erlojuen orra-

tzen kontrako norabidean zihoazen erloju matxinatu eta matxuratuak. Ikus ezin zitzakeenak erdi ezkutuan hizketan ari ziren bi gizaseme haiek ziren.

– Pentsa ezak bi aldiz Lar, diru asko zegok tartean. Ez didak esango miserable batek bezala burdina puskak biltzea baino hobea ez denik...

– Ez zioat honi batere usain onik hartzen, ez zekiat. Ni txatarra biltzaile xume bat besterik ez nauk.

– Zakur bakoitzeko hamar mila duro ordaintzen ditiztek. Egin behar duan gauza bakarra honakoa duk: hik ikusi nondik zakurrak ebatsi eta lepo inguruko ilea moztu. Gero autoa hartu, zakurrak haiek esandako lekura eraman eta kito. Ez duk beste munduko ezer. Ernai egin beharreko lana, besterik ez. Non topa dezakek hau baino lan hoberik? Egundoko mauka duk, Lar.

– Zer arraiotarako moztu behar zieat lepo inguruko ilea?

– Hori ez duk hire kontua, Lar. Onartzen duk ala ez?

– Txakurrak sparring bezala... Ez zekiat, berrogeita hamar mila diru asko duk. Ziur hori dela guztia?

– Ez hadi errudun sentitu, gizona. Hori duk dena, ez zegok beste maratilarik. Dirua mugitzen dik jende honek, hori duk guztia. Ez zegok inolako azpijokorik. Fida hadi nirekin. Inoiz huts egin al diat, Lar?

Laranja Mekanikoa deitzen zuten gizona isilik geratu zen une batez.

– Nik hiri hainbat aldiz, ondotxo dakik hori. Kontua ez duk huts egin izana edo ez. Gu bakean kito gaudek.

– Pentsa ezak ondo. Ez diat besterik eskatzen.

Lana ez zen guztiz txarra. Batzuetan aspergarria izan zitekeen, hori bai. Baina ezin zen kexatu. Kalean zebiltzan bere kideetako edonork beso bat emango zukeen bere lanaren truke. Zuen soldata berrozietako bizkartzain saileko edozeinen parekoa zen, eta printzipioz behintzat, bere eginbeharrek ez zekarten inolako arrisku zuzenik. Urteak ziren Cesar Telleriak pis-

tolarik eraman beharrik ez zuela, gorroto zituen, gainera. Txosten gogaikarririk bete beharrik ez zuen, nagusien eguneroko purrustadarik jasan beharrik ere ez. Hori guztia gutxi balitz, ez zeukan egun osoa bulego batean giltzapetuta puntutxozko lerroen gainean sekula argituko ez ziren salaketak mekanografiatzen denbora alferrik galdu beharrik. Bere lanak batera eta bestera bidaiatzeko aukera ematen zion: Mexiko, Paris, Geneva, Habana, Lisboa... Horiek bere azken bizilekuak baino ez ziren izan. Gehienetan hiru hilabete inguru egiten zituen hiri bakoitzean, baina ez zen beti epea bera izaten: Buenos Airesen adibidez, ia urtebete eman zuen eta Genevan berriz hiru aste besterik ez. Zorte kontua zen. Zerbait bazuen, horixe zuen txarra bere zereginak: inon sustrairik bota ezina, etziko konturik sekula atera ezina. Egun batetik bestera, batere aztarnarik utzi gabe desagertzen zen zuela ordu gutxira arte aberri zuen hiritik. Bere saileko gehienek bekaizkeriaz so egiten zioten, pribilejiatutzat jotzen zuten, zuzendaritzak titiko umeari baino gutizia gehiago betetzen zizkiola uste baitzuten. Inor gutxik zekien zehazki bere

zeregina zertan zetzan. Asko bidaiatzen zuela, horixe bakarra. Baina bere lana ezin zuen edonork bete. Lan berezia zen, inon berezirik bada: oso gaitasun zehatzak eskatzen zituena.

Betidanik izan zen fisonomista ona. Hori eta intuizioa. Usaimen berezia zuen jendearen barne kontzientziak arakatzeko, keinu bakar batetik abiatuz ingurukoek zer pentsatzen zuten asmatzeko. Alde ederra zegoen bada, bere aurreko postuan egiten zuen bezala autoan kalez kale patruilatzearen, edo, azken lau urteetan egiten zuen moduan, hirietako suburbio, bus geltoki, gau-klub, zinema areto, metro estazio eta aireportuetan barna kalezko begiralearen jarreran paseatzearen artean.

Katalogoak hilero jasotzen zituen. Argazkiz betetako album mardulak ziren. Ehunka eta ehunka argazki. Argazkietako batzuk zuri-beltzezkoak ziren, beste asko koloretan atereak. Baziren lehen planoak eta urrutikoak, baziren argazki difuminatuak, desfokatuak, Fotomaton enpresetatik ebatsiak edo diru bereiziekin ilegalki erosiak, argazki atera berriak eta baita bi hamarkada lehenago ateratakoak ere. Poliziak bere

metodoak ditu eta ez dira denak ezagunak eta publikoak, ez eta denak arrazionalak ere. Argazkietakoei buruz berak ez zekien gauza handirik. Benetako izenik sekula ez. Katalogoetan ezizenak zeuzkaten guztiek, segurtasun kontuak tarteko-edo, auskalo. Argazkia noiz aterea zen ia beti jakin ohi zuen, jakin beharra zeukan argazkian ageri zen hark une hartan zein adin eduki zezakeen gutxi gorabehera kalkulatu ahal izateko.

Esperimentu gisara hasi zen ikerketa departamentua bere fisonomista onaren kontu hura ustiatzen, ia isilpean, behin-behineko eran eta kautela handiz. Eszedentzia baten pean mozorrotu zuten dena. Bere zereginen berri zuten buruzagien artean ere, izan zen gizon baten ahalegin guztiak zentzu horretan bideratzea burugabekeria galanta jo zuenik. Indar eta diru galera bat. Baina denboraren poderioz, emaitzak uste baino askoz ere baikorragoak izaten hasi ziren heinean, betirako isildu ziren kritika guztiak. Eraginkortasun kontua zen, eta bere eraginkortasuna, zortearen eta instintuaren arteko nahasketa ikaragarri batek bermatu zuen ordura artean.

Tipo zorteduna zen. Eta zorteak noizbait abandonatzen bazuen, hark alde egiterako, jada ez zuela zorterik behar izango, eta bost axola izango ziola galera hark, hala pentsatzen zuen.

Gauero errepasatzen zituen katalogoak pentsio, hotel, apartamentu edo ostatu hartua zuen txandako txakurretxolako flexopean: ohean etzanda zegoela, askotan. KGBkoek –hala deitzen zioten Ertzaintzaren barruan ikerketa sail bereziari–, beren ikerketa eta susmoen arabera, zegoen hirian egotea posible jotzen zuten gizon emakumeen zerrenda burutzen zuten; hauekin argazki bildumak osatu eta postaz igortzen zizkioten hilero. Berak begirada bakar batean memorizatzen zituen aurpegi haiek guztiak eta haien aldaki posible oro: ilea moztuta, kolorez aldatuta, bizarrarekin, mustaxarekin, betaurrekoekin edo gabe. Gero haien baliokideen bila ateratzen zen kalera, bere bidean gurutzatzen ziren guztien aurpegietan iltzatuz begirada, radar baten zorroztasunaz. Estazioak, aireportuak, labanderiak, hotelak, hipodromoak, kasinoak eta zita-etxeak ziren bere ehizarako lekurik apropo-sen eta ohikoenak, baina beti zegoen adi. Bere

lana horretara mugatzen zen, paseatzera eta begiratzera. Zaila egiten zitzaion lana bere eguneroko bizitzatik banantzea. Ezinezkoa zen, inondik ere. Paseatu eta begiratu. Hori zen bere leloa. Zelatatzea, hitz hori, beste gauza bat zen eta ez zuen gustuko.

Katalogoetan agertzen zenetariko bat atzematen zuenean, hogeita lau orduz jarraituko zuen, eta behin tarte hori igaro zenean, aurkitzen zuen lehen telefono publikora zuzendu eta bere sailera hots egingo zuen.

– Sarean daukat, alajaina. Harrapatu dut. Veronica da. *Media Vida* hotela dauka ostatu eta hegazkin txartelak erosi berri ditu. Hiritik ateratzekotan dela dirudi. Maleta beltz bat dakar berekin, ertz metaleztatuak dituena, argazkilariek erabiltzen duten horietakoa. Estu-estuko laguna du. Azkazal pare bat emango nituzke barruan zer daukan jakitearren.

Hor bukatzen zen bere lana. Ez zuen sekula azkazalik galduko. Hiritik ateratzen zen lehen hegazkina hartuko zuen, eta ez zuen beste ezer jakingo sekula Veronica izen faltsuaren pean ezagutu zuen hari buruz. Esan dezagun horrela,

ikertzaile *interruptus* bat zen bera, misteriozko antzerki batean lehen aktoan bakarrik parte hartzen zuen aktorea: bere lana ondo bete arren, hura bete orduko zigortu eta teatrotik botatzen zutena. Istorioaren bukaera imajinatzearekin konformatu behar izaten zuen. Hasieran galdetu izan zien KGBkoei salatutako haien patuez eta bekatuez, baina beti itzulinguruka erantzuten zioten. Ezer onik ez. Edota zelako aparejua. Edo kaiolan hobeto zegok piztia hori. Edo puta zikin bat. Horrek sorrarazten zion nolabaiteko frustrazio bat, ezin zuen saihestu. Horrek eta sustraiak inon bota ezinak. Hiri batera iristen zenero, edozein zelarik ere hiria eta edozein ostatu hartzen zueneko lekua, baita edozein txakurretxola izanda ere, amets bera izaten zuen: ahalik eta luzaroen egotea bertan, norbait ezagutu eta bertan irautea; etxeko atera heldu, giltza ateko begiari kateatu eta bira bikoitza ematen zuenean hitz haiek esatearekin egiten zuen amets. Alegia, poxpolo piztu batek infernuko azken zulora erortzean esango lituzkeen hitz haiek esatearekin: zein ederki, azkenean etxean, ez dago norberaren etxea bezalakorik.

Fabriketako langileek duten arratseko une zoriontsu bakan hura desiratzen zuen beretzat. Zure atzean danbateko batez etxeko atea itxi eta munduari esatea: hor geratzen zarete, putakumeak.

Goizeko seiak hamar gutxi ziren hegazkinak Miarritzeko aireportuan lur hartu zuenean. Lisboako aireportuan dexente zain egotea egokitu zitzaion eta Lisboa-Paris-Miarritze bidaia osoa gaueko ordu txikietan egin zuenez, nahiko leher eginda zegoen. Maleta hartu eta inguruan taxirik ageri ez zenez, auto bat alokatzea erabaki zuen. Eguzkitako betaurrekoak kendu eta aspaldi ikusi gabeko itsasoari berriro so egin zionean bururatu zitzaion lehen hitza *cinemascope* izan zen. Cinemascope itsasoa. Zentzugabea agian, baina oso zabala iruditu zitzaion Miarritzeko pasealekutik itsasoa. Faltan bilatu izan zuen aspaldian *bere* itsasoa.

Negu betea zen arren, ezusteko bero oldea baliatuz terrazak jarriak zituzten zenbait tabernari aurreikuslek eta goizeko zazpi t’erdiak inguruan jada aulkiak ezarri eta gosaltzeko ostatuak irekitzen ari ziren. Sofistikatuegia iruditu zitzaion

arren, gertuen zuen ostatura sartu eta kafe hutsa eskatu zuen. Trafikoa eramangaitza bihurtu aurretik Opel Corsa alokatura sartu eta bizkor gidatu zuen Donostiaraino. Hilabeteko oporrak zain zeuzkan. Etxera sartzea arrotz baten etxera sartzearen pareko egin zitzaion. Gutxien espero zuen egunean, bidaia batetik itzuli eta aldatuak topatuko zituen ateko zura eta sarraila. Jada bere etxe jotzen ez zuen Groseko apartamentu hartan igaroko zituen opor egun haiek. Erantzungailu automatikoan batere mezurik ba ote zuen ziurtatu zuen, sofa gainean maleta utzi eta sukaldera garagardo lata hotz baten bila sartu ahala. Izozkailua jela bloke egina zegoen eta labanaz erreskatatu behar izan zuen garagardo lata izotzezko presondegitik. Harraskako iturria ireki eta uraren pean utzi zuen lata minutu pare batez, desizoztu zedin. Bi mezu zituen erantzungailuan.

– Kaixo Cesar. Nekane naiz. Ezin dugu horrela jarraitu. Deitu... Deitu nahi baduzu, baina utzi egin beharko genukeela uste dut. Agur, Cesar.

Nekane. Zenbat denbora elkarrekin egon ziren azken aldiaz geroztik? Auskalo. Telefonoa

hartu eta deitzen saiatu zen. Ez zuen zenbakia buruz gogoratzen eta agendan begiratu behar izan zuen. Lehen deia, bigarren deia, hirugarren deia, laugarren deia. Zain egoteko dauden erarik gogaikarrienetakoa da norbait telefonoz bestaldeko leihora agertuko ote den zain egotearena. Telefono tutu mota ezberdinak daude gainera. Telefono zaharrak, ziztatuta daudela ematen dutenak, inguruko altzari barrokoak oihartzuntzen dituzten tutuak... Telefonoa bestaldean jotzen ari dela jakite hutsak bestearen bizitzaren parte sentiarazten gaitu. Sarkin sentiarazten gaitu. Inork bestaldetik erantzun beharrik izan gabe ere, informazioa ematen dute linea eman zain edo komunikatzen ari diren telefonoek: zenbat metro koadro dituen apartamentuak, atiko edo soto batean ote dagoen telefonoa, argiak piztuta edo itzalita ote dauden. Horregatik daude komunikatzen, ezer ez esan arren zerbait komunikatzen dutelako. Eskegi aurretiko tutu hotzak, zure deia ongi-etorria izango ez dela adierazten dutenak ere badaude. Tutu mingarriak eta zure eskumuturraren dardarari leial zaizkion tutu dardaratiak. Bosgarren deia, seigarren deia, zazpigarren

deia. Eta gizonezko batek hartuko balu telefonoa? Arnasarik hartu gabe telefonoaren besagia eskegi behar hori, bestaldekoak zure hatsean tabako marka jakin bat igarri lezakeeneko uste errudunarekin.

Zortzigarren deia, bederatzigarren deia. Begiak itxita, telefonoaren tutualdi bakoitzak gela hutsaren xehetasun berri bat ematen dizu. Ez dago inor, bare dago gela, lore zimurtu batzuk daude, kafe katilu huts bat mahaian abandonatua, sobre ireki bat eta erdiraino baino irakurria izan ez den gutuna katiluaren ondoan abandonatua, arroparen bat alfonbran axolagabe abandonatua. Agian telefonoa hartuko zuen Nekanek hurrengo tutualdian eta erabat une desaproposean harrapatzen zenuela esango zizun. Agian sofan ari zen larrua jotzen beste norbaitekin eta hori igarriko ote zenion beldur izanen zen, Cesar. Bere matrailezurraren keinua nabarituko zenuen telefonoz bestalde eta nola urduri almohada bat harrotu eta lisatzen saiatzen zen, zerbait egiteagatik, sorbaldaz telefonoaren besagia sustengatzen zuen bitartean, bere magalean, bere hankartean pausatzen zelarik amorante ezezagun

baten burua. Eta Nekane gizon biluziaren burua laztantzen ari zen, bere aluan zuen hazi isuri berria. Nekaneren etxea ezagutzen duzu eta bere ohetik atera, argia piztu eta korridorera iritsi ondoren telefonoraino iristeko behar den denbora hiru bider kalkulatu duzu mentalki dagoeneko. Hamargarren deia, hamaikagarren deia... Definitiboki, ez hartzea bezain desatsegina izanen litzateke une horretatik aurrera Nekanek telefonoa hartzea, Cesar: eten eta puskatuko duzunaren iraupena hamar tutualdikoa izateak benetan zerbait garrantzitsuaren itxura ematen baitio, zernahi izanda ere Nekane egiten ari zen hura.

Ezin zuen gehiago zain egon eta telefonoa eskegi egin zuen. Zerbait erremediaezina, antzinakoa eta mingotsa sentitu zuen eztarri zuloan. Gero zain geratu zen, inozo bat bezala, telefonoari begira. Besagia hartu eta linea martxan zegoela baieztatu zuen, behin eta berriz: alegia ezetz, ez zela telefono aparailuaren matxuraren baten errua inork ez deitzearena. Eskegi egin zuen berriro. Telefono postez posterako kable apur bat kurbatuen sabelak imajinatu zituen. Ehunka bider errepikaturiko kableak irudikatu zi-

tuen, Nekaneren etxerainoko telefono kable guztiak. Sokasaltora jolasten ari diren neska-mutikoek zerbait harrigarria eta tristea ikusi eta soka biratzeari uzten diotenean bezain hilak zeuden telefonoaren soka zintzilikatu haiek, infinituraino biderkatuak.

Cesarrek badaki kosta egingo zaiola berriro ere telefonoa hartu eta zenbaki hura markatzea. Nekaneri buruz berri gehiago sekula ez jasotzeko ideia onartzen saia zaitez, Cesar. Etsita, erantzungailuari begiratu eta play botoia sakatu zuen. Komisariakoa zen erantzungailuko bigarren mezua.

– Roberto nauk. Ondo joan al duk bidaia? Dei iezadak etorri bezain pronto, ados? Denetarik zeukaagu hiretzat: berri onak eta berri txarrak.

Berri txarrak jaso ditiat dagoeneko, Rober. Ez zion mezu hark batere errezelo onik eman, baina garagardoa husterako telebista aurrean hartu zuen loak.

Ez zuen inolako ametsik izan. Eta izan bazuen, ez zuen gogoan hartu. Esnatu zenean, arratsaldeko bostak ziren kasik. Arrotz zitzaion telefono-besagi beldurgarri hura hartu eta komi-

sariara hots egin zuen. Idazkari mengelak hartu zion. Idazkaria baino gehiago zen, egia esan, gauza guztien jakinaren gainean egon ohi den sorgin haietako bat.

– Robertorekin mesedez.

– Noren partetik?

– Zera, James Bond berria naiz, iruditzen bazaizu.

– Telleria jauna? Umoreko jarraitzen duzu... Zelako poza! Donostian al zaude?

– Gaur bertan heldu da urpekontzi errusiarra.

– Oraintxe jarriko zaizu Roberto.

Minutu pare batez Gernikako Arbolaren doinuaren antza izan nahi zuen sintonia penagarri bat entzun behar izan zuen telefonoz bestalde.

– Bai, Cesar? Zorionak egindako lanagatik, azeri hori! Begira, delikatu samarra duk hau, nahiago diat hirekin aurrez aurre hitz egin. Hator komisariara bihar eguerdian, ados?

Ados, jakina.

Biharamunean ordea, komisariara heldu zenerako Roberto alde egina zen. Alain bere laguntzailea bakarrik zegoen han eta betizu samar begiratzen zion honek ertz batetik, diosalik egin

gabe. Robertorekin zuen harreman onaz bestaldera, ez ziren Alain eta Cesar elkarrekin batere ondo moldatzen. Gutunazal bat utzi zuen beretzat komisario-buruak, *post-it* bat itsatsia zuena. Ohartxo bat zegoen *post-it* horian idatzia: «Ustekabekoak eta hanka egin diat. Young Playn ikusiko haut gauean. Roberto». Cesarrek gutunazala ireki eta Young Play diskotekan gau hartan bertan ospatzekoa zen boxeo konbaterako sarrera bat topatu zuen.

Dezepzionatu egin zutela esateak ez zuen balio kasu hartan. Ez Dezepzioa zaku ilun horren hondoko pertsonaia bat denean eta zu bere sabelean bizi zarenean. Argazkiarena zegoen. Argazkia atera zioten Koldori: aurrez aurre lehenbizi eta soslaia gero. Horrelakoetan pentsatzen direnak ez dira sekula pentsatuko zirela uste izaten direnak. Koldori ez zion une hartan gehiegi ardura jasan beharko zuen galdeketak, ez zuen larregi sentitu goizeko hiruretan argazkia ateratzea ahaztu zitzaiela esanez astinaldi batekin esnatu eta ohetik altxarazi zuten haiekiko logika guztien arabera sentitu beharko lukeen amorru-

rik, nahiz eta bat-ba tean ulertu zuen atxilotu guztiak beren argazki polizialean halako *serial killer* aurpegiarekin agertzearen arrazoia huraxe zela: alegia, denak, bera bezalaxe, goizeko hiruretan jaikiaraziko zituztena begizuloen neurria azpimarratzeko. Ez zuen ironiaz kamerari irribarre egiteak suposatuko zukeen istorioaren aldakia kontuan hartu. Tortura hitzak ez zion burua zeharkatu, ez zuen balizko salaketa edo salaketa proiektu baterako bere inguruko polizien aurpegiak gogoan hartzeko erreflexurik izan, ez zuen kode penalak bere kolaborazio delituarentzat eduki zezakeen urte kopurua imajinatzeko ahaleginik egin. Ez zuen telefono gida batez atxilotuaren burua kolpatzen denean telefono urrunen bati kexuren batek ihes egin diezaiokeenik pentsatu. Une hartan bururatu zitzaion gauza bakarra, absurdua, ulergaitza, egia sinple eta gordina, zera izan zen, galdera inozo bat: argazkilaria beti berdina izango ote zen, ertzain guztien artean bat ote zen horren ardura zuena, egin ote zuen lanorduen barruan eta soldatarik galdu gabe egin ohi den ikastaro berezi horietakoren bat behar bezala fokatzeko, ala hobbytzat

ote zuen akaso argazkilaritza, asteburuetan Aralarrera joatean bere emazte eta alaba txikiari aterako ote zizkien goroldioak estalitako zuhaitz izugarrien magalean argazkiak, kamera automatikoa izango ote zen, begi gorriak aterako al zituen komisariako hark ere, lehen jaunartze egunean oparitzen diren kamerek bezala. Edo begi moreak. Emango ote zioten hala eskatuz gero argazkiaren kopia, ba ote zuen eskubiderik halakorik eskatzeko, bere zeldan jartzeko, bere arrebaren eta bere gurasoen argazkiaren alboan.

– Jarri perfilez. Gehiago. Gehiago esan dut. Gehiago, ez da nahikoa!

Argazkilariak berak etorri behar izan zuen, azkenik, eta Koldok, artean eskuburdinak soinean zituela, ezin izan zuen sorbaldaz amorruzkoa izan nahi zuen mugimendu bat besterik egin, argazkilariak berak kokotsetik heldu eta lepoa bihurritu zionean soslai alferrikako eta behartu hura erakuts zezan.

– Perfila nahi dut, zorritxo. Ez zaizkit kromo repeak gustatzen.

«Ezkerreko perfila ez didate atera» otu zitzaion Koldori, garaipen bat balitz bezala, ezker

perfilean bailegoen bere aitorpen guztien giltzarria, une hartatik aurrera ezkerreko perfil hura erabili ahal izango bailuen bere ekintza klandestino guztietarako. Gero, berriro ziega iluna, zigarrorik gabekoa eta uste baino zaratatsuagoa. Batez ere txistu gogaikarri bat zegoen. Nondik ote zetorren eta zer zen imajinatzeak lanak ematen zizkion txistu bat. Inork erantzun nahi ez zuen telefono bat balego bezala. Elektragailu bat iruditu zitzaion gero. Kosmosaren zentrifugatua.

Ez zeuzkan argazkiei begira sartu zen berriro ohera eta ez zuen loak hartu. Zain eta denbora mastekatzen geratu zen, esna, begi urdin, begi gorri, begi moreak ote zituen asmatu ezinik.

Digresio ttiki bat orain argazkiei buruz. Ez al da harrigarria eta krudela zein ondo kontserbatzen den jendea argazkietan? Zenbait pertsonaiaren kasuan, beren bizitzako argazki bakarra edo bere bizitzako sasoi jakin bateko argazkiak bakarrik iritsi zaizkigu. Pertsonaia, idazle edo artista hauek beren bizitza osoan zehar argazki bakan horietan duten itxura bera izan zutela iruditzen zaigu. Mundura traje edo soineko lisatu eta guzti

erdituak izan balira bezala. Argazkiek, gure hitz egiteko era desatsegin eta zakarra ezabatu eta gure keinu teatral eta urduriegiak leuntzen dituzte. Mitifikaziorako tresna aproposena dira argazkiak.

Badira zerbait berezia duten argazkiak. Emazteaz hain maiteminduta egonik egun osoan zehar haurdun zegoen emaztea bere buruaren argazkia begiratzera behartzen zuen senar tiranoaren adibidea da argiena. Bere emaztearen biki bat nahi zuen alabatzat, eta emaztea egun guztia bere neskato garaiko argazki bati begira egonez gero, haurra ere emaztearen berdina ekarriko zuela iruditzen zitzaion senar tiranoari. Agian lortu zuen. Argazkiak badira arima zati kaiolatu bat, hein batean. Nolabait.

Luzaro inork begiratu ez duen argazki bati norbaitek begiratzen dionean, munduaren traiektoria desbideratu egiten da une batez. Munduak bere betiko traiektoria berreskuratu aurretiko eten une horretan sortzen dira arima errariak eta mamuak.

Argazkirik onenak beren beirazko hilkutxa mehetatik kanpo daudenak izaten dira. Humano-

agoak. Karteraz kartera ibiltzearen poderioz larruaren usaina dutenak, eta ez animaliaren larruarena bakarrik, erretratuan agertzen denaren usaina ere bai. Ez urkamendiaren gisakoak diren korridoreetako hormetan kakoz zintzilikatutako argazki markoztatuak eta ez gaumahaitxoetako rutinaren lekukotza ematen duten erretratu gogaikarriak. Zure familia guztia eta zure hildako guztien argazkiak eduki ditzakezu gelako hormetan, haien bizia luza dezakezu horrela, haiekin mintzatu eta talde terapia egin, baina gauean, argia itzali behar duzu azkenean: asko maite zaituztet, baina sentitzen dut, argia itzaltzera noa. Ondo lo egin dezazuela. Eta kito, hor geratzen dira argazkiok, hieratiko, beti berdin. Onenak hatz-ma mien labirinto itxurako aztarnak eta azkazalen arrastadak dituzten argazki zaharrak dira. Mezu zifratua da aztarna bakoitza. Eskutik eskura pasatako alabastro hosto horiek dira esanguratsuenak. Gure aiton-amonen erretratu horiei begiratu, eta, inongo arazorik gabe, Billie Hollidayren orkestrako musikariak izan zitezkeela otutzen zaigu. Argazkian ageri den dekorado laburrak –argazkilari baten langelako kartoizko

horma besterik ez dela dakigun arren–, markotik kanpo hedatu behar lukeen mundu zirraragarri bat iradokitzen digu. Gure jaioterria ez baizik eta Mississippi urruneko lurralderen batek behar luke derrigor marko horretatik at.

Zapata kaxa baten hondoan, beste hainbaten artean aurkitutako argazki okre hau adibidez: hogeiko hamarkadan ateratako foto honetan, auto beltz antzinako bat ageri da erdi erdian, eta emakume ezezagun bat dago auto beltzaren gainean eserita. Atzealdean zera irakur daiteke tinta urdinez: «Ford faktoria amerikarreko lehen autoak heldu dira penintsulara».

Argazkia zapata kaxa baten hondoan dago, egunkari txatal eta ginkgo hostoen artean. Lo eta zain. Fereka zain.

Zuria eta beltza. Jada ez diete kartzelaratzen direnei marra zuri-beltz paraleloz egindako traje barregarri hori ematen. Marrazki bizidunetako kontuak dira horiek. Nolabait linboan zaudela adierazteko balio bide zien jantzi hark presoei. Beltza eta zuriaren arteko aukera egiteko zeudela zelda hartan. Zuririk existituko balitz bezala.

Ez dago halako trajerik egun. Baina barroteen itzala ohe zuriaren gainean mantentzen da gaur ere.

Gela Zebratua deitzen diozue. Pertsonaia bat gehiago da. Ziega bat pertsonaia bat gehiago besterik ez da. Argiak eta itzalek zebratua, ohe horrek ezin du luzaro hutsik egon. Zain dago. Norbait behar du eta zu izango zara. Ez galdetu zergatik. Ez dago zergatirik. Gogoratzen olatuekin jolasean ibili eta mareak gora egiten zuenekо hura? Busti gabe ihes egitea ezinezkoa dela konturatzen denaren susto sentipen hori. Zure hondartza zerrautsezkoa edo ogirinezkoa da. Argizaritan harrapaturiko erleak bezalaxe. Horrela zaude, harrapatuta.

Espazioko zulo beltzak inguruan duen guztia zurrupatzen duenean han, zuloaren erdian bazeunde legez.

Zinema areto batean zaudenean bezala, ustez sekula aurrez ikusi ez duzun film bat ikusten. Zinemako pantailan zelda huts bat ageri denean bezala, Gela Zebratua maiuskulaz, pertsonaia bat gehiago delako. Zelda hutsik dago baina kamerak besarkatzen duen angelutik

kanpo bada norbait, iturri bat irekita baitago. Entzun genezake iturriaren jarioa, ikusi ezin dugun arren. Minutuak eta minutuak igarotzen dira eta kamera geldirik dago plano berean, ur korrientearen soinua, joanean, ezer ez da aldatzen. Urduri, zure aulkia utzi eta zinema aretotik ateratzen zara, jasanezina zaizulako Gela Zebratu hori ikustea pantailan ikusiagatik zeldan nor dagoen ez jakitea. Betiko beldur hori. Zinema aretotik irtetear zaude baina okerreko atetik sartu zara, suteetarako atetik. Dena ilun dago, itogina dago, ate itxiak daude. Azkenean itsumustuka ireki duzu ate bat, baina ez zaude kalean, baizik eta zelda barruan. Gela Zebratuan zaude, pantailako zeldan. Itogina jotzen zenuena filmeko pantailan ageri ez arren entzuten zen iturria zen. Eta pantailaren barrutik dakusazun zeure zinema aretoko eserleku izana hutsik dago orain, eta barre egiten du, Aulkia ere pertsonaia bat gehiago delako. Aulki bat pertsonaia bat gehiago besterik ez da. Eta ez galdetu zergatik. Ez dago zergatirik. Gauzak gertatu egiten dira. Lokatzetan harrapatutako erlea bezala. Halaxe zaude.

Aulkia, pertsonaia bat gehiago. Pertsonaia beldurgarria. Batez ere Marta dagoelako bertatik zuri begira, barrez, zuk hutsik utzi duzun eserlekuan.

– Hemendik sei hilabetera pasatuko zain, lasai!

Hortzik gabeko demonioarena da haren irribarrea. Ipuin kontalariak egunsentira arte itxaron balu, ohartuko zen Troiako zaldia ez zela zaldi. Zebra zela.

Amesgaizto bat besterik ez zen. «Klaustrofobia da Olatz, klaustrofobia besterik ez da», pentsatzen duzu. Bostak eta hogei. Goizeko. Bi zenizero metaliko zigarrokinez beteak. Gaur gauean sei baino dexentez gehiago erre dituzu. Ohean bakarrik zaude. «Benetan al nago bakarrik?». Hanka eta besoez koltxoiko hutsuneak segurtatzen dituzu. Argiak piztu eta itzali. Kalean inor ez dabilela baieztatu. N-1 errepideko joanerako argi gorriak eta etorrerako argi zuriak bakarrik. Trenak geldirik txatarra multzoen artean. Bi aldiz egiten duzu eztula. Ez kezkatu, hemendik sei hilabetera pasatuko zain. Eztul bakoitza aukera bat da. Bi aukera daude.

Bi aukeretako bat bera ere ez da zuria. Zuririk existituko balitz bezala. Ongian dagoen gaitz kopuruaren ongi kopuru bera dago gaitzean. Ogirinezkoa da zure hondartza. Eta ogirina egin denean, ezinezkoa da ogiaren koskorra eta mamia bereiztea.

Zerrautsaren ordez ogirina bota lezakete hildako horrek utzi duen odol putzuan. Baina zein hildako? Oraindik ez dago hildakorik.

Bakarrik. Pertsonaia bat gehiago besterik ez da. Bera da beti dagoena, joaten ez dena, lokatzetan harrapaturiko erlea.

Seiak eta berrogeita bat. Seiak eta berrogeita bi. Txatarra metak, garabiak, dena dago geldirik. Oraindik ez da karga-deskargarik hasi. Zerua ari da saretzen estoreen bestaldean, baina oraindik ez dago nahikoa argi begirada batetik bestera dauden trapezio kordelak ikusteko.

Gelako argia pizten duzu itxaropen gehiegirik gabe eta bonbillak eman dezakeen guztia ematen duen arren, argi laranja laru bat besterik ezin du eman.

Egunsentiak lehenbizi beste leiho batzuk aukeratuko dituela dirudi, azkenik, zure leihoan ere sartzeko.

Zoi

Young Play dantzalekua jendez gainezka zegoen. Kea edonon. Ring portatilaren gainean kokaturiko argiak 125 voltioko korrontea zuten antzinako hozkailu ahul haietako baten argi horizta, botiletako etiketak irakurtzeko ahulegia zen argi berdotz hura gogorarazi zion. Edo agian legez kanpoko haurdunaldi-etenak egiten ziren kirofano bateko fokua zirudien gehiago ring gaineko hark. Roberto betiko lekuan zegoen: *neutral corner*-etik oso gertu eserita, oholtza karratuko argiari adi, ringeko izerdi lurrundua usnatzeko aski gertu. Boxeozale amorratua zen, Bilbotik Donostiako komisariara aldatu zutenetik norgehiagoka gehiegi ikusteko aukerarik izaten ez bazuen ere. Cesar ikusi orduko, eskuaz agurtu zuen Robertok, baina orduan ere, ez zion legez kanpoko kirofanokoa zirudien argi hari begirik kendu. Haur baten begirada zuen komisarioak. Han zen zarata itzelagatik izan ez balitz, ringari komisaria ilunaren antza ere eman izango ziokeen Cesar Telleriak.

– Oraintxe hastera zoak.

Ticketa seinalatu eta bertan idatzitako izenak ikusarazi zizkion komisarioak Cesarri. Honek ez zuen ordura arte txarteleko izenetan erreparatu. Boxeolarien ezizen tipikoak ziren: Jimmy Sánchez Kolirio vs. Mohammed Etxebeste. Barregura apur bat ere ematen zioten Telleriari. Baina jakina, ez zen erlijioari barre egiten hasteko garaia. Ez eliza barruan eta meza hastear zenean. Ez apaizaren aurrean.

– Kolirio hau Buenos Airesko Luna Parken Joe Pandari txapeldun gerrikoa kendu ziona duk, ezta?

– Hu-Humm. Halaxe duk. Sonatua izan huen. Joe Panda desagertu egin huen konbate haren ostean. Bi astez miatu zitean hiria bere bila. Alferrik eskuaretu zitean ordea goitik behera. Ez duk sekula gehiago haren arrastorik agertu. Ibaien baten hondoan arrainek egin ditiztek honezkero haren arimarekikoak! Aspaldiko kontuak dituk horiek, ordea, Koliriok hemezortzi urte besterik ez zitian orduan. Ez dituk hogei urte eta koska alferrik igaro.

– Eta zein kristo duk Mohammed Etxebeste hori?

– Pasaiako gazte bat. Debut gaua dik. Pasaiako klubeko kide batekin punching zakuak ekartzera etorri ninduan atzo eta bera ezagutzeko parada izan nian. Odolberoa duk, baina noblea oso. Hamar mila duro jokatu ditiat bere alde. Apustuak kontra atera dituk baina egundoko zezena duk Mohammed. Lehen jazarraldiari eusten baziok, badik aukerarik.

Olio irakiten hasi berriak zartaginean lakoxe zaparrada batek eten zuen elkarrizketa, bi boxeolariak ringera inguratzen hasi zirenean. Meza hastera zihoan. Bitartean, bozgorailuetatik aurkezpenak egiten zituen txandako xelebreak. Bertsolariren bat, ziur aski. Cesar Telleriari oso kutrea iruditu zitzaion dena, dekadentea, telebistan boxeoa ikusi izan zuenetan nabaritu uste izan zuen glamourrik ez zen han inondik inora. Ezinegonak jota, elkarrizketari berrekiten saiatu zen Cesar, hain lekuz kanpo ez sentitzeko ahaleginean. Trago bat faltan botatzen zuen. Bere behaketa lanetan hura baino mila bider leku desatseginagoetan egon behar izan bazuen ere, ez

zekien zergatik, giro haren partaide izateak ezinegona sortzen zion.

– Eta zein hituen berri onak eta berri txarrak? Txarrak lehenbizi, inporta ez bazaik.

– Egon hadi lasai Telleria, ez hadi ipurterrea izan. Aurrena konbatea.

Etsia hartu beharra izan zuen, beraz. Lehen kanpaia entzun orduko, komisarioa, Telleriari erabat gogaikarri zitzaion *nirvana* partikularrean murgildu zen. Norgehiagoka parekatua zen itxuraz hasiera batean, hala iruditu zitzaion behintzat Cesarri, berak zeukan boxeo ezagutza urriaren arabera, beti ere. Laugarren rounderako ordea, Mohammeden aurpegian nekearen aztarnak agertzen hasi ziren. Bosgarren roundean, laguntzaileek boxeolarien izerdia kentzeko txanpaina botila bat ireki eta bizkarrean eta bularrean behera isuri zieten biei txanpaina, eta hain harri eta zur geratu zen Cesar Telleria, ez baitzuen hurrengo kanpaia entzun bitartean txanpaina botilaren bitxikeria patetikoa ahazterik lortu. Seigarren roundean jada korden aurka baztertu zuen pare bat aldiz Koliriok bere aurkaria. Roberto Goaza komisarioak etsipen zizpurua

egin zuen. Zutitu eta gabardinako hegalak tinkatu zituen, lepoa babestuz.

– Goazemak. Gaurkoan Mohammed ez zegok irabazteko tenorean.

– Ez duk konbatearen amaieraraino itxaron nahi?

Alferrik zen. Komisarioa jada dantzalekuko ataririantz zihoan zigarro bat pizten ari, bere bizkarrean pilatzen ziren oihu ulertezinei entzungor, 125 voltioko hozkailu zaharkituaren argixkari itsu. Jendaila zeharkatu ondoren pasillo ilun eta estu bat igaro zuten, boxeolariek kamerino inprobisatu bezala erabili zuten saloi handi batean amaitzen zena. Bionbo batez banatutako bi espazio zeuden han eta bionboaren alde banatara, boxeo entrenamenduetarako erabili ohi ziren bi zaku erraldoi, hareaz beteta dauden horietakoak. Robertok zaplada galanta eman zion *punching ball*-ari, baina hain gotor eta betea behar zuen egon, zakua apenas mugitu baitzen.

Pasabidearen bukaeran, apustuez arduratzen zen agurea konbateari adi zegoen ate ondoan. Robertok bost milako billete eskukada bat jarri zion hatz artean, aurreko konbateetatik Otis be-

zala ezagutzen zuen gizaseme harrituari. Mohammed, Kolirio, Otis... Ezin al zuen norbaitek izen arrunt bat eduki? Surrealista samarra egiten zitzaion Cesarri hura guztia.

– Baina jauna, hau ez da ohiko prozedura. Konbatea bukatu arte itxaron behar da ordaintzeko!

Robertok ba-niri-bost keinua egin zion Otisi eskuaz eta kalerantz zuzendu zen, dantzalekuko giro itogarria jasan ezinik, presaka, Cesar Telleria pauso batzuk atzerago segika zuela.

– Hamar mila duro putzura. Eta dena aberkide baten alde apustu egiteagatik. Bihotza samurregia diagu oraindik, Cesar.

Cesar Telleriak, urte luzetan bere buruzagi eta orain lankide parekide zuenak zigarroa zuztarreraino ahitu arte itxaron zuen, Young Play diskotekako parkinean bere autorantz zihoazen bitartean. Cesarrek ere hatz artean zuen zigarroa, baina urduriegi zegoen erretzeko, eta hatz bien artean batetik bestera erabili besterik ez zuen egiten. Metalezko zutabeetan zintzilikaturiko afixek –Jimmy Sánchez Kolirio eta Mohammed Etxebeste ageri ziren, jarrera zemaikorretan– ar-

tean txikia zelarik uda guztietan bere herrira iristen zen zirkuko kanguro boxeolaria ekarri zioten gogora Telleriari. Zigarrokina lurrean amorruz zapaldu eta apur bat sosegatuago mintzatu zen komisarioa. Orduan bai. Telleriak hartu zion erretzeko txandan erreleboa, bi hatzekin zigarroa piztu eta bi hatzekin erretzen hasiz.

– Traidore bat. Saldu bat. Gure esperantzarik onena huela pentsatzeak azazkaletan hozkirria eragiten zidak.

– Tira, gaztea ematen zian Etxebeste horrek. Hurrengoan beharko dik izan. Kolirio ere ez duk gero makala, ia bere berrogeietan.

– Motel, motel... Ez nauk norgehiagoka inozo horretaz ari! Nahiago bai, Mohammed alu hori balitz traidore bakarra. Alargun Beltzaz ari nauk, gizona.

Erabat aldatu zitzaion aurpegia Telleriari, gehiegi. Hainbestekoa izan zen aldaketa, Roberto bera ere konturatu egin baitzen ordura arte kasu zipitzik egin ez eta oso distante mantendu zela Telleria, eta lainoetatik lurrera bat-batean jaitsi zela Alargun Beltzaren izena entzun orduko. Alargun Beltza, hik eta nik ezagutzen dugun

Alargun Beltz berberaz ari al haiz, galdera huraxe, hitzik gabe adierazten zuten Telleriaren begi harrituek.

– Berbera.

– Ez al zen guretzat konfidente lanean ari?

– Konfidentea baino gehiago. Gure urrezko satorra zuan. Barruraino zegoan sartua. Piramidearen muturrik gorenarekin hari zuzena izatear zuan. Onena, erabat fidagarria. Hala eskatu izan balidate lepoa jarriko nukeen beragatik gillotina baten pean. Eta orain hau.

– Hasieratik azaldu beharko didak, Roberto. Denbora luzea duk Alargun Beltzaz ezer entzun ez dudala. KGB barruan ere, askok alegiazkotzat jotzen ditiztek Alargun Beltzaren istorioak. Dena gezurra dela uste ditek gehienek.

Roberto Goaza komisarioak onaren eta gaizkiaren gainetik dagoenaren begirada zuzendu zion Cesarri, zure etorkizunaz dena dakitela eta etorkizun hori geratzen zaizkizun urte guztietan zapata-garbitzaile lanetan pasatzean datzala dakikenaren begirada. Begirada mota hura ere aspaldi katalogatua zuen Cesar Telleriak.

– Jokoaren parte bat duk hori. Alargun Beltza mamua dela sinetsaraztea, baita lankideei ere, berak lana lasai egin dezan. Gauza, nolabait, bera ere haietako bat izatea duk: kontraespioitzarik ez, eta epe motzerako emaitza eskaerarik ez. Guk ez zekiagu non dabilen ere. Bera jartzen duk gurekin harremanetan zerbait serioa daukala uste duenean. Hori duk dena: berak hala eskatuta, guk ezin diagu non dagoen zedarritzen saiatu, eta horren trukean piramidearen muturrerako bidea erakusten ziguk berak. Epe luzerako apustua duk. Baina Alargun Beltzak hik eta nik adina zeukak alegiazkotik. Deus ez.

– Bota ezak ba behingoz. Zer gertatu duk?

– Auskalo. Nik ez zekiat zer pentsatu. Agian burua joan zaiok. Akaso denbora gehiegi zeramak barruan eta azkenean, nik zer zekiat... Arerioaren arrazoiak ulertzea ere gerta litekek... Edo litekeena duk haietako batekin kolgatuta egotea ere. Pertsonak gaituk. Guk ere nahi baino antz handiagoa zeukaagu putakume horiekin.

– Ez hadi erratu, Roberto. Putakumeak eta putakumeak zeudek. Gu legearen aldean dauden putakumeak gaituk.

– Nik zer zekiat motel, ez zekiat zer pentsatu. Hamar egun badituk haren berririk ez dugula. Hori bakarrik, eta nahikoa hori.

Komisarioa lur jota zegoen. Zer pentsa geratu zen Cesar. Hamar egun ez zen denbora luzea sator baten batere berririk gabe igarotzeko.

– Ez zaidak hain denbora luzea ere iruditzen...

– Ez duk hori bakarrik. Okerreko informazioa pasa ziguk. Atentatu bat iragarri ziguan okerreko orduan eta okerreko lekuan. Madril hankaz gora jarrarazi genian, alfer alferrik. Gorriak eta zuriak entzun behar izan ditiat goitik oraingoan.

Hori beste gauza bat zen, ez zen harritzekoa komisarioak asuntoari ogi lizunduaren usaina hartzea. Okerrena pentsatzea eta okerrena esatea iruditu zitzaion Telleriari une hartan komisarioaren begijea argitzeko modurik onena.

– Haren berririk ez eta informazio okerra, beraz... Baina nola dakizue traidorea dela? Hori da daukazuen guztia? Ez zaizue burutik pasa haiek satorra zulotik ateratzen ikusi eta bere arrastoa jarraitu ondoren konfidentea zela deskubritu, Alargun Beltzari amua irentsarazi eta in-

formazio okerra pasarazi ondoren desagerrarazi dutenik? Hik ere ondotxo dakik zein zingiratan ari garen mugitzen. Onartzea krudela izan arren, egoera dagoenean egonda, litekeena duk Alargun Beltzaren ADNa azido nitriko upel batean egotea honezkero, landareentzako ongarri bihurtua.

Komisarioak bere autoko atea zabaldu eta gidariaren aulkian zegoen gutunazal bat luzatu zion Cesarri, zapata-garbitzailearen etorkizuna iragartzen zion begirada harekin. Telleriak gutunazala ireki zuenean argazkiak ikusi zituen bertan. Desfokatuta zeuden arren, bat eta berbera, Alargun Beltza zen argazkikoa, dudarik gabe.

– Bi lekuko ditugu tiroak egin zituena Alarguna zela esaten dutenak.

Putzu sakon batean amildurik zirudien komisarioaren begiradak. Anartean, dantzaleku barrutik, egundoko oihuteria sinkronizatu eta batbatekoak parkinean zeuden bi gizonen tinpanoak kolpatu zituen. Norbait kaoz erori zen lurrera. Eta beste norbaitek hamar mila duro bota zituen deabruaren eztarri zulotik behera. Diruak hitz eginen balu esanen zukeen akaso poxpolo izeki

batek infernuko azken zulora erortzen denean esaten duen berbera: etxean, azkenik. Otis bezala ezagutzen zuten apustugileak cowboyek kapeluarekin –eta baita kapelurik gabe ere– egin ohi duten agur eta miresmen keinua egin zion urrunetik Roberto Goazari, orain bai, bakean gaudek, esanez bezala. Komisarioak ez zion erantzun.

– Eta zeintzuk hituen berri onak?

Galdera egin bezain pronto konturatu zen Cesar Telleria mihia dantzatu izanaren desegokitasunaz. Zita guztietara segundo bateko atzerapenaz iristeko bertutea duen damuak ordea, ez du ezertarako balio. Iritsi bezain pronto igartzen baitzaio begiradan beste batekin traizionatu gaituelako etorri dela berandu. Bi aldiz da gogaikarri, damua.

– Berriro etxean hago, ezta? Zer gehiago nahi duk?

«Nik honezkero ez diat etxerik» esatekotan egon zen, baina oraingoan damuak berea ez zen etxe hura habita zezan utzi zuen. Cesar Telleriak azken sakatua eman zion bi hatzekin sustengatzen zuen zigarrokinari eta horma bat bilatu

zuen inguruan. Ez zitzaion zigarro zuztarrak lurrean zanpatzea gustatzen: hormen aurka eta ateen markoen aurka itzaltzen zituen beti. Sineskeria inozo horietako bat zen. Baina inguruan ez zen inolako hormarik, eta lurrean zanpatu behar izan zuen zigarrokina, besterik ezean.

Komisarioak autora sartu eta irratia piztu zuen arrankatu aurretik. *Sweet home, sweet home Louisiana*. Harmonika baten doinuak entzun zituen oraindik Telleriak, parkinean bakarrik geratu aurretik.

Azaroaren hondarreko egun haietan sargori zen arren, arratsetan fresko samar egiten bazekien eguraldiak. Behingoz negukoa behar zuen hotza helduko ahal zen laster. «Itxi ezan leihoa, hotza sartuko dun eta!». Leihoa itxi zuen Olatzek hotza sar ez zedin. Zigarroak erre eta erre eman zuten larunbat arratsalde hura. Lasai antzean zeuden. Pataki bere gelan ari zen, auskalo zertan, irakurtzen edo burua jaten, eta haiek berriz, lehen aldiz norabait elkarrekin heltzear baleude bezala. Sentipen konpartitu eta erlaxatu bat. Agian hori gehiegi esatea bazen ere, etxeko

sabai baxuan irudi dentso eta geldoak osatuz pilatzen zen keak koltxoi lanak egiten zituen, aitorpenei biluzte handiagoa baimenduko balie bezala. Eta arima biluztearen aukera horretaz biak ziren kontziente, bietako inork egingo ez zuen arren. Aukera airean egote hutsa asko eta sobera zen ordea giro bat sortzeko orduan. Esanda zihoazen hitzetan esan gabe doazen beste hainbat ere bazeuden. Edo egon zitezkeen behintzat. Nolabait.

Putz eta putz, ke artean kezko erretratu bilakatuak ziren haiek ere. Eta keaz mintzatzen ari ziren arren, beren buruez keak sortu zituen karikaturez ere mintzo ziren beharbada. Zerua arbel-zuri zegoenez ezinezkoa zen egun hartan lainoen gainean jolasean aritzea, eta *indoor* modalitatean jardutea erabaki zuten, joko-zelaia sala barrura murriztuta.

– Zortzi zenbakiaren itxurakoa atera zain kiribil hori. Kantuak dioen bezala: baga, biga, higa; laga, boga, sega; zai, zoi...

– Ez zoi eta ez doi. Antifaz bat dun hori.

– Grouchoren betaurrekoak.

– Lauaxeta edo beste fusilaturen batenak.

– Dado bat hortxe.

– Ba niri kaiola bat iruditzen zaidan.

– Bai zera, Marta, kubo horrek ez zeukan barroterik.

– Kaiola bat dun, lepoa egingo niken.

– Dado bat, fijo. Eta seikoa atera dun gainera. Sei koadrotxo aurrera. Zortea gure alde dinagu. Beste horrek trainerua ematen din.

– Trainerua? Noiztik egiten ditizten traineruak sirena urdinekin eta pikoletoak gidari dituztela? Guardia Zibilaren patruila dun hori, neska.

– Erremediorik gabeko nihilista bat haiz, Marta.

– Hori hiri irudituko zain. Ahor txakur bat ertzean.

– Katua gehiago, ene uste apalean.

– Bizitza bakarra geratzen zaion katua, edozein kasutan.

– Ez dun amore ematen, e? Hara hor aulki bat. Hori behintzat garbia dun, ez didan ukatuko, ala?

– Aulkia dun, bai. Elektrikoa izatea, horixe ñabardura bakarra.

– Hago isilik. Horko bi horiek gu geu gaitun.

– Nik Sacco eta Vanzetti anarkistak direla esango niken ba, heriotza zigorrera kondenatu berriak.

– Erdi bide bat proposatzen dinat: Laurel and Hardy balira?

– Onartzen dinagu olagarroa konpainiako animalia bezala.

Kea sabaian bildu zen eta gandua apur bat garbitzean, salako ispiluan haien aurpegiak agertu ziren.

– Horiek bai, gure antza gehiago diten. Itogarri zegon hau. Ireki itzan apur bat leihoak.

– Hotzak alde egin dezan?

Martak irribarre egin zuen eta Olatzek leihoko kisketa ireki zuen.

– Hotzak alde egin dezan, bai.

Oheratu aurretik, harraskako paper errearen errautsak garbitu. Irratiko diala. Egunak aurrera eta atzera pasarazteko ahalmena izan dezakeela dirudien dialarekin kontuz. Dena kontu handiz ukitu. Ez. Ahal bada ezer ez ukitu. Baina zerbait ukitu behar bada –eta zerbait ukitu behar bada esaten denean zerbait hori ukitzea guztiz beha-

rrezkoa dela esan nahi da–, orduan kontu handiz ukitu. Aztarnarik ez. Plastikozko eskularruak erosi. Etxe bat utzi eta alde egin aurretik dena garbitu. Mesanotxe gaineko iratzargailuak eta hozkailuko gai guztiak zabor poltsatan sartu eta bota. Kontuz sukaldeko olio arrastoekin. Nonbait azaldu diren paper berriak ere harraskan erre. Harraskako errautsak berriro kendu. Moketadun etxeak saihestu, alfonbrarik ez etxeetan. Hormetako aztarnak ezabatu, kontuz bereziki azuleiuekin. Kontuz eskail-buruan aztarnak uztearekin. Telefonoa azkenik. Zapi batekin telefonoa garbitu dei kruzial hori jaso ondoren. Atea itxi alkandoretako mahuka luzeegiak lotu gabe, eskailerak jaitsi, ezkaratzeko atea emeki itxi, eta orduan bakarrik, alkandorako eskumuturretako botoiak lotu eta eskuak txotxongiloetako panpina ezkutuak bailiran kanpora atera, itotzear zegoen buzeatzailea ozeano sakonetik irten balitz bezala, azkenean airea hartuz. Eta eskuak ireki eta esku ahurrean irekitzen doazen pitzadura berriek esanahiren bat eduki ote dezaketen galdetu zure buruari. Eta airea hartu. Sakonki airea hartu. Giltzak ibaira bota, zakur batekin jolasean

ari zarelako itxurak eginez: «Zoaz, Elur, zoaz giltzen bila». Baina giltzak baino gehiago dira botatzen dituzunak. Taupadaren bat, adrenalina, urduritasuna, galtzerdiak bailiran korapilatutako begirada kordelak. Eta gero oinez jarraitu norberaren aztarnak susmagarri ez diren leku bateraino. Posta-etxe bat edo bigarren eskuko diskoak saltzen dituen denda bat, eta han utzi aztarna zaharrak, The Lounge Lizards, Morphine edo The Doorsen disko bat aukeratu eta bere azalean utzi zure aztarna guztiak. Txakur usnariak despista daitezen. Zure bihotza, suge kiribildua bailitzan –beldurra askotan espiral bat da, zabaldu egiten da espiralaren jatorri zehazgabetik– azalberritzen sentitzen duzu, azal zaharra eta aztarna zaharrak eguratsa den aztarna mortuen biltegian utziz. Eta gero ihes egin, inolako arrastorik utzi gabe. Paranoiko bat naiz, paranoiko bat naiz, paranoiko bat naiz hitzak mastekatuz behin eta berriz ahopean. Lasai Olatz, dena pasatuko dun. Denbora kontua. Sei hilabete barru dena normala iruditukо zain.

Agian hori zen beldurgarriena. Dena normala iruditzea. Hori edo Gela Zebratua. Bi gauza gerta

zitezkeen, beti ere. Errepideetan ere bi ziren beti aukerak tiratxina baten gisan bideak bere izterrak ireki eta gidariari eskaintzen zizkionean.

Baina hori zen zure bizitza. Eta bizitza bera eguneroko aukera kontzienteen kateatzea besterik ez izan arren, esan zitekeen, nolabait, ez zitzaizula beste erremediorik geratu.

Ez zara Beldur. Beldur bazina ez zenioke beldurrik Beldurrari. Nork bere buruari ez dio beldurrik izan behar.

– Badakik, Alain? Kontatu diat sekula nire kosmosaren ikuspegia? Bazekiat oso pedantea geratzen dela horrela esatea, baina benetan teoria zientifikoa garatuta zeukaat gure bizitza honi buruz. Erabat arrazionala duk gainera, errefutaezina. Gauza duk unibertsoa materia kopuru jakin batez osatua dagoela, hasiera bat izan zuela big-bangean eta amaiera bat izanen duela noizbait. Baina zer gertatu zen ditxosozko big-bang horren aurretik? Eta amaiera hori ailegatzean zer? Kito? Batzuk zerura eta besteak infernura? Hori umekeria bat duk, Alain. Milioika urte igaro ondoren bada ere, beste hasiera bat egonen duk

noizbait, big-bang berri bat, eta beste hasiera horretatik beste bizitza mota bat sortuko duk, beste nonbait, edo akaso gure honen antzekoa den munduren bat sortuko duk... Hobe esanda, biak sortuko dituk, denboraren poderioz eta arian-arian konbinazio guztiak osatuko baitira. Milaka hasiera egon dituk dagoeneko eta milaka egongo dituk aurrerantzean ere, eta hemendik X urtera, elementuek hala nahi dutenean, gaur bizi izaten ari garen egoera berberera itzuliko gaituk, hementxe egongo gaituk hi eta ni hizketan, karramarroa jaten Trintxerpeko jatetxe batean, eta horko barku egiptoar hori berbera egongo duk greban... Une hori berriro harrapatzeko, jakina, beste milaka egoera ezberdin eta bizitza ezberdin jasan beharko ditiagu: Neron izatea tokatuko zaiguk eta baita Marilyn Monroe izatea ere. Ruandako misiolari eta Egiptoko esklabo. Denok izan gaituk noizbait Beau Jack boxeolaria, bere egunak zapatak garbitzen bukatu zituena, edo Battling Siki, New Yorkeko Hell´s Kitchenen tiro batez hila izan zena. Denok pasatuko ditiagu guztiak, eta agian geure garaian kontatu izan zaigunak bezalako Neron edo Marilyn izango gai-

tuk, haiek egindako ekintza eta txorakeria berberak egingo ditiagu: Erromari su eman eta Kennedy presidenteari *Happy birthday* abestu edo agian ez, agian Neron eta Marilyn erabat ezberdinak izango gaituk... Imajinatzen suizidatu beharrean ehun urte bizitzen den Marilyn bat izango bahintz herori? Ez al zaik dibertigarria iruditzen? Egunen batean Tyson izanen gaituk eta kosk eginen zioagu Holyfielden belarriari eta hurrengoan berriz geure belarria izango duk hozkatua... Hainbat bilioi konbinazio posible zeudek, baina azkenean dena materia duk. Materia desegina eta materia birrantolatua... Eternala duk, hau, Alain. Ez gaituk unibertsoaren funtzionarioak besterik. Ez diat errenkarnazioan sinesten, ez zegok harri bat utzi eta, erosoagoa zaiolako, apaiz baten buru hutsera sartzen den arima erraririk... Horiek txorakeriak dituk. Gauza askoz ere geldoagoa duk, matematika kontu hutsa. Asko pentsatu izan diat honetan, eta, ziur aski, bizitzen ari garen hau ere ez duk elkarrekin bizi izan dugun lehen bizitza. Lepoa egingo nikek duela milioika urte ere hemen geundela biok, karramarroa jaten eta gaur dugun elkarrizketa zen-

tzugabe berbera aletzen... Batzuetan, leku batera iristen garen lehen aldia izanagatik edo pertsona bat ikusten dugun lehen aldia izanagatik, leku edo pertsona hori ezagutzen duguneko sentipena izaten diagu. Gure baitan dagoen materia horrek gordetzen duen memoria ñimiño hori ari zaiguk hizketan, guk garunaren akats jotzen dugun horretan. Izan ere, ezagutzen baitugu sekula ikusi ez dugun pertsona hori, egon izan gaituk aurretik leku berri jotzen dugun arren hain berri ez zaigun horretan, edo gure baitako materiaren zati bat egon duk behintzat, Ni izan beharrean Zu edo Bera zelarik, edo Zu zati bat bederen, Holyfielden belarrian edo Marilynen bular edo ezpainetan zegoen Gu zati bat... Jarraitzen al didak?

Alainek karramarro platerean iltzatuak zituen begiak eta ez zion komisario-buruaren jarioari kasu gehiegirik egiten. Albariño botila erdia hustu ostean halako gaiekin hasten zenean, isilik geratu eta Robertok bere hari-tranpak bakarrik jar zitzan uztea izaten zen onena. Roberto bera zen bere buruaren Ariadnaren hari-gidari eta urkabe nahiz korapilogile, guztia aldi berean.

– Egia esan, Roberto, ez diat inoiz halakorik pentsatu, baina zentzuzkoa ematen dik. Erabat zentzuzkoa ematen dik, bai horixe.

Roberto Goaza komisario-buruak ez zuen bere karramarro platera ukitu ere egin eta bere karramarroekikoak bukatuta, Robertorenak ere irentsi zituen Alainek. Bukatu zuenean, hatzak xurgatu eta eskuzapi batez garbitu zituen eskuak, eskuzapi zurian esku bien erradiografia abstraktu bat utziz, Izara Santuaren eskuen arrastoen antzekoa zena. Nork jakin, agian jainkoa ere egona zen han, Trintxerpen, karramarroa jaten, duela milaka urte.

Oso aspaldi izan behar zuen, hori bai, badiak aspaldi utzia baitzirudien, jainkoaren eskutik.

Gutunazalean Branka jartzen zuen letra larriz. Martaren goitizena zen, aspaldi erabiltzen ez bazuen ere. Orduan irakurrita, ez zitzaion Pataki ezizena baino duinagoa iruditzen, egia esan. Arrotza egiten zitzaion. Ez zuen sobrearen atzealdeko inizialak ikusi beharrik izan gutuna gailurretik zetorrela ohartzeko.

Gelan bakarrik egon arte itxaron zuen sobrea ireki aurretik. Sobre bat horrela jasotzea ez zen ohikoa. Ez zen jarraitzen zen prozedura. Berri pozgarriek aspaldi utzi zioten sobreetan bidaiatzeari. Goitik behera irakurri zuen xehetasunez jabetzeko, ongi jabetzeko, ezer ahaztu gabe. Ez zen zaila haria nondik nora zihoan konturatzea, egia esate aldera. Hitz gutxitan eta ulertzeko moduan esateko, aspaldi hartan entzuteko beldur zen zerbait baieztatzera zetorren karta hura: sator bat zebilen haien artean zer suma eta sator hura edonor izan zitekeen. Martak bere burua eta buru oreka babesteko lasaitasunaren teoria bat eraiki behar izango zuen. Lasaitasunaren Teoria bat edukitzeak ez zuen berez ezer ziurtatzen, ez zuen praktikan ezertarako balio, baina lagungarria zen, herrialde ezezagun eta urruneko bateko pasaporte faltsu bat izatearen antzeko zerbait. Ihes betea zilegi balitz.

Hasteko, Olatzek ez zuen sator itxurarik, horretaz kabalak egitea ez zen zaila. Eta gero mezularia satorra izan zitekeeneko hipotesia zegoen. Baina nola egon ziur mezulariaz? Normalena satorra bera ere ez izatea zatekeen, osteran-

tzean gutun hura irakurri eta deuseztatzeko astia eduki baitzuen. Baina bestalde, koartada perfektua ere bazitekeen: nola izango naiz ni satorra, berria eskutik eskura neronek eman badizut? Koartada horrek susmo guztietatik libratuko zuelakoan egon zitekeen Pataki delako hura, eta gauza onerako, inozoegia zirudien gazte hark. Litekeena zen aditzera ematen zuena baino askoz ere gehiago jakitea. Horrek guztiak atezuan jarri zituen Marta eta bere Lasaitasunaren Teoria. Jakina, gutun hark ez zuen inolaz ere ziurtatzen traidorea hiru haietako bat zenik. Sator bat zegoen barruan, hori zen zekiten bakarra. Aukera ttiki bat besterik ez zen satorra hiru haien arteko bat izatea. Bermudetako Triangeluko beste iheslarietako bat ere izan zitekeen, haiekin zerikusirik ez zuen norbait. Bigarren hipotesia zen, gainera, normalena. Egun pare bateko loa kendu zion gai hark. Asko pentsatu ondoren, biak deitu zituen bere aurrera. Olatzen defentsa lerroan halako zerbait entzun beharrak sor zitzakeen kalteak aurrez neurtzea zaila zen. Hori zen Martaren kezkarik nagusiena. Beste hainbatetan bezala, apo-

armatuaren koraza jantzi eta erraietatik mintzatu zen Marta.

– Esan behar dizuedana oso larria da. Azken aldi honetan sator bat daukagu barruraino sartua, itxuraz. Horrek ez du esan nahi zuetako bat denik, baina aukera guztiak kontuan eduki behar ditugu. Begietara begiratu eta zuek satorrak ez zaretela esan diezadazuen nahi dut.

– Zein jolas klase da hau? –Olatz oso zurbil geratu zen, ez zuen espero halakorik, inondik inora ere. Nor eta etxea jartzen zuena satorra? Nola zitekeen Martak bat-batean berekiko halako mesfidantza eta distantzia erakustea? Une hartan gorrotatu egin zuen Marta. Sentimendurik gabeko munstro bat iruditu zitzaion. Pataki berriz, gogaitu aurpegiarekin lurrera begira jarri zen, pentsakor, edo agian pentsakor agertzea urduritasuna ezkutatzeko era bat baino ez zen.

– Nik ekarri nuen gutunean zetorren, ezta?

– Hara, itzel, honek zerbait badaki. Ez didazu orain esango gutuna irakurri duzunik, ala?

– Kargura zaudena zara, baina ez pareta hauen artean pentsatzen duen bakarra.

– Ongi gudaritxo, ez jarri horrela. Nahi duzuena. Baina orain begira iezadazue aurpegira eta esan ez zaretela zuek satorrak.

– Beharrezkoa al da?

Olatzi pozoia eta sua zerizkion begietatik.

– Ez dut uste zoko honek errekreoko patioaren itxurarik duenik.

– Gu ez gara satorrak, Marta –esan zuen Olatzek lasaitasuna galdu duenaren irmotasunez.

– Nik ez nuke plurala erabiliko. Hitz egin zeure buruaz. Eta? –Martaren begirada zemaikorra zen, goitik behera zeharkatu zuen Pataki, parentesi artean giltzapetu balu bezala.

– Ni ere ez naiz satorra, horrek lasaiago uzten bazaitu.

Martak bizkarra erakutsi zien biei, zigarroa pizteko haizetik babesten ariko balitz bezala. Keinu absurdua, lau hormen artean eta leiho guztiak itxita zeudela kontuan hartuz gero.

– Uzten nau, bai horixe. Baina horrek ez du esan nahi sinesten dizuedanik.

– Nork ziurtatuko digu satorra zerori ez zarenik?

Martak bere imintzioen artean irribarrearen antz handiena zuen keinu nekez hura deitu zuen ezpainetara Patakiren galderaren aurrean.

– Ez izan baboa, txotxo.

Olatzek bere sorbalda keinu barkamen eskezko bat egin eta, nolabait esatearren, marinelen ontzi-terminologia erabilita, nor bere postu eta zereginetara itzuli zen.

Inork ez zuen sator konturik aipatu.

Dena argi gutxirekin egitea gustatzen zitzaion. Flexo bakar bat eta keak bildutako gela iluna. Hatza jarri zuen mapa gainean. Zigarroa lau hatzekin heltzeko ohitura zuen Martak, hatz ttikienarekin izan ezik, gainerako guztiekin. Zigarroari sakatu bat egiten zioneko bekainak gorantz tinkatzen zituen. Bere pentsamenduen erritmoa zen hura. Bi hiriak lotuz marra bat trazatu zuen errotuladore gorriaz. Gero zortzi itxurako borobil bikoitz bat marraztu zuen bi puntuen artean, eskumutur mugimendu azkar batez.

– Ugaldetxo. Hemen aldatuko dugu autoa.

UGLDTX idatzi zuen gero eta gezi bat trazatu zuen Oiartzuneraino. O bat biribildu zuen geziaren muturrean. Olatz eta Pataki elkarri begira geratu ziren, adostasuna adieraziz. Martak keinu baikor batez metalezko hautsontzian zanpatu zuen zigarrokina eta zortzi tolesturatan bildu zuen errepide-mapa. Olatzek ere bere zigarroa amatatu zuen. Arratsaldeko lau t'erdiak ziren eta kanpoan zerua urdin zegoen. Egia bazen laino bakoitzean amets bat ezkutatzen zela, egun hartakoa esloganik gabeko zerua zela esan zitekeen.

Pataki eta Marta bakarrik atera ziren kalera. Froga bat besterik ez zen, osterantzean Olatz joango zen gidari. Olatz N-1 errepidera eman beharrean kalearen bestaldera ematen zuen leihoaren ondoan geratu zen eta agur egin zien eskuaz autora sartzen ziren bitartean. Pataki zihoan gidari eta argiak piztu eta itzaliz erantzun zion Olatzen keinuari. Martak, Olatz han ikustean leiho ondotik apartatzeko keinua egin zion eskuaz «alde hortik» hitzak ezpainekin marraztuz. Gero autoa arrankatu eta autobidera altxatu ziren.

Nikotinak gristutako paretak. Zuhaitz baten enbor ebakia legez eraztun kontzentrikoz osaturiko labezomorro beltz erraldoien formako oskolak zituzten flexoak zeuden mahaien gainean barreiaturik. Paperak nonahi eta ordenagailu piztu bat argia amataturik ez zuen mahai bakarrean. Komisarioaren mahaia zen, bere KGBko rangoak bulego propioa izateko eskubidea ematen zion arren, nahiago zuen elkarlana. Edo itxura hori eman nahi zuen behintzat. Mahaiaren atzealdean kortxo bat, sindikatuen azken zirkularrekin eta argazkiekin betea. Kortxoaren ezkerraldean aztarna digital baten irudia marrazturik zuen zuri-beltzezko poster bat. Kortxoaren eskuinaldean berriz, gelako leiho bakarra, estore gris batzuez babestua eta erdialderaino itxia zegoena. Komisarioaren mahaia hutsik zegoen, eta La Rosa hitzak margoturik zituen katilua erdiraino zegoen kafe hotzez betea. Denak, Roberto Goaza barne, bilera gelan zeuden bilduta.

– Honezkero jakingo duzuen bezala, bilera hau Bermudetako Triangelu madarikatuari buruz hitz egiteko deitu dut. Jakina, fenomeno paranor-

malak maite ditugu denok! Errua ez da kazetariena. Haiek literatura egiten dute edozer gauzarekin, aitzakia ttikiena aski dute, barregarria iruditzen zaie, ez daukat zeresan handirik horri buruz, *Bermudetako Triangelua* izen injenioso usteko hori asmatu zuenari potroak gustura lehertuko nizkiokeen arren. Irakurri dituzue gaurko egunkariak? Laugarren aldia da aurten Bermudetako Triangelu putakume horretan galtzen dituguna. Baina nora begira bizi zarete? Lau kilometro koadroko eremu batean daude eta ez gara gai arratoizulo madarikatu horretan kiratsa darion zerri madarikatu bat aurkitzeko? Miatu itzazue herrira sartu eta ateratzen diren auto guztiak. Zoazte atez ate beharrezkoa bada. Baina hiru egunetan zerbait aurkitzen ez baduzue, ni izango naiz lan berria aurkituko dizuena. Tarot madarikatua irakurtzen jarriko zaituztet museko karta sail batekin. Nahikoa garbi mintzatu al naiz? Ba orain ospa, lanera, neska-mutikoak!

Cesar Telleria bilera gelaren kanpoaldean zegoen, ukalondoa bermaturik zuen ate-irekiaren ertzetik dena entzun bazezakeen ere. Haserre

ematen zuen benetan. Bilera gela hutsik geratu zenean, keinu egin zion komisarioak Cesarri. Bakarrik geratu ziren biak, formikazko altzari zuriak eta sabaitik zintzilik zegoen foku handi bat besterik ez zituen bilera gela biluzi hartan. Luzaro aritu ziren hizketan, eta itzulinguru askoren ondoren baino ez zion Robertok hariari heldu. Cesar Telleriak, espero zuen halako zerbait. Boxeo konbatearen ondoren izan zuten elkarrizketaz geroztik entzuteko beldur zena entzun zuten bere belarriek. Xagu-tranpa batean harrapatuta zegoen eta ezin zuen ezetz esan.

– Jakina, Pasaia ez da Lisboa... Ttiki geratuko zaizu agian, baina hori zure alde. Ez duzu denbora asko beharko sasikume horiek aurkitzeko –harritu egin zen Telleria, komisarioa zuka mintzatzen hasi zitzaionean–. Esan gabe doa ez duzula lan hau onartu behar nahi ez baduzu. Sailburuaren zerbitzura zaude zuzenean eta zure erabakiak nireak baino indar handiagoa izanen du honezkero. Baina mesede bezala eskatzen dizut. Ezagutzen nauzu pixka bat. Ez nizuke eskatuko sua eta ura kokotsaren parean ez banitu.

– Ulertzen dut, saia gaitezke. Egia esan apur bat nekatuta nago alde batetik bestera ibiltzeaz. Ongi etorriko zait bolada bat hemen inguruan pasatzea ere. Opor gisa har nezake lan hau, ia.

Agian damutu egingo zen hura esan izanaz.

– Kristoren lauza kentzen didazu, Cesar. Bat eta koska zor dizut. Karpeta honetan Pasaia eta inguruetako lekuen zerrenda eta dosierrak dauzkazu. Ziur gaude han inguruan zerbait daukatena. Bermudetako Triangeluarena montaje bat da. Prentsari begira beste egun pare batez mantenduko dugu, baina honezkero badakigu handik ihes egin dutela. Bigarren komando baten bila gabiltza. Bi direla uste dugu. Agian hiru, bat fitxatu gabea.

Komisarioak kaxoitik argazki bakarra atera zuen, ordea. Emakumezko baten argazkia zen.

– Bigarrenaren argazkirik ez dizut erakutsiko. Ondotxo ezagutzen duzu Alargun Beltza. Zalantzaren bat?

– Dena nahiko garbi dagoela esango nuke.

– Zorte ona opatzea besterik ez zait geratzen, orduan. Zorretan nago zurekin, Cesar.

– Tira, ez zaitez inozoa izan. Non dago gure komisarioaren harrotasuna? Ondotxo dakizu ez nengokeela nagoen lekuan zugatik izan ez balitz.

Bi gizonek elkar besarkatu eta indar handiz estutu zituzten lau eskuak. Bilera gelatik atera zirenerako ez zen bulegoetan inor geratzen. Egoitza iluntasunean hondoratu zen, pasilloz pasillo, argi zerrenda guztiak bata bestearen segidan itzali zirenean. Hormako posterra, zuri-beltzezko hatz-marka erraldoia dibujaturik zuena, nabari zitekeen oraindik, hala ere, zigilatu berri zen itun baten lekuko isila bailitzan. Komisariatik atera ahala, kezka patetikoz kargatuegi ziruditen Roberto Goazaren begizuloetatik distira apur bat agertzen zela zirudien. Robertok lana ahantzi nahi zuen eta beste zerbaitez hitz egin. Eraikinaren atarira heldurik, ordea, erdizka bakarrik lortu zuen ofizioarekin loturarik gabeko gai bat proposatzea.

– Guardiako abokatuarekin hitz egin berri diat. Diana printzesaren auto istripuari buruzko txistea kontatu zidak. Entzun al duk?

Putakume bakoitzak bala bat merezi badu, hasiko al gara hemendik Moskurako trenbideak funditzen balak egiteko. Olatzen esaldietako bat zen hura, Martarekin oso haserretzen zenean botatzen ziona.

«Eta zer nahi dun, besoak antxumatu eta telebistari begira geratzea? Ados. Itzel, Olatz, itzel. Fundamentalismoa edo nahi duana. Baina denok zeukanagu. Hala deitu nahi badion hala deitu. Sinesten dinat denok gure barruan ume bat eta pailazo bat eta mozkor bat dugun bezala, faxista bat ere badugula. Eta nik onartzen dinat nire barruan dagoen faxismo ehuneko kopuru hori. Baina sinets iezadan, kontrolpean zeukanat. Baina haiena, haien faxismo koskorra askoz ere handiagoa dun, eta badakin? Daukatenik ez diten sekula aitortuko».

Olatzi batzuetan gogorra egiten zitzaion Martaren diskurtsoa. Goizean jaiki eta sukaldeko mahai gainean errebolber bat aurkitzea jasanezina zitzaion. Barruan denek ikaragarri errespetatzen zuten ordea, arrazoi askorengatik. Baina batez ere, bere iraganeko gertakizun bat zen aura berezia ematen ziona. 1987. urtean, artean

poliziak fitxatu ez zuelarik gertatutako zerbait zen. Saran egitekoa zen bilera batera bidea irekiz zihoan. Bere atzetik, bigarren autoan zuzendaritzako bi kide zihoazen beste gidari batekin. Garai hartan errepide kontrolak eguneroko legamia ziren eta aurretik zihoan autoaren ardura zen bidea garbi zegoela baieztatzea. Kontrolen bat balego, talkiz abisua emango zuen, zuhurtziazko distantzia batera zihoan bigarren autoak desbideratzeko adina denbora izango zuela.

Gauzak nahastu egin ziren ordea. Donostiatik atera bezain laster, berunezko jarri zen zerua eta inongo eguraldi iragarpenetan aurreikusirik ez zeuden elur maluta mardulak hasi ziren errepidera erortzen. Egundokoa zen behelainoa. Erabakirik zuhurrena bira eman eta Donostiara itzultzea zatekeen arren, talkiz aurrera jarraitzeko agindua jaso zuen, osterantzean, mesedea baino kaltea handiagoa izango zatekeela esanez. Errepideak izozterantz egin zuen berehala eta hagitz labainkor jarri ere bai. Horri guztiari behelainoa gaineratzen badiogu, zaila zen bi autoen artean mantendu beharreko distantziari bere horretan eustea. Gandua zaldi ferra baino itxiagoa zen eta

orduko hogeita hamar kilometroko abiadura ere ez zeramaten autoek Behobiara heltzerako. Auto eta kamioi guztiak errepide ertzean geraturik zeuden, eta telefono kabinen parean jende ilarak osatzen ziren, elurrezko tranpa hark eragindako atzerapenaren berri emateko. Haiena zen errepide guztia. Kamikazeena.

Mugara heldu aurretik, Endarlatsarako bidea hartu eta Beratik Ibardin mendatearen gailurrerantz abiatu ziren, astiro baino nekezago. Bera parera heltzerako argi eta garbi zegoen bidaia hura suizidio hutsa zela, baina Martak atzeko autoan erabaki zuhurtzibako hura hartu zutenen aurka biraoka zirauen arren, beranduegi zen atzera itzultzeko. Ibardingo gainera heldu eta han muga mendiz pasatzea zen asmoa. Katerik gabe eta argiak piztuta, doi-doi ikusten zuen Martak bere muturraren aurreko bi metroz haraindira. Horregatik, ezustean harrapatu zuen erabat abiadura gutxiarazteko adierazten zuen errepide seinalearen ondoren, poliziaren furgoneta bat ikusteak, betazaletaraino abrigaturiko lau guardia zibil armatuk altoa ematen ziotela, beragandik hamar bat metrora, argi-foku ikara-

garrien pean. Martak, bihotza eskuetan zuela sentituz, talkia hartu zuen saihets-apaletik. Ordea hitz bakar bat esan aurretik, atzerako ispiluan ikusi zuen, bere autoari ia itsatsia, kilometro bat atzerago behar zuen autoaren lorratza.

Izu laborri batean, azeleragailua sakatu eta Guardia Zibilaren kontrol seinaleen aurka zapatu zuen bere autoa. Autoa pendizetik behera amildu, bi kanpai buelta eman eta elurretan hankaz gora geratu zen. Bi guardia zibil zauriturik geratu ziren lurrean. Kontrola osatzen zuten beste lau polizietarik bi auto kolpaturantz abiatu ziren bota handiak elurretan neketsu sartuz eta beste biak zaurituei lehen laguntzak ematen geratu ziren. Anabasa haren erdian, inor ez zen ohartu atzetik zetorren autoaz. Auto honek, argiak itzali eta behelainoa eta nahasmena baliatuz, atzerantz jo, bira eman eta bidezidor batean barna ihes egitea lortu zuen. Martak astebete eman zuen koman. Zortzigarren egunean ordea, bere bizi erritmoa ustekabean zuzpertu zen eta handik egun gutxira ia osaturik zegoen. «Itxuraz, ez ninduten eraman nahi izan, ez Jainkoak eta ezta Deabruak ere» gustatzen zitzaion horrelakoak

esatea gaiaz mintzatzen zen aldi gutxitan. Miraria badirudi ere, Guardia Zibilak kasua artxibatu egin zuen, poliziek nozitutako kolpeak ere ez baitziren lehen unean ziruditen bezain larriak izan. Eguraldi narrasa zela medio kontrola galdu, laprast egin eta errepide kontrolaren aurka joan zen, hori zen bertsio ofiziala. Bere onera etorri zenean, ezertaz ez zela gogoratzen adierazi zien Martak medikuei.

Bigarren autoaren berri ez zen inongo txostenetan jaso.

Hala ere, oso gogorra egiten zitzaion batzuetan Martaren diskurtsoa, hori zen egia. Zeintzuk ziren haiek jendea hala epaitzeko? Bi emakume gazte, igaro ondoren bizitzako zatirik onena izendatu ohi den adinaren barruan biak. Bakarrik eta inorengan konfiantzarik izan ezin zezaketenak. Kopa batzuk hartu eta harreman arrunt bat hasi ezinean. Eta denbora bazihoan. Denbora beti doa, eta beti ekuazioko gainerako elementu guztien kontra. Okerrena zen igarotzen den denbora ez dela atzean geratzen, alboetan baizik. Gure bizitzako gertaera eta pertsona guztiak, atzean utzi izan uste ditugunak ere, hortxe

daude, gure etxeko hormetako argazkietan, kristalezko hilkutxa mehetan, edozein kale ertzen bestaldean. Eta guk ezin ditugu ukitu: ikus ditzakegu, baina ez geureganatu. Ez. Ezer ez da atzean uzten. Gauzak atzean uztea lortuko bagenu ez litzaizkiguke hain gogaikarriak suertatuko.

Marta footing egitera joana zen egun hartan eta errebolberra sukaldeko mahaian utzia zuen. Lehen aldiz, Olatzek eskuetan hartu zuen arma. Garbi zeukan ez zuela sekula inor tirokatuko. Hori ez. Ez zen gauza. Beste edozer egiteko prest zegoen baina ez zuen sekula errebolber bat erabiliko. Oso arina iruditu zitzaion arma. Errebolberra kargatu eta deskargatu egin zuen, Martari hainbat aldiz ikusi zion keinua imitatuz. Kargatu eta deskargatu. Azkenean, esatea gogorra bazen ere, Martak arrazoi zuen horretan. Engranaje baten aurka ari ziren borrokan, eta gertakizunek edozein norabide hartzen zutela ere, galtzeko prest egon behar zuten. Soken kontra zeudenak ziren haiek. Desordena baino, injustizia nahiago duen engranaje baten aurka ari ziren borrokan. Sistema bat ez da inoiz justua eta beti da desordenatua. Baina injustiziaren aurka ez

bezala, sistemak desordenaren aurka bakarrik borrokatzea hautatzen du. Hori da sistemaren hautua. Haiena, justiziaren pentzura eraikitako ordenaren kontrako borroka zen, Martak mila bider errepikatu izan zionez. Martari sekula aitortuko ez bazion ere, helburu hantuste samarra iruditzen zitzaion hori Olatzi. Olatz ez zen hori sinesteko bezain xaloa.

Errebolberra kargatu eta deskargatu egin zuen. Kargatu eta deskargatu, berriz. Gero esku ahurrean jarri eta pisatzeko keinua egin zuen. Pistolari begiratu zion, sakel-erloju bati begiratzen zaion eran. Arma bakoitzak ere ordua adierazten zuen, nolabait, norbaitentzat. Justizia, ordena, desordena, Gregor Samsa, neskafe poto hutsaren aurreko depresioaldiak. Eguneroko rutina, nazka. Pistolari begiratu zion, auskalo zertarako geratzen zitzaion denbora adierazten duen sakel-erloju bati begiratzen zaion eran. Eta gorrotatu egin zuen bere burua.

Ohitzen da bat horretara ere. Nork bere burua gorrotatzera. Norbaitek borrokatu behar du moketaren azpian itota dauzkatenen alde, hitz haiek oroitu zituen. Eta gero pentsatu zuen,

ziniko bat naiz. Une batez uste izan zuen kartzelan zuen Koldo anaia eta bere kideak, haiekin pasatako arratsaldeak eta hizketaldiak zirela bera egoera badaezpadako hartan egotearen arrazoi bakarra. Ez zuen sekula horretan pentsatu, baina agian hala zen. Horregatik hartu zituen hartutako erabakiak. Sentimendu haiengatik. Eta beharbada bazen beste zerbait gehiago ere. Beharbada bai eta beharbada ez.

Afektua. Zuk eta zure lagunek jasotako kolpeak. Bertsio ofizialen arabera suizidatu ondoren haginak galtzen dituen jendea, bertsio ofizialaren arabera bi tirorekin suizidatzen den jendea, bertsio ofizialaren arabera suizidatu ondoren zelaitik jaiki eta arrastorik ez uzteko asmoz pistola ibai baten hondora jaurti ahal izateko indarra biltzen duen jendea. Hildako sonanbuloz betetako lurraldean bizi bagina bezala. Maite duzun eta tarte ederrak pasarazi dizkizun jendearen sofrimendua eragin, mespretxatu eta sofrimendu horri barre egiten diotenak egotea jasan ezin duzulako. Zenbaitek etxeko muebleak leihotik botatzen dituzte amorruz, eta beste zenbaitek burdina puska bat hartu eta zerbait egin behar dela

sentitzen dute. Afektua, afektibitatea. Ez al dira arrazoi nahikoa. Melodia batzuk zeuden eta gure buruan norbaitek melodia horren teklak zapaltzen zituenean, zaila zen emaitzak saihestea. Ez al da aski. Ez al zaizu hala iruditzen, Olatz? Leihotik ikus zezakeen urrunean Martaren zilueta, berari hizketan ari balitz bezala, txatarra meta handien artetik lasterka. Martaren adibidea hartu zuen. Agian bazen beste zerbait, beren burua iraultzaile jotzen zuten guztiei historialariek konplazentzia eta zinikotasun hantustez leporatzen zieten injenuidade haren haraindira zihoan zerbait. Botere antsia ttiki eta konfesaezin bat izan zitekeen, arma eskuetan sentitzean edo granada bat jaurtitzean, une batez, nor bere patuaren, biktimaren eta kolektibitatearen jabe izatearen antsia. Konfesaezina, bazekien.

Martaren pausoa zuzen, irmo eta erabakiorra zen. Handik ikusita, argi zegoen ez zeukala borroka haren balioaz zalantza izpirik. Baina Martak ere, Olatzek bezala, bazuen bere itzala. Eta itzal bakoitzak du bere traidorea.

Koldo atxilotu zutenean ez zioten bere ezkerreko soslaiari argazkirik atera. Afrikar tribu haietako kideek zioten bezala egia bazen argazki makinak arimak lapurtzeko tresnak zirela, arima erdia salbu zeukan oraindik. Kartzelan zeukan ispilua ttikia zen eta pitzatua zegoen, bere arima bezalaxe.

Bere buruari galdetzen ziona zera zen: izango ote zen gai handik ateratzean aspaldiko ispilu ezagunetan bere aurpegiari aurrez aurre begiratzeko, zekien bezala jakinik, askoz azkarrago zahartzen dela bat egunero bere aurpegia oparitzen ez dioten ispilu haien baitan.

Zelda hartako hotza hezurretaraino kiribiltzen zen. Begiak hertsi eta hotzikaren erruz lo egin ezin zuenetan, bere burua ehiztari baten gisan irudikatzen zuen, egun osoa ehizan eman ondoren zebra bat akabatu eta sorbaldan dakarren ehiztariaren eran. Lurrean etzaten zen gero, irudimenezko zebra beroa tapaki hartuta, eta loak hartzen zuen Koldo.

Esna geratuko zen beti ere bere hezurdura, beste kartzela ttikiago bat baitzen hezurren

hura, barroteek osatu kartzela handiaren barruan.

«Dena izorratuko zaigu azkenean. Eta usteltzen denean, sinets iezadazu, usteltzen denean ez dago usain nardagarriagorik. Kiratsa kosta guztian zehar hedatuko da, haize apur bat dagoeneko».

Merkantzia ontzi hori ikaragarri handia zen. Pasaiako portuan *Amenofis II.*a ainguraturik zegoen azken bi asteetan. Karramarroa zekarren Egiptotik. Bi tona karramarro, Rotterdamgo portuan aspaldi egon behar zutenak. Kargaren zati hutsal bat Pasaian utzi eta depositoa fuelolioz betetzeko helburuz sartu ziren badiara, bokalea igaro bezain pronto otsoaren eztarrian behera labaintzen zirela susmatu gabe. Estibadoreen eta garabizaleen greba mugagabeak bete-be tean harrapatu zuen *Amenofis II*.a ontzia eta han geratu zen, irteteko baimenik gabe, ihesbiderik gabe, deskargatu beharrekoa ezin deskargatu eta ez gora eta ez behera. Egunkariak ontziko kapitainari egindako elkarrizketa bat zekarren egun hartan, erabat babesgabe sentitzen omen

zen, karramarroa iristen ez bazen lanik gabe geratuko zirela, usteldu egingo zela gainera merkantzia, ez zegoela eskubiderik. Argazki eta guzti zekarren erreportaiak: tripulazioko kideak besoak popako petril metalikoan antxumatuta agertzen ziren, aurpegi nekatuekin, argazkiaren zuri-beltzak berunezko egiten zuen zeruaren pean. «Hiru eguneko epean arazoa konpontzen ez bada karramarroa desizoztu eta hemengo maioristei merkezurrean saldu beharko diegu, Euskal Herrian bertan».

Harritzekoa zena zen langileen greba eta geldialdiak baliatuz Laranja Mekanikoa, Juan Perro eta beren kideek aspaldi hartan arnas arrastorik ez eman izana, beste negozioren batean balebiltza bezala.

Ez zuen denbora gehiegi behar izan maleta egiteko. Izan ere, erdizka bakarrik desegin baitzuen Lisboatik itzuli zenean. Whisky botila pare batez gain, ezer gutxi erantsi behar izan zion ekipajeari. Groseko bere etxetik atera aurretik, postontzian begiratu zuen: postal bat, eliza bateko horma, *Ni ez naiz sekula hemen izan eta igual*

igual bizi naiz zioen graffitia. Iritsi berria zen Lisboatik bere buruari bidali zion postala. Aspaldidanik zeukan ohitura zen hiri bat utzi aurretik bere buruari postal bat idazteko hura. Destoleste mota bat bezala ere uler zitekeen, ez baitzen sekula pertsona bera postala igortzen zuena eta jasotzen zuena. Pertsona bat ez da tenperatura, argi, egurats, presio eta egoera animikoaren nahasketa besterik, hein handi batean. Eta hiri bat uzten zuen uneko egoera animikoak Donostiara itzultzen zen uneko egoera animikoarekin zerikusirik ez zuenez, bi pertsona ezberdin balira bezala zen. Nor izan zen eta izan zen hura zein aldartetan bizi zen jakiteko era bat zen bere buruari idaztearen hura. Mudatzen goazen suge azalen oroigarri bat izateko era bat.

Postala irakurri zuen. Peora atariko ispiluan bere buruari begiratu eta gero eta zailagoa iruditu zitzaion kaiola hartatik ihes egitea. Bizitzako gertaerak eite simetrikoa hartzen hasten direnean, bat amaieratik gertuago dagoelako dateke.

Azkar gidatu zuen Grosetik Pasai Antxorako bidea, oraindik itzuli ez zuen alokairuzko auto

zurian, komisariakoei ordainarazteko alokairuaren faktura eskatu beharko zuela bere buruari gogoraraziz. Robertok kontatu zion txiste txar hura zerabilen buruan, azeleragailuari gehiago sakatzen zion ahala.

«Entzuik hau, txisteak izenburua eta guzti zeukak: Nazioarteko Gatazka. Guardiako abokatuak kontatu zidak. Gogoratuko duk noski, duela hilabete batzuk Galesko Diana printzesa eta bere amorante zen Dodi Al Fayed Parisen nola hil hituen Pont de l'Alma zubian, beren Mercedes autoari motorrez jarraitzen zioten paparazziengandik ihesi, hain justu. Ahor ba, sortzen den nazioarteko gatazka ez duk nolanahikoa, ez pentsa: nazioarteko zuzenbide pribatua bete-betean harrapatzen duen auzia duk. Nori zegokiok istripu honen ikerketa egitea? Herrialde ezberdinetako epaileak borrokan ari dituk auziaren eskuduntza haiena den ustean, eta denek ditek arrazoi, hein batean. Izan ere, Diana galestarra genuen. Bere amorantea, Al Fayed, egiptoarra. Atzetik zihoazkien paparazziak italiarrak dituk. Bizirik atera huen bizkartzaina ingelesa. Autoaren gidaria poloniarra. Autoa alemaniarra, baina

Suitzan lapurtua, eta istripua Frantzian gertatu huen. Nork, zein herrialdetako epaitegi madarikatuk izan lezake beraz auzi korapilatsu hau epaitzeko eskuduntza? Ez duk asmatzen? Amore ematen duk beraz, Telleria! Ba erantzuna garbia duk: Eskoziako epaitegiak, jakina. Zergatik Eskoziakoak, galdetzen didak? Gidariak edan zuen whiskya es-ko-zi-a-rra zelako, jakina!».

Gero eta txiste penagarriagoak kontatzen zituen. Roberto gizajoa, pentsatu zuen Cesarrek, eta kopilotuaren aulkian ezarria zuen maleta ukitu zuen esku batez, botilek bertan jarraitzen zutela ziurtatzeko. Jakina bertan jarraitzen zutela. Ez zegoen inolako arrazoirik Cutty Shark botila haiek han egon ez zitezen.

Pasaia, beraz. Gogo berezirik gabe igo zituen komisariakoek bereziki alokatu zioten apartamentu hartako eskailerak. Puskaz puska erortzen ari den etxe ziztrin bat. Argi dexente zuen, hori egia zen, azken solairua zen eta. Lisboako bidaiatik salbatu zuen fisonomiako liburu bakarra eta largabistak maletatik atera eta leiho ondoko mahaian paratu zituen. Ispilu handi bat zegoen leiho ondoan eta bertako markoan kateatu

zituen Veronica bezala ezagutzen zuen emakumearen artxiboko argazkia eta Lisboatik bere buruari bidalitako txartela, eta baita Veronica izeneko emakume hark Lisboako hoteleko kafetegian ahaztuta utzitako argazki desfokatu eta erditik hautsia ere. Cutty Shark botilak atera eta ohepean sartu zituen.

Leihoak parez pare ireki zituen, gela apur bat egurasteko. Hormako egutegiari so egin zion: abenduaren 14a zen. Astebeteko epea eman zizkion berari eta bere zorteari Alargun Beltza eta bere laguna edo lagunak aurkitzeko.

Gero, luze-luze etzan zen ohean eta etzanda egon arren besoa gehiegi behartu gabe ohepeko botilen beira hotza hatz puntekin ukitzera ailega zitekeela baieztatu zuenean, loak hartu zuen.

Telebista piztu zuten. Rock kontzertu bat ematen ari ziren. Pataki besaulkian zegoen, asperdura aurpegiarekin eta erdi lo, lepoa atzerantz botata, erabat jarrera lasaian. Martak ostera, giharrak tentsio batean zituen ondoko sofan eserita. Eserita, zerbait esatearren, eserlekuaren ertzean ipurdia baitzen minimoki bermaturik zuen baka-

rra. Ukalondoak belaunetan zituen eta zigarroa, ohi zuen bezala, lau hatzekin heltzen zuen. Telebistatik gertu zeukan aurpegia, erdi hipnotizatuta begiak.

– Oilo zirin hori gustatzen al zain?

– Itzelak direla esango nikek, ez zekiat.

– Zuriak ditun gauza onerako.

– Itzel! Zer diok? Zuriak direla? Egunetik egunera gehiago harritzen nauk, txo. Hi non jaio haiz, Pataki? Kongo aldean?

– Marta, uler ezan hau: jakin badaiteke, ze berrikuntza sartu diten hire ustez zuriek musikaren azken ehun urteotako historian? Plajiatu, dezibelioak erantsi, bolumena igo eta musikaren magia eta ralenti guztia azeleratu. Besterik ez diten egin.

– Eta orduan ze musika gustatzen zaik hiri, soldadu?

– Bluesa. Horrekin nahikoa zeukanat. Azken hogei urteotan apenas grabatu diten disko txukunen bat.

– Tira, Pataki, hi bai haizela fundamentalista. Esaten duan hori itzela iruditzen zaidak! Zer nahi

duk esatea... niri adibidez, flamenkoa gustatzen zaidak bluesa baino gehiago.

– Tira, hor amore ematen dinat. Niri ere gustatzen zaidan. Camaron ikaragarria huen.

– Eta ez huen beltza...

– Ezta zuria ere. Beltza huen hura ere, arimaz.

– Hara, itzel! Beltza arimaz! Izorratu beharra zegon! Ijitoak ere salbatzen dituk orduan hire diskriminazio positibo horretan. Ikusita al daukak *The Commitments*? Irlandarrak Europako beltzak omen dituk han aipatzen dutenez... Gu ere beltzak izango gaituk, ala?

– Jakina. Nongoak dira euskal beltzak, Pasaiakoak ez badira?

– Bai zera. Badakik zer garen, Pataki? Bele zuriak. Bele zuri madarikatu batzuk gaituk gu.

Marta zigarroari geratzen zitzaion labezomorro ttipia metalezko hautsontzian sakatu eta poxpolo batekin zigarro berri bat piztera abiatu zen. Poxpoloa itzali egin zitzaion ordea, eta Patakik, bereetako bat piztu eta sua erantsi zion Martaren zigarro berriari, gero berea ere piztuz.

– Ba al dakin Josephine Bakerrek zer esan zinan behin?

– Ez zekiat tipa zein zuan ere, baina sumatzen diat nondik nora habilen... Osaba Tomen etxolako sukaldaria zuan gutxienez, seguru, izen horrekin. Martiri itzelaren itxura guztia zeukak.

– Hoa pikutara. Josephine Baker hogeiko hamarkadako dantzari beltz moderno zoragarrienetakoa huen, jakin behar huke.

– Tamalez ez gaituk denok hi bezain eruditoak. Zer esan zian ba Joxefina horrek, jakin badaiteke, soldadu?

– Zera esan zinan: mundua belzten ari da gero eta gehiago, eta belztuko dena oraindik. Hemendik urte batzuetara, dena egongo da hain iluna ezen, poxpolo bat pizten dugunean bigarren bat piztu beharko baitugu berehala, lehenengoa itzali ote den jakiteko.

– Ba itzel. Errepikatuko al hidake, faborez? Lehen poxpoloan galdu nauk.

Patakik etsipen keinu bat egin eta Martari zigarroa piztu zionetik galdua zuen jarrera erlaxatura itzuli zen. Orduan sartu zen Olatz sukaldetik. Normalean Pataki zen otorduez arduratzen

zena, baina egun hartan Olatz liluratuta eta gogotsu etorri zen azokatik, berak egingo zuela egun hartakoagatik. Kazola handi batean bloke zuri batzuk zekartzan, azal laranja fin bat zutenak.

– Ze demontre dun hau?

– Itxura ona din, ezta? Karramarroa dun. Ainguratuta dagoen ontzi horia oroitzen? *Moro* batzuk ari ditun portuan dohainik banatzen, protesta gisara edo.

– Aizak, Pataki, galdera bat. Moroek ere bluesa jotzen al ditek?

Martak eta Patakik konplizitate keinu batekin begiratu zioten elkarri, eta Patakik «hirekin ez zegon hitz egiterik» esan nahi zuen keinua egin zion, abegikor. Bazirudien inork ez zuela ezer esateko asmorik, adiskidetasun giro hura dastatzen ari zirela nor bere erara, Martak eta Olatzek aldi berean sardexka kazolan sartu eta puska berdina hautatu zuten arte.

– Eskua zurekin batera platerera sartzen duenak traizionatuko zaitu.

Olatzek irribarre egin zuen Martaren ateraldiaren aurrean. Baina bai bera eta bai Pataki isi-

lik geratu ziren gai deseroso hari berriro heltzeko beldurrez. Erraz zapuzten zen giroa azken aldian haien artean. Marta errudun sentitu zen agian, bera izan baitzen berriro ere isiltasuna hautsi zuena, egurats nahastu hartako airean zebilen mamua konjuratu eta uxatu nahiko balu bezala.

– Karramarroa, joder. Itzel, karramarroa.

Oraingoan irribarre ahul bat egin zuten hirurek.

Cesar Telleria nerbioetatik joaten ari zen. Aspaldiko garaietan ez bezala, urduri zegoen eta ez zuen nahi ordurako loak hartzen. Antzina mozorrotuta kalera ateraz hautsi ohi zuen bere lanaren monotonia eta estresa gainditzea lortzen zuen era horretan. Emakumez mozorrotzea gustatzen zitzaion gehien eta gizaseme itsuz ere bai: gauza bere buruari ere nor zena ahaztaraztea zen, bera zen fisonomista zorrotzari iruzur egin eta hark ez identifikatzea lortzea. Arraro samarra zirudien, bai, berak ere bazekien hori, eta ez zion bere perbertsio ttiki horren berri inori eman. Parisen eman zuen boladan ikaragarri go-

zatu zuen itsu-makila hartuta metroan, bagoiz bagoi, itsu eskalearena eginez. Aspaldian ez zuen ordea mozorrotzeko tentazio eta beharrik izan. Bere buruaz kezkatu ere egin zen behin, mozorrotzeko grina eta zaletasuna norbaiti aitortu zion aldi bakarrean, urteroko errebisioa egiten zien laneko psikologoak gaiaren inguruan egin zion galdeketa susmagarria zela eta. Eskizofrenian erortzeko arriskua ikusi zuela eta profesional bat bisitatu eta bere burua terapia bidean jartzea aholkatu ez zion bada, lerdejario hark.

Geroztik asuntoari buruz inorekin ez hitz egitea erabaki zuen. Erlaxatu eta bere burua mozorrotzeko premia eta sentimendurik ez zuen hala ere, aspaldian sentitu, hori zen egia. Pasaiara heldu zenetik ordea, bestelakoak ziren gauzak. Noraezean eta deseroso, lekuz kanpo sentitzen zen. Hegazkin bat hartu eta inori deus esan gabe mapatik hanka egingo balu zer gertatuko litzatekeen galdetzen zion bere buruari.

Deus ere ez, lepoa jokatuko zukeen.

Ohera sartu, kizkurtu, eta gustura desagertuko zatekeen mundutik bederatzi bat hilabetez.

Bakardadean bigarren haurdunaldi bat ospatu, zilarrezko ezteiak ospatzen dituenak bezala.

Baina munduak ez zion uzten.

Olatz joana zen eta Pataki sukaldean zegoen. Marta, isilik sartu zen sukaldera. Leihoko errezelari eutsiz zeharka kalera begira zegoen Pataki: leiho hark Louvren zintzilikatutako Mona Lisak baino arreta gehiago jasotzen zuen egunean zehar, hori ez zegoen dudan jartzerik. Zintzilikatu baino areago pasilloetan *urkatzen* diren argazki horietako baten barruan biziko balira bezala zen: leiho hura zen argazkia estaltzen zuen kristala. Martak ustekabean harrapatu zuen Pataki eskua sorbaldan jarri zionean. Pataki, harrituta, biratu egin zen. Neskak lepotik oratu eta muxu eman zion ezpainetan. Patakik gerritik heldu eta beragana bultzatu zuen norbaitek heldua izateko zirudien gerri hura. Neskak, elkarren galtza estuen pean tupustean harrotu eta zutitzen zen anabasaren zirrara sentitu zuen bere hankartearen kontra. Sukaldeko plakaren ertzean eseri zen Marta, jada alkandorarik gabe, bular tente eta mamitsuak agerian. Nahiago dut

zu azpian jartzea. Pataki zegoen orain sukaldeko suen gainean erdi eserita, eta ez zen pentsa zitekeen bezain deserosoa ere. Olatz etor daiteke, isilik. Eskumutur biak heldu zizkion samurki Martak Patakiri, oheburuan izara hautsi batekin eskulotzera balihoa bezala. Baina ez zeuden ohean. Olatz etor daiteke, kontuz. Martak agintzen zuen. Azken batean, bera zegoen kargura. Izterren erdialderaino beheratu zizkion galtzak. Zakil tentea hatz puntaz bilatu zuen Martak, begiak ireki beharrik izan gabe ondo oratuz, harik eta hatzez nahikoa gogortua zegoela baieztatu ondoren aluan barneratu zuen arte. Mutilaren eskumuturrak, pultsua hartzen ari balitz bezala, hatz finez laztantzen hasi eta fermuki helduko zizkion gero, gerria akonpasatuki dantzatzen jarraitzen zuen bitartean, mutilaren besoak erabat mugiezin eta Martaren menera. Martak ez zuen lurra oinekin ukitzen, Patakiren hanketan gora, huntza bezala, kateatuta baitzituen bereak. Oin biluzietako behatzetan ere bazegoen plazerra azal eta hatz-oskol leunen kontaktutik hasita. Mutilaren esku biak sukaldeko bi suen baitara bildu zituen Martak, titietan gehiago nahi ez

zuela adieraziz. Artean, sukaldeko plakako bi suak estutzen zituen mutilak bere hatzez. Bi suak estutzen zituen gerri dantza zoroan Martak sua piztu zuenean. Eskumuturretatik sendoki helduta mantendu zituen Martak mutilaren esku biak sukaldeko plakako su-txikietan erretzen, hau oihuka hasi zen arren. Marta plazerraren menera zegoen erabat eta ezin zuen askatu mutilaren eskumuturrik, ezin zuen saihestu, gas sutuaren sugar urdinari atxikiak, erretzen ari ziren mutilaren hatz mamien bilakaera mingarria. Esku bat esku bat da, azken buruan.

Pataki negarrez geratu zen, harraskako ur hotzetan hatz punta erreak jarrita, biluzik eta babesik gabe, sukaldearen erdian. Sentitzen dut Pataki, hobe da horrela, aztarnarik ez uzteko aurrerantzean, egin beharra neukan, ikusezina izanen zara aurrerantzean. Neskak arropak jantzi zituen eta lepo atzea laztandu zion negarrez ari zen mutil biluziari, emaro, ama krudel batek bezala.

Iluntasuna erabatekoa zen Pataki, izerdi patsetan, jauzi batez amesgaiztotik esnatu zenean. Hatz puntei so egin eta erreta ez zeudela baiez-

tatu zuen. Begiak itxi eta hauspoa hustu zuen, biriketan arindura eskerga hartuz. Agian lokamuts hark zerbait esan nahi zuen, ez zuela Martaz fidatu behar. Txorakeriak. Nekatuta zegoen eta minutu batzuez etzanda jarraitzea erabaki zuen. Berriro ohean eseri eta argia piztu zuen. Esku ahurra ireki zuenean, lehenago ez zeuden zenbait marra zimur zituela iruditu zitzaion. Begitazio bat besterik ez zen, jakina.

Radiadoreko barillak zenbatu eta radiadoreko barillen arteko hutsuneak zenbatu. Gaua horrela pasa, hormako estanpatuetako lerro urdinak zenbatuz, leihotik N-1 errepidean zehar zihoazen autoen fluorezko sega sentituz, gela argitu eta kolpe batez segak barreiatu zuen argi guztia ostera ere bildu eta erraztatzen, gero eta maiztasun txikiagoarekin, harik eta fluorezko sega horiek zure bihotz-taupaden erritmora egokitu eta sehaska kantaren kadentziaz loarazten zintuzten arte. Goizean errezelen astindu arinarekin eta auto eta zomorroen zarata astunarekin esnatu. Kafea ez oso beltza eta jatekorik ez. Aurpegia freskatu zure aurretik beste norbaitek erabili

zuen konketazulo hezean. Ile luzeak konketaren hondoan korapilatuta. Bizilagun batek *Singing in the rain* txistukatzen zuen dutxatzen zen bitartean, paretak kartoizkoak ziren.

Irratia jarri eta isilik jarraitu zuen Olatzek sukalderantz. Marta hankak gurutzatuta zegoen mahaian eserita, egunkariak irakurtzen. Olatz Martaren ondoan eseri zen egunkariak irakurtzeko ahalegina eginez, baina ezin zuen, ez zuen sekula ezer interesgarria aurkitzen paper multzo haietan. Norentzat egiten zituzten egunkariak? Norbaitek irakurtzen al zituen? Astelehena zen, jendea lokartuta ibiliko zen kalean zehar. Periodikoen azpian zegoen errepide komarkalen mapa, errotuladore gorriz seinalatua eta puntutik puntura heltzeko behar zen minutu kopurua anotatua: UGLDTX bidegurutzea, eta gero lerro zuzen bat, Oiartzun izan arren O soil batez izendatzen zuten herriko kaleak.

Baina ez ziren Oiartzungo paperak egun hartan harraskan alkoholaz erre behar zituztenak. Ekintza atzeratu egin zuten eta Donostiakoa zen hurrengo kolpea. Espaloiaren gogorra korrika ihesi zoazenean, eta halere grabitate ezaren mo-

duko zerbait sentituko zuen buruan Martak ziur aski, azken aldian bezala. Auto aldaketa non, galdetu zuen, eta hizki larriz Pataki adierazi nahian PTKI idatzirik zegoen Mirakruz inguruko mapako puntuari so geratu zen. Errezela apartatu zuen. Leihoko argi horiaren bestaldean trailer bat zihoan pisutsu eta nekez.

Astelehena zen. Goizeko zazpiak eta hiru minutu. Izozkailuaren gaineko frutontzi zumezkoan laranja bat zegoen eta iratzargailu bat ere bai laranjaren ondoan. Laranja mekanikoa. Non ibiliko ote zen zakur zahar hura? Marta beste zerbaitetan pentsatzen saiatu zen. Ahalik eta argalen egoteko heroina hartzen duten modeloen gisakoa, *Heroine sick* modakoa zela Olatzen aurpegia otu zitzaion orduan Martari, bezperan irakurritako artikulu bat gogoan. Zigarroaren kea errezelaren diagonala jarraituz. Zutik zegoen Marta. Ohe desegin baten irudia zegoen bere buruan. Estore hautsi baten dardara zarata. Aspaldi ez zeukan Martak zigarro bat bakean erretzeko zortea, Olatz mimetiko hura etengabe ari baitzitzaion atzetik bere erretzeko azturak ere imitatzen. Lau hatzekin eta eztulka. Bere atzetik

itzaltzen zituen gero zigarro guztiak, hautsontzi berean. Jasanezina zitzaion batzuetan. Baina bere etxean zegoen, zer esan ziezaiokeen.

Ohea egin beharko lukeen ala ez pentsatu arren ez zuen ezer esan. Martak zuri-beltzezko argazki bat sustengatzen zuen eskuen artean, gero bitan tolestu eta harraskara bota zuen: paper multzo handi bat zegoen han, Donostia, Mirakruz eta Herrera inguruko eskuz egindako mapak barne. Litro erdiko alkohol botila bat argazki eta paperen gainera hustu, poxpolo bat piztu eta harraskara bota zuen Martak: sugarren artean, bazirudien poxpolo hark infernu hartara erortzear zela zera adierazi nahi zukeela, norberaren etxea bezalakorik ez dago, edo azkenik etxean, edo irratiko ahots zimurtuak zioen bezala, sweet home, sweet home, Louisiana. Marta eta Olatz suari begira egon ziren, erabat itzali zen arte, erritu baten parte balitz bezala. Marta leiho ondora hurbildu zen. Autorantz joateko garaia zen. Baina oraingoan ez zen errebolberra sukaldeko mahai gainean geratuko.

– Kakazaharra. Hauxe bakarrik falta zitzaigun.

Olatz, zutik edaten ari zen kafesnearen katilua mahai gainean utzi eta leihora inguratu zen.

Elur bustia ari zuen. Kafeak ez zeukan azukrerik, hala ere.

Pataki tematu egin zen, berak egingo zuela. Olatz apur bat harritu egin zen Martak hain erraz etsi zuenean. Agian oraindik ere satorrarena bueltaka zuen buruan eta haiek frogan jartzen ari zen, pentsatu zuen kezkati Olatzek, horrek beretzat ekar zitzakeen arriskuez ohartuta.

Autoa bigarren ilaran aparkaturik zegoen, Olatz barruan zuela. Marta Pataki babestera joana zen. Kalkulatutakoa baino denbora gehiago pasatzen ari ziren eta Olatz etengabe ari zen atzerako ispiluan begira, noiz azalduko ote ziren. Eternitatea pasa zen bere begien aurretik auto kamuflatu baten itxura zuen Ford Mondeo beltz batean hezurmamitua, azkenean Marta ispiluan korrika ikusi zuen arte. Pataki metro batzuk atzerago zetorren, nahikoa zurbil. Marta kopilotuarenean eseri zen. Autoaren lehen aharrausiarekin batera, atea ireki eta atzeko eserlekuan etzan zen Pataki. Azeleragailuari sakatu zion Olatzek.

«Goazen hemendik, baita infernura bada ere!» amorruzko bat atera zen Patakiren ahotik. Lepotik gorako gorritasun hiraz betetako batekin esan zituen Patakik azken hitzak, eta Olatz ikaratu egin zen apur bat, aulkien artetik Patakiren aurpegia ikusi zuenean, autoko moketaren kontra etzanik ia. «Zer gertatu da?» galdetu zuen Olatzek orduan eta «Enkaskillatu egin zaidan pistola. Eskerrak Martaren babesari» erantzun zuen Patakik, lehen tiroak atzeko kristala zulatu zuen une berean. Prestaketarako erabili zituzten mapa eta planoetan auto aldaketa egitea aurreikusten zuten puntutik hurbil zeuden Poliziaren patruila autoa atzetik zutela. Patakik, kontu handiz ireki zuen leihoa, eta bigarren tiroak autoaren karrozeria urratzen zuen une berean, gerri jiradizo zalu batez sorbalda leihotik atera eta hiru tiro egin zituen patruila autoaren aurka. Autoaren gurpiletako batean asmatu zuen itxuraz eta patruila autoa, Mirakruz igoera hasi aurretiko bidegurutzean trabeska geratu zen, saihetseko petrila jo ondoren.

Bi neskak harrituta geratu ziren Patakiren hoztasunaz eta tiro egiteko izan zuen zehaztasunaz. Oraingoan ez zitzaion enkaskillatu.

Martaren gela iluna eta ttikia zen. Gelako atean fotokopia horitu bat zegoen, horma askotan zintzilik egon eta behin eta berriro erauzia izanaren itxura zuena, zelo pusketa batez itsatsia. Etxez etxe joan arren gordetzea gustatzen zaigun zerbait. Klaus Kinskiren hitz batzuk ageri ziren egunkari txatalean: «Bai, nire baitan biolentzia dago, baina ez da negatiboa. Tigre batek bere domadorea txikitzen duenean, tigre hori biolentoa dela esaten da eta bala bat sartzen zaio buruan. Nire bortxakeria izaki librearena da, bere burua mendean utzi nahi ez duenarena. Bizitza biolentoa da. Jaiotza prozesu biolentoa da. Ekaitza edo lurrikara, naturaren mugimendu biolentoak dira. Nire bortxa bizitzaren bortxa da. Ez da naturari aurka egiten dion biolentzia bat, ez da zuen seme-alabak hiltegira bidali, zuen garunak kirtendu eta zuen arimak exorzizatzen dituen Estatuarena bezalakoa».

Pataki heldu zenetik beretzat hartu zuen Martaren gelako gaumahaitxoan Buenaventura Durruti anarkistaren bizitzari buruzko liburu bat ere bazegoen, pasarte batzuk azpimarratuak zituena. Zaila zen jakiten Marta bera izan ote zen azpimarratuak egin zituena. Agian bai eta agian ez.

Lehen azpimarra arkatzez eginda zegoen: «Bartzelonan borroka teilatutik teilaturakoa zen. Durruti lasai antzean ibiltzen zen, baina ia tirokatu zuen behin frankotiradore batek. Bat-batean ordea, emakume batek gidatutako auto beltz bat azaldu eta Durrutik lurrera bota behar izan zuen bere burua. Zorte hutsa da azkenean bizirik mantentzen gaituena. Auto beltz hark bizia salbatu zion Durrutiri. Ateetan hainbat bala zulo zituela, etorritako bide beretik desagertu zen emakumeak gidatutako auto beltza, Durrutik bere mahoizko praketako hautsa astintzeko beta hartu aurretik».

Azpimarratutako beste pasarteetako bat hau zen: «Durrutik bere sektoreaz arduratu behar zuen, bere armadako kideak euritik babestu behar zituen, batez ere. Nik, zera esan nion, txantxetan: «Azukrezkoak al dira zure solda-

duak, akaso?». Berak lehor erantzun zidan: «Bai, azukrezkoak dira, urarekin disolbatu egiten dira. Ziren bikote bakoitzeko bakarra geratzen da. Alferrik galtzen ari dira hemen, Madrilen». Hauek izan ziren bere azken hitzak. Umore txarrean zegoen».

Beste hainbat pasarte deigarri ere azpimarratuta zeuden: «Bere ekipajean segidan aipatzen diren norbere-gauzak aurkitu ziren: muda baterako barruko arropa, bi pistola, prismatiko batzuk eta eguzkitako betaurrekoak. Horixe zen bere inbentario guztia».

Liburu bat azpimarratzen denean liburu horrek bizia hartzen du. Ezkutuko egunkariaren antzeko zerbait bihurtzen da, oso pertsonala, guri buruz mintzo dena. Gertatu zaigun guztia eta desiratu arren ausardia faltaz egin ez dugun guztia, dena dago hor. Bidali ez genituen gutun guztiak eta gure buruari beteko ez genituela jakin arren izunak zirenik aitortu gabe egindako promesa guztiak daude azpimarra horien baitan. Gainera, azpimarra bakoitzak hainbeste indar har dezake, non eragina izan bailezake etortzear dauden gertakizunetan, gure bizitzan eta liburu hori au-

rrerantzean eskuratu eta irakurtzen duten haien bizitzen baitan. Eta du. Beti du eragina.

«Idatzita zegoen», esan ohi dugu zerbait gertatuko zen segurtasun erabatekoa genuenean. Eta halaxe da. Baina patua ez da ihesezinezkoa, azpimarratzeko aukera guri emana izan zaigunetik. Mapa batean hiriz hiriko traiektoria marraztuko bagenu bezala. Liburu bat azpimarratzen ari garenean, nahi gabe, gure esku ahurrean dibujaturik dauden iragan eta etorkizun posible guztiak ere ari gara iragaten arkatzaren muturraz.

Abenduak 19. Aste hura lasai antzean zihoan. Egunkariak jada azken gertakizunak ahazten hasiak ziren, eta komisarioa ere bai, egia esatera. Ez zegoen zauri berari eta hilobi berari begira egun guztia pasatzerik, hor kanpoan, norbait dagoeneko hilobi berri bat zulatzen egon zitekeela pentsatu behar zen. Nork bere burua ez jasan izateko rutina zoragarri horri eutsi eta gero eta hobeto egin lan hori. Nork bere burua ez jasatearen lana, alegia. Komisarioa La Rosa letra gorriz

idatzirik zuen katiluko neska biluziari ferekan ari zela harrapatu zuen Alainek, bere laguntzaileak.

– Norbaitekin hitz egin nahiko lukeen emakume kaskagor bat dago hemen. Zakur borrokak salatu dituen atso demonio horietako bat.

KGBkoak horretarako zeuden ba, atso demonioei elkarrizketa emateko. Komisarioak etsipen keinua egin zuen, sartzen uzteko. Lehen hitzak entzun aurretik osatu zuen emakume haren soslaia: berrogei eta koska zituen emakumea, ezkongabe edo alargun bakartia, hitzordu itsuetan bere bizitzako gizonezkoa aurkitzeko esperantza oraindik galdu ez zuen horietakoa. Parkeetan beste zakurren jabeak ezagutzeko asmoz erosiko zuen berea. Zakurra berekin zekarren.

– Saiatu naiz adierazten ez dagoela baimendua piztiak hona sartzea, jauna.

– Nire Sokrates piztia? Piztia deitzen diozu? Zuek bai piztiak, zuek! Hirugarren aldia da hona etortzen naizena eta azken aldian baino kasu gehixeago egingo ahal didazue gaurkoan... Ikusten al duzu zelako hozkadak dituen? Hemen, eta hemen, eta hemen. Ikusten? Ez dira hauek erori-ko baten ondorio, ez horixe, hozkadak dira, hoz-

kadak! Hiltzear egon da Sokrates gizagaixoa. Orain salbu dago zorionez, baina oraindik arazorik izan lezake.

Sokrates beraz. Ongi hasi ziren. Komisarioak zakurrari begiratu zion. Gaiztotutako zauriak zeuzkan belarri, aurpegi eta lepo inguruan. Hankak ere hozkadaz beteak zituen. Filosofoaren kontra konplot bat zen tartean, itxura guztien arabera.

– Salaketaren bat jarri duzu?

Alain aurreratu zen oraingoan.

– Hemen dago andrearen txostena, jauna.

Komisarioak orrialde single hura hartu eta bere kabutan irakurri zuen: Billabonako irteeran aurkitu zuten, errepide ertzean eta egoera tamalgarri batean, «boxeolari profesional batek bost egunez entrenamenduetarako zaku bezala baliatu izan bailuen, bere jabeak azaltzen duenez».

Zakurrari begiratu zion eta gero jabeari. Egia zen. Denborarekin jabeek beren zakurren antza hartzen dute, edo alderantziz, igualtsu da.

– Ondotxo dakizue borroka horien berri. Ez al da zerbait egiteko garaia? Ez naiz bakarra, zakur

asko desagertu dira azken boladan, Sokrates bezalaxe, sparring bezala erabiltzen dituzte.

Sparring, hitz horrek ez zuen ongiegi ematen komisarioak egin zuen emakume haren soslaiarekin. Txostenean esaten zuena kontuan hartuz, «boxeolari profesional batek lau egunez entrenamenduetarako zaku bezala erabili izan bailuen», boxeoaren munduarekiko bigarren erreferentzia zen. Agian bi aste lehenago zita itsu haietako batean grebara jo zuten Pasaiako portuko estibadore batekin ligatu zuen eta horrelako hitzen bat kutsatu zion. Gertatzen dira horrelakoak, espresio ikasiak geratzen dira, baita kutsatu dizkigun jendeak gure bizitzan garrantzirik izan ez duenean ere, edota aspaldi alde egin izan arren pertsona horrek gure bizitzatik.

– Saiatu izan gara zerbait egiten, andrea, ez pentsa gaia serioski hartzen ez dugunik, baina, errespetu guztiarekin, ez da hain sinplea... Borrokak ez dituzte beti leku berean egiten, eta eginda ere, ez da erraza frogak lortu eta epaiketa batean hori guztia argi eta garbi...

Tupustean, Robertok gelaren bestaldean Alainek telefonoa hartzen zuela ikusi zuen. Bule-

goko lanari guztiek idazmakinetatik eskuak altxatu zituzten eta Alainen aurpegi espresiogabeari begira geratu ziren. Komisarioak ere begirada altxatu zuen emakumearen sorbaldaren gainetik, eta emakumearen hitz-jarioari arreta jartzeari utzi zion, bere ezpainetan oraindik kexu hitzak ikus zitzakeen arren, entzun beharrik izan gabe. Komisarioak, erdi zorabiaturik, zakurrari begiratu zion eta bere begiradan zerbait oso humanoa eta lasaigarria ikusi uste izan zuen, Alainen hitzak entzun aurretik.

– Tiroketa bat Egian. Oraingoz ez dakigu besterik.

Alain eta beste bi gizon, beren jakak hartu eta kalera abiatu ziren, ziztu bizian. Komisarioak buelta eman zion bere aulki biragarriari eta leihotik begira jarri zen.

– Goazen Sokrates, hemen alferrik gaude eta.

Handik minutu gutxira, bere mahaiko telefonoak jo zuen. Bat zen hildakoa, eta iheslarien pista Mirakruz gainean galdu zuten. Bi omen ziren tirokatzaileak eta batek huts egin ondoren bigarren laguntzaile batek egin omen zituen tiroak. Iheslarietako bat zaurituta ote zihoan. Behar-

bada bai eta beharbada ez. Telefonoa eskegi eta txaketa hartu zuen pertxerotik. Bulegoan geldi-tzen zirenak agurtu gabe atera zen.

Bele

Cría ojos y te sacarán los cuervos.
Pepe Altair

Piztu argia eta ireki begiak. Baina ez eskuarki irekitzen dituzun bezala, ireki begiak gehiago. Gehiago. Ireki begiak betileak desagertu arte. Orain sentitzen dituzu begiak, pisutsu eta borobil, masailen gainean egundokoak dira, billarreko bi bola izugarri handi eta begirale. Zelatari, norantza eta norabide anitzeko. Adi egonez gero, begi horiekin edozer ikus dezakezu. Angelu zabaleko argazki kamera batek bezala, arrainbegiko lentea duen kamera batek bezala. Edozer ikus dezakezu eta erradiografiatu. Baita hormaz bestaldean dagoena ere.

Ikus dezakezu bala bat buru batean sartzen arrangura eta erresuminik gabe eta ikus dezakezu argi eta garbi, komikietakoa dirudien ekintzen sekuentzia geldoan, hil berri den horren heriotza ekibokazio bat izan dela, oraindik zergatik ez jakin arren. Ikus dezakezu gorpua nola erretiratzen duten eta ikus dezakezu odolaren gainean

zerrautsa edo ogirina botatzen dutela, ikus ditzakezu katuari sakatzearen ondorioz pertsona, izaki, giza-emazteki, organismo bizidun haien guztien baitan gaitzak eta birusak zelulekin pokerrera ari ziren bitartean, zerbaiti, mekanismo fatal bati eragin diozula. Ia erabat patuaren mende zeuden hainbat bizitza eztanda egitear egon zitezkeen telefono dei baten ondoren, eta haiek ez zekiten ezer, ezta arrastorik ere. Usaindu ere ezin zuten egin. Odola. Zerrautsa. Ogirina.

Zerraldo datza Hildako Ekibokatua. Eta ikusten duzu norbait egunkariko txatalak ebakitzen hurrengo egunean, Hilketa Bat, Bakarrik edo Hirugarrenen Laguntzarekin, zehaztu gabe, eta ikusten duzu eskelako eta eztei eguneko Hildako Ekibokatua irribarretsu eta Hildako Ekibokatua fruta saltzen soldata hala-moduzko baten truke, eta Hildako Ekibokatua behin batez Camaronen kasetea autoko irratian jarrita zeramala eta zuri ere gustatzen zaizu Camaron eta zeini ez eta orduan definitiboki dakizu Hildako Ekibokatua dela hura.

Camaron gustatzen zitzaiolako. Gauzak hain sinpleak izan daitezke, batzuetan.

Odol putzuaren itzal laburra, zerrautsa, ogirina, kale hutsak. Guztiari begiratzen dion belea. Bele asko. Gehiago.

Bele guztiek alde egiten dute eta bakarra geratzen da orain. Beleak irekita ditu begiak. Hildakoaren aurpegia hartu du beleak. Zerrautsez eta ogirinez estalita dagoen hildakoaren aurpegiari jotzen dio haizeak eta haizeak agerian uzten duenean zurea da hildakoaren aurpegia. Nahiago zenuen bele izan, zeure burua justifikatzeko. Baina oraingoz hildakoa zara. Hurrengo batean izanen zara bele agian.

Zu, orain hildakoa zaren hori, altxa egin zara. Eta beleari so egin diozu. Beleak Camaronen aurpegia bereganatu du bat-batean eta never more Hildako Ekibokatuarena. Never more, never more. Ez zaizue buruan sartzen. Terrorista bat naiz eta Camaron gustatzen zait. Hain zaila da ulertzen?

Zerbait egin diozue norbaiten bihotzari. Eta ematen du putzu ilun batean hondoratutako igande arratsalde goibel bat dela.

Belea hartu duzu esku artean eta errai apurtu bat dela ohartu zara. Zure bularraren erdian hegoak zabaldu ditu barruan bizi zaizun bele beltzak.

Ez, belea ez da azukrezkoa.

Patakik Martaren gelako irratia piztu zuen ohetik atera gabe. Bezperako atentatuaz eta ihesaz ari ziren. *Terroristas sanguinarios*, hura zen gehien gustatzen zitzaiena. *Terrorista* eta *sanguinario*. Komunikabideek maskara bikoitzaren estrategia erabiltzen zuten: bi maskara ezartzen zizkioten ustezko gaizkileari eta ezinezkoa suertatzen zitzaion honi biak kentzea, lehenengoa kendu orduko bigarren azalaren gisan jarria zuen bigarren maskara agertzen baitzen; milaka hatz erakuslek gorrotoz seinalatzen zuten bigarren maskara hau. Erotzeko modukoa zen eta erotu egingo zen azkenean. Emisora guztietan berdina zen eta irratia itzaltzea erabaki zuen. Azken aldi hartan, bere bizitzako unerik atseginenak lo zegoela pasatzen zituen haiek zirela deliberatu zuen, eta triste samarra iruditu zitzaion.

Patakik ohetik entzun zezakeen Marta batera eta bestera mugitzen, bera artean erdi lotan zela, esna dagoenak ohartu gabe egin arren lo denari hain gogaikarri zaizkion tirriki-tarrakako zaratak egiten. Eguzkia pertsianen artetik irristatzen hasia zen, zulo txikietatik bezala, azenarioak arrailtzeko tresna baten zulo biribiletatik irazten diren argi pinporten eran. Ohetik entzun zezakeen Marta batera eta bestera mugitzen. Bere oinen mugimendua entzun zezakeen egurrezko zoruaren gainean oinez. Ate bat ireki eta ahots hura entzuten hasi zen, bat-batean, norbaitek irratiaren bolumena igo izan balu bezala.

«Orduan gu gaitun gaiztoak, ezta? Hori dun. Agian hobea irudituko zain tortura, heriotza ofizializatua, zeremonia bat egin eta zementua jartzea heriotzaren inguruan, barroteen itzalean... Idazki amaigabeen koartada dela eta kontzientzia lasai duten borrero andana hori. Agian justuagoa dun hori ezta? Ba itzel, heriotza zaindu eta luzatu, edozer mozorrotu dezakeen kultura babesle bat sortu, umiliatua izan zementuzko kaiola batean zaudenean, hilerri batean, bizirik baina bizitzarik gabe. Izorratu beharra zegon,

baina hi norekin hago? Sinetsi egiten al dun dena? Beratu egin al zain bihotza fruteriako eta ezteietako istorioekin? Ze demoniotan daukan burua Olatz? Noiz ikusi dun hik kartzelako ziega ilun batean bakartuta dagoen preso egurtuarekin albistegia ireki dutenik?».

«Ez zekinat Marta, baina putakume bakoitzak bala bat merezi badin, hasiko al gaitun balak egiteko hemendik Moskurako trenbideak funditzen!».

Martak bere orbitatik aterata zeuzkan begiak eta bere rictusean gutxitan sumatzen zitzaion ezpain-dardara bat azaleratzen zen.

Zazpiak eta hogei ziren Patakik, jaiki, pastazko betaurrekoak soineratu, tokatara zuzendu eta kantu bat jarri zuenean. Leonard Cohenen kanta bat zen, eta Leonard Cohen ez zen beltza. Baina ez Olatzek eta ez Martak, ez zuten adiskidantzazko eta hurbiltze ahalegin funtzioa bete nahi zuen keinu hartan erreparatu. Gehiegi eskatzea zen, egia esan. Bere ohera itzuli eta betaurreko eta guzti loak hartu zuen berriro Pataki. Goizeko zortziak eta bederatzi minutu ziren hurrena erlo-

jua begiratu zuenean. Nekatuta zegoen eta begiak itxi zituen.

Baina jadanik ez zuen berriro loak hartzerik lortu.

– Pataki, baduk hik ere esnatzeko garaia, ala? Ikusi al duk hor aparkatutako Mondeo beltz hori? Astebete zeramak hor leku berean geldirik.

Hotz zen giroa. Elur bustia egin berri zuen eta errepideak irristakor zeuden. Norbaitek klaxona jo zuen pabilioiaren aurrean eta burdinazko ate erraldoia ireki egin zen. Auto grisa pabilioira sartu orduko itxi zen berriro ere ate ikaragarria. Ilunpean zegoen pabilioian, sabai altuko fokuak banan-banan piztu ziren. Pabilioia erabat hutsik zegoen, hormen kontra jarritako mekano-apalak salbu. Sartu berri zen autoko gidariak motorra itzali eta maleteroa ireki zuen bere gidari postua abandonatu gabe. Pabilioiaren ertz batetik, bi gizaseme atera ziren, belaontzietako oihalak egitekoa zirudien ehun batez eginiko eskularruak soinean zituztela. Maleterora eskuak sartu eta aurreko nahiz atzeko hankak zinta aislantez loturik zituzten bi zakur atera zituzten bertatik,

arrastaka eraman zituztenak pabilioiarekin komunikatutako beste egoitzaren batera, hauen zaunka itoei entzungor. Gero, sabaiko argi guztiak itzali egin ziren eta autoko argi zuri-gorriak eta motorra piztearekin batera, metalezko ate erraldoia berriro zabaldu zen. Autoak, poliki-poliki, atzerantz egin eta iluntasunean desagertu zen.

Laranja Mekanikoak, minutu batzuez gidatu ondoren, errepideko ertz batean autoa geratu eta dirua zenbatu zuen. Gero, igualeko kopurua egiteko bildu beharreko *diamante* kilo kopurua kalkulatzen saiatu zen. Baina zenbaki bakoitiekin nahastu eta asuntoari buelta gehiago ez ematea erabaki zuen. Autoa berriro arrankatu eta poliki-poliki urrundu zen, txatarra meta erraldoiak atzean utziz.

Abenduak hogeita bat. Betea zen bere buruari eta bere zorteari emandako epea. Ez zen Alargun Beltzaren aztarnarik ttikiena ere. Klaustrofobia ematen zion Pasaiak, N-1 errepide zaratatsu hark; goragalea zirrikitu guztietan nagusitzen zen gasolio usain nardagarriak. Cutty Shark boti-

la bat hartu eta tragoxka bat zintzurreratu zuen. Euria ari zuen kanpoan eta abendu hasierako sargoriaren aztarna ttikienak desagertuak ziren dagoeneko. Ohean etzan zen, fisonomia liburua batera eta bestera zerabilela. Orrialdeak nahikoa lardaskatuak zituen honezkero, eguzkipean hilabeteak eman dituzten egunkari orrialdeak bezala, horitzen hasi ziren. Hitlerren karikatura sailari begira geratu zen une batez eta bere aurpegia Hitlerrenaren eran antzaldatzen saiatu zen, hatz biez sudurpeko bibotea egin eta ezpainak eta barailezurra estutuz. Cutty Shark bateko beira-ispiluan bere ahaleginen emaitza kaxkarra baieztatu eta gero, Lisboako argazkien bilduma erabili zuen atzera aurrera. Gelako ispiluan zegoen ordea merezi zuen argazki bakarra eta merezi zuen ezpain pare bakarra. Veronica bezala ezagutzen zuten emakumearen bi argazkiak: katalogotik erauzitakoa bata eta kafetegian ahazturik utzi zuen argazki erdibituaren erdia bestea. Berak eskuratu ez zuen argazkiaren beste erdian norbait ote zegoen galdegin zion bere buruari.

Oso itxura utzia zuen Cesarrek ordurako, ile matazak lehor eta korapilatuak zituen, batere

zaindu gabe, gero eta nekezago lortzen zuen korapilo haiek eskuaretu eta orraztea. Urduri sentitu zen bat-batean, eta bizarra moztea erabaki zuen. Ez zen posible itxura hartan ibiltzea. Honela hasten zen bat burua galtzen. Bainu bat hartu zuen bizarra egin ondoren. Bainuontzian zen artean ere katalogoak birpasatzen jarraitu zuen. Zigarro bat erre zuen gero, inoiz baino teatralago, bi hatzekin piztu eta bi hatzekin errez, zigarroa busti ez zedin zaintzen zuela. Bainuontzian zegoen oraindik. Askoz ere erlaxatuago atera zen lurrinez gorputza igurtzi eta bere burua txukundu ondoren: txukunketa haiek izaten ziren gainera onenak, inorentzat barik norberaren buruarentzat egiten direnak. Gustura zegoen bere buruarekin, eta ez zeukan hori inork jakin beharrik. Aski zen berak jakitearekin.

Salako ispiluaren aurrean erantsitako Veronicaren argazkiak ikustean ordea, aurresentipen arraro bat izan zuen, eta irrazionalki, berriro ere bainuontzia bete eta bigarren bainu bat hartu zuen. Bigarren aldiz, zerbait betirako aldatu zela sentitu zuen. Zerbaitek alde egin ziola, eta ez zela gauza izango Alargun Beltzaren aztarnarik

sekula topatzeko. Luzaro geratu zen ispiluan bere aurpegiari so. Ilea atzerantz orraztuta beste itxura bat zeukan, baina oraindik edonork ezagutuko zukeela iruditu zitzaion. Bera zen fisonomistak ere ez ezagutzeko moduko mozorro bat asmatzeko gai izango ote zen otu zitzaion. Gai izango ote zen beste itxura baten pean bizitza berri bat hasteko. Umetatik zetorkion mozorrotzeko zaletasuna. Hau pentsatu ondoren, etxean bueltaka hasi zen, harik eta seko aspertu eta telebista piztu zuen arte. Boris Ieltsinek Leninen momia aurrerantzean ez erakustea erabaki ote zuen. Moskun zegoen aztoramenduaz mintzo zen telebistako esataria: «Hainbeste urte igaro ondoren, oraindik eskuetako azkazalak hazi egiten zaizkio Lenini, bada garaia amesgaizto hau amaitutzat emateko» zioen Moskuko kaleetan elkarrizketatutako gazte batek.

Cesar Telleria lo geratu zen sofan, foku gorrien pean zetzan Lenin lasaiaren loari so. Baina ez zen berea lo lasaia izan. Zerbaitek alde egin izan balio bezala sentitu zen, eta orain ez zeukan batere zalantzarik galdu zuena zer zenari buruz. Cutty Shark zurrupadatxo bat hartu eta lo, zurru-

padatxo bat hartu eta lo, amesgaizto bat eta zurrupadatxo bat, elkarren segidan.

Bere buruari aitortu nahi ez izan arren, orain-dik ez zen heldu garaia, aurrera jarraitzeko galdutako horren beharrik izango ez zuena.

Esku ahurra ireki zuen, baina ez zuen bertan deus ere aurkitu.

Goiz hartan egunkaria goitik behera irakurri zuen Martak eta gero sukaldean zeuden botila eta lata guztietako etiketak ere bai. Lehorreratu gabe ontzian isolatuta hamaika hilabete pasatzen dituen marinelarena iruditu zitzaion bere jokaera. Bere begiradaren lerro zuzenak abiadura abisal eta urduri batean arrastaka eramango balu bezala zen. Egunkarian irakurri zuen gauzarik erakargarriena zulo beltzei buruzko zerbait izan zen: unibertsoan jazotzen ziren gertaerarik biolentoenak omen ziren zulo beltzak.

Izar baten bizitza bere azkenetara heltzen zenean izarraren bihotza bere baitara kolapsatzen zen grabitatearen poderioz. Izarraren zentroa kolapsatu ahala, kanpoaldeko geruzetako materia zati bat kanpo espaziora jaurtikia zen, gaine-

rako guztia izarraren bihotzerantz erakarria zen bitartean. Zentro dentso horretara erakarritako materia guztia zulo beltz bihurtzen zen eta inguruko orbitako materia guztiak donut baten gisan biltzen zuen zentroa. Handik momentu gutxira, donut itxurako kanpoko geruza zulo beltzak irentsi egiten zuen, hustear den bainuontziko zuloak azken ur zurrunbiloa irensten zuen eran, barruan zuen guztia bere baitan desagerraraziz. Zulo beltz hauek hain dentso eta boteretsuak zirela uste izan da, ezen argiak ere ezingo baitziokeen ihes egin bere erakarpen indarrari. Zulo beltzak krimen perfektuaren egile jo izan ziren, irensten zutenaren arrastorik uzten ez zutelakoan. Teoria berri bat sortu zen ordea azken boladan, zulo beltzen kasuan ere lehen negarra jaiotzarekin batera etor zitekeela defendatzen zuena. Ez zirela jaiotza isil eta beldurgarriak, ama bat jaioberriaren negarra ez entzutean kezkarazten duten horietakoak. Azken ikerketak zuzenak baziren, zulo beltzek uzten zuten arrasto bat sortzen ziren unean eta gamma izeneko izpien bidezkoak ei ziren zulo beltzaren jaiotzaren proklama adierazpenak.

Orduan bazegoen aukera bat, iruditu zitzaion Martari, bazegoen aukera bat zulo beltzari ihes egiteko, zulo beltza atzeman eta zulo beltz horrek bereganatzen ez zuen materia zati ttikiaren, materia iheslariaren zati izateko. Bera behiala koma egoerako zulo zuritik ihes egina zen, baina zulo beltzak beste zerbait ziren. Gamma izpi bat zer demonio zen jakitea desiratu zuen, ze itxura ote zuen. Pentsatzekoa zen gamma izpiekin ere elurretako Yetiarekin gertatzen zen gauza beretsua pasatuko zela. Ikusi orduko ohartzen zen bat Yetiaren aurrean zegoena, hura ikusten zen lehen aldia izan arren.

Kanpamentura itzultzean gero bakoitzak bere bertsioa emango zuen, denak oso kontrajarriak, hori bai, eta inork ez zuen ezer sinetsiko. Elurretako Yetiarena norberarekin gorde beharreko sentipena zen. Gamma izpiak, pentsatu zuen, bai inbentu itzela.

Egunen batean alabaren bat badut, izen hori jarriko diot.

Egia da hilotzek hitz egiten dutela. Beren erara, jakina. Baina hitz egiten dute. Robertok bazekien

hori, kalez kale ibili izan zen garaitik. Behin, epaile forentseak hala aginduta, supermerkatu batean tirokatutako baten hilotza altxatu behar izan zuten berak eta bere kide batek. Lehenago ere ikusi izan zituen hilotzak, baina eginbehar hura bereziki desatsegina suertatu zitzaiola oroitzen zuen. Supermerkatuko aldizkari apalategia oroitzen zuen, aldizkarien apaletako argazkietan inoiz baino inozoago irribarrez ageri zen aurpegi pila hura, ahoz gora zetzan gorpuaz barrez ariko balira bezala. Betaurreko pare bat zegoen lurrean eta emakumezko kutxazain bat negar-zotinka ari zen pasilloaren bestaldean. Betaurrekoak lurretik hartu zituen Robertok eta zotinka ari zen kutxazainak «nireak dira betaurrekoak, jauna» esan zuen patekikoki, eta jantzi egin zituen betaurrekoak, ertz batean odolez zikinduak zeudenak. Eta jada barkaezina zen eran jarraitzen zuten barrez apalategietan aldizkari haietan guztietan aurpegiek.

Gorpuari besapeetatik heltzen zioten artean, –pisu *mortua* zen benetan gizon hura– lepoa panpina baten gisan zuela eta oraindik bero, hilotzaren ezpainetatik soinu beldurgarri bat atera

zen. Hilda zegoen arren, eztarrian pilaturik zuen azken aire bafada ez zuen oraindik bota, itxuraz, harik eta Robertok eta bere kideak haren gorpua altxatu zuten arte. Goragaleak jotzear geratu zen Roberto soinu hura entzutean. Bere kideak ordea, ikuspegi ezberdinetik ikusten zituen gauzak. Ezin izan zuen barre ttiki bat saihestu, Roberto hasberriaren aurpegi zurbilari so.

– Honek ez zuen agurrik esan gabe alde egin nahi, nonbait.

Une hartan krudela, barkaezina iruditu zitzaion esaldi hura Robertori, gauzak zer diren. Hildako berri hark ezpainen artean esateko azken hitzik ba ote zuen galdetu zion bere buruari. Ezpainetatik zerion listu eta odolaren nahasketan disolbaturiko azken borondate, azken hitz, azken esaldirik ba ote zen. Alargun Beltzarengan zeukan pentsamendua, edukiko ote zuen Egiako atentatu harekin zerikusirik, horixe otu zitzaion, kazetariz inguratutako Poliziaren prezinto elastikoa urrunean ikusten hasi zenean, autoa utzi eta kontrol hesirantz abiatu ahala. Ez zen ohiko prozedura, hori egia zen. Bigarren pisu ba-

teraino igo eta etxera bertara biktimaren bila joatea harritzekoa zen.

Roberto Goaza komisarioak, eskaileratan gora zihoala, bigarren pisuko ataritik, hildakoaren apartamentuko atea irekirik zegoela ikusi zuen. Geratu egin zen une batez, ateko markoak zedarritzen zuen koadroari begira: jendea zebilen batera eta bestera, ezaxolati edo serio, zaila zen ziur jakiten. Bata zuriak eta betaurreko zikinak esku artean, makurtzen ziren lepoak eta makurtzen ziren gerriak, kokotsean hatza paratzen zuen funtzionarioa, argi gehiegi, etxeko argi guztiak piztuak, ordu hartan beharrezkoa ez zen arren. Eskailerako esku-bermalekuan bermatu zuen apur bat besoa, bere zeregina hasi aurretik jada nekatuta balego bezala. Zer demontretan ari zen jende hura guztia han bazterrak nahasten? Heriotza deika denean hustu egiten dira jendez kaleak. Baina heriotza partitzen den unetik jende guztiak zabaltzen ditu bere leihoak, guztiak daude beren lekukotza emateko prest. Zereginik ez dagoenean. Lehergailu batek eztanda egin ondoren denak biltzen dira lehergailuak

egindako zuloan, sarraskiaren erdian goxotasun eta segurtasun apur bat balego legez.

Zizpuru sakon bat egin zuen eta argiz betetako ate hura zeharkatu zuen Robertok.

– Nola gertatu da?

Galdera inozoa zen, baina zein galdera ez zen inozoa egoera hartan.

– Gizonezko bat eta emakumezko bat, ez dago garbi tiroak bietako nork egin dituen, baina biak omen zeuden armatuta –ezagutzen ez zuen ertzain gazte bat zen. Esandakoen arabera, Alargun Beltza izan zitekeen tirokatzailea.

– Horixe besterik ez genuen behar, jainkoarren.

– Bi lekuko ditugu.

Bi lekuko ditugu, ederki. Nondik atera ote zen gazte hura? *Bi lekuko ditugu*, zioen, hildakoa han ez balego bezala. Baina hildakoa han zegoen.

– Nik uste hiru ditugula, baina, ez dakit zergatik, iruditzen zait batek ez duela hitz egiteko borondate gehiegirik duenik ematen.

– Barkatu jauna, zer diozu?

– Deus ez, deus ez!

Ohe baten ondoan zerraldo zetzan gorpuak beso bat luzatua zuen, ohepean eskua sartu nahi izan balu bezala. Ertzain gazteak manta altxatu zuen, ohepean ezkutuan zegoen pistola ttikia agerian utziz.

– Ez dio denborarik eman.

– Bota iezaiozue manta bat gainetik, arren.

– Forentsearen zain gaude, jauna.

– Jainkoarren! Eta zeren zain dago forentsea bere sudurra hona agertzeko?

Robertok berak bota zion izara bat gainetik gorpuari.

Ezin zuen gehiago jasan. Bera moldatu zen moldatu bazen hiriaren zakurraren ipurditik hara ordu laurden batean heltzeko eta epaile forentsea, oraindik ez zen agertu. Leihora atera zenean argazkilariaren flashek itsutu zuten. Kasuaren ardura duen komisarioak ez du ikerketen nondik norakoen berririk aurreratu nahi izan. Begiak bere onera itzuli aurretik irakurri zuen titularra. Horma gogor kolpatu eta eskua kokotsean jarri zuen, hatz erakusleari saihetsetik hozka egiten ziola, amorrazioz. Komisariako sei gizonemakume zeuden gelan: bi argazkiak ateratzen,

bat gela bideoz hartzen, Alain –bere laguntzailea– zigarro bat erretzen ari zen eta beste biak elkarrekin hizketan. Giroa benetan itogarria zen, eta esan beharrik ere ez dago, hildakoa zen han gutxien molestatzen zuena. Komisarioak sorbaldak eta lepoa kizkurtu zituen, begietatik sastakaiak jaurtikitzen zituela.

– Joder! Baina zer uste duzue? Kanpora denok hemendik, kanpora! Zer da hau, jolas parke madarikatu bat? Jolas parke puta bat?

Denak gelatik atera eta handik segundo gutxira, gizaseme gizen batek ateko egurrezko markoa hatz koskorrekin emandako kolpe leun pare batez atabalatu zuen. Ezpain ingurua koipez zikindua zuen, bazkaldu berriaren itxuran.

– Eta zu zein demonio madarikatu zara?

– Barkatu berandutza, jauna. Trafiko handia zegoen. Forentsea naiz.

Komisarioa gorpuaren ondora makurtu zen. Izara mutur batetik heldu eta hilotza agerian utzi zuen. Gero, izararen muturra artean eskuetan zuela, paparretik sartu zion forentseari, serbileta bat balitz bezala, gorbataren gainetik.

– Dena zurea da, jauna. On egin deizula. Nik gaur ez daukat apetiturik.

Kolpe bortitz batez atea itxi eta Roberto Goaza komisarioa kalera irten zen.

– Pataki, sar naiteke?

– Jakina, Marta. Dena ondo al doa?

Marta Patakiren gelara sartu zen. Irakurtzen ari zen ohean etzanda, baina jantzita zegoen, ohea ere desegin gabe oraindik.

– Zortziko lo-ordu kopuru gomendatura iristen ez diren horietakoa haiz hi ere?

Martaren tonuan bazen zerbait desohikoa, samurregia Marta izateko, Marta ez zen Marta bat, zerbait okertu izan balitz bezala. Irribarre ahalegin bat, gehiegi zen. Arazo larriren bat zuen esku artean ateari ostikada emanez gelara sartu ez zitzaionerako.

– Zera, Pataki, baduk kezkatzen nauen zerbait gure hurrengoaz.

Ohe gainean eseri zen, ertz batean, eta zigarro bat piztu zuen, lau hatzez sustengatuko zuena.

– Nahi duk zigarro bat, Pataki?

– Ez, mila esker. Utzi egin ninan, edo berak ni, auskalo, badakin nola diren bikote kontu horiek...

– Jakina. Iruditzen zaidak bidezkoa dela esatea, ni behintzat lasaiago geratuko nauk –Martak irribarre egin zuen berriro. Hortzak zuriagoak eta ederragoak ziren begirada beherantz ezkutatzen zuenean–. Gure hurrengoa. Nik ezagutu nian tipo hori. Bere argazkia ikusi dudanetik txokatuta nagok. Urteak dituk ikusten ez dudala, baina nik ezagutu nian. Ikaskide izan gintuan. Behin baino gehiagotan mozkortu gintuan elkarrekin.

– Mundu zakur eta txikia, ezta? Ez zekinat ba zer esan. Nahi dun... Nahi dun nik egitea?

– Nik ere ez zekiat zer pentsatu. Egia esan, batzuetan erokeriaz erokeria gabiltzala iruditzen zaidak, nire buruari hau onartzea kostatzen zaidan arren. Hik ez duk sekula zalantzarik izan?

– Bizitza ez dun balore absolutu bat, Marta. Guk gurea jartzen dinagu jokoan. Norbaitek borroka egin behar din soken kontra daudenen alde.

– Bai horixe, hori duk nik pentsatzen dudana. Baina batzuetan...

– Batzuetan gogorra dun. Agian gure borroka ez dun zilegia, baina bizi dugun egoera ere zilegia ez denez beste erremediorik ez dagoela esango niken. Pentsatzen jarriz gero, ikaragarria dun: gaur egun herrialde boteretsuenak egundoko sarraskiak egiten ditizten Afganistanen edo Somalian bakea jartzeko aitzakiarekin eta gero gu gaitun gainera terroristak. Ez nazazue izorratu, joder.

– Baliteke, ez zekiat.

– Jakina badakinala. Eta ba al dakin zer den okerrena? Duela berrogeita hamar urte egiten ziren gudetan ez bezala, gaur egungo gudetan inolako herrialdeko buruzagitza ez dagoela prest bere armadan baja bakar bat ere izateko! Gerra egin nahi diten baina beren berunezko soldadutxoetako bat bera ere zauritu gabe! Eta horretarako mila kilometroko distantziatik egiten diten gudua, misil hiper-zehatzak omen direnak erabiltzen ditizten, helburu militarrak kolpatu behar lituzketenak eta behin eta berriroko kalkulu erratuak direla medio ehunka zibil akabatzen dituztenak. Jakina, gauza aliatuen soldadutxoak ez zauritzea dun, bakea jarri behar duten herrialde-

ko ehunka zibil hilik suertatu arren. Bigarren Mundu Gerran herrialde batek soldaduak bidaltzen zituenean bazekinan bajak izango zituela. Eta ez bat eta ez bi. Ez al zen ba gerra? Ze gerra klase? Eta gero gu gaitun terroristak, ez nazan izorra... Latza dun hasieran onartzea, baina bakarrik gauden, hori dun gogorrena. Azkenean bakarrik gauden, moja eta marinela bezala.

– Moja eta marinela? Zer arraioz ari haiz Pataki? Zergatik hitz egiten duk beti klabean?

– Barka nazan. Aspaldiko pasadizo batekin oroitu naun. Medikuntza ikasten genuen garaiko pasadizo bat. Benetakoa izan arren inork sinetsi ohi ez duen istorio bitxi samar horietako bat dun. Garai hartan inork ez zionan hil ondoren bere gorpua medikuntzari ematen. Fakultatean bi gorpu erabiltzen genitinan laboratorioko praktikak egiteko, eta urtez urte bi gorpu berberak zitunan, mila promozio ezberdinek bisturia sartu zietenak. Erabat higatuak eta desitxuratuak zeudenan, imajina dezaken. Leienda eta kontu makur franko bazunan hozkailuan gordetzen zituzten gorpu haien inguruan. Kontatzen zutenez moja baten eta marinel baten gorputzak zitunan.

Inork ez bide zitinan erreklamatu eta tanatorioak Unibertsitateari eskaini zizkionan ikasleek erabil zitzaten. Haiek bakarrik zeudenan, baina gu ere ez gauden oso bestelako egoeran.

– Harriturik uzten nauk. Medikuntza ikasi al huen?

– Ez ninan bukatu. Utzi egin ninan laugarren mailan.

– Bakarrik gaudela, beraz.

– Tira, hik sikiera tabakoa daukan.

Martak zigarroaren labezomorro ttipia hautsontzian sakatu eta irribarre egin zuten biek.

Brievako espetxean aspaldidaniko ezagunak zituen Robertok, Avilako Poliziaren Eskola Nagusian Polizia Nazionalarekin batera ikastaro bateratu bat egin zuen garaikoak, hain zuzen, eta ondo hartu zuten. Alain laguntzaileak eta biek egin zuten harainoko bidaia, eta kartzelako zuzendariarekin bazkaldu zuten. Ardoa ona eta arkumea ere eskasa ez, lepo egin artekoa izan zen kartzelako egoitzan bertan egindako otordua. Arratsaldea aurrera zihoan heinean, han zertarako zegoen ahaztu ere egin zitzaion ia Robertori,

purutik pururako kearen lausoan, funtzionario hura ofizialen gelara sartu zen arte. Galesko Diana printzesaren txistea kontatu berri zuen eta barrearen osteko barealdian zeuden.

– Mutikoa gelan dago.

– Mutikoa ez da hain mutiko, mutiko –ihardetsi zion Roberto komisario-buruak funtzionario bizargeari. Honek zeharka kartzelako zuzendariari begiratu eta begirada jaitsi zuen, egoitzarainoko bidea erakusten zien ahala. Roberto Goaza komisarioak eta bere laguntzaileak kartzela zuzendaria agurtu eta mutikoarengana abiatu ziren. Robertok ziurtzat jotzen zuen mutikoak esaten zuena baina gehiago zekiela, eta ez zen bera kartzelaz kartzela alferrik ibili zale ziren horietakoa. Ez zuen bidaia hura alferrik egin, ez horixe. Atera beharrekoa aterako zion, horretarako hesteren bat atera behar izanda ere.

Lokutorioa gela biluzi bat zen, iturri ttiki bat eta bi aulki besterik ez zituena. Mutikoa aulki batean zeukaten eskuburdinez lotua, eta, saihetsezurren artean lau kartzela urte eta hamaika traslado izateko, itxura osasuntsua zeukan. Roberto

jaka erantzi eta alkandorako mahukak goratzen hasi zen.

– Tira, tira, gudaritxo. Koldo zaitugu orduan, ezta? Uste dut dagoeneko badakizula zertarako zauden hemen, Koldo. Oker al nabil?

Koldok begietara so egin zien biei. Haien begiek ez zioten erantzun.

– Ederki asko dakit zertarako nagoen hemen. Ez dakidana da zertarako zaudeten zuek, egia esan.

– Bo, bo. Harroxkoa gudaria, ezta? –Robertok bere laguntzaileari begiratu zion eta Alainek baiezko keinua egin zuen, esku artean zekarren plastikozko zabor poltsa baten barruan zeukana hatzez atabalatzen zuenaz batera. Gelako ertz batean eseri zen Alain, Koldo eserita zegoenaz gain lokutorioan geratzen zen aulki bakarrean, Robertoren aginduen zain.

– Badakizu zer esaten dizudan, Koldo? Gu biok elkarren antz handia dugula. Tenperamentua daukagu, eta hori ez da txarra. Denborarekin ordea tenperamentu hori behar denean bakarrik erabili eta une bakoitzean dugun informazioari etekina ateratzen ikasten da. Zerbaiten truke

edo ez, azkenean aterako dizut, ez pentsa. Denbora da daukadan gauza bakarra, zuk ikusiko duzu.

Gezurra zen, jakina: handik bi ordura autoa hartu eta itzuli egin behar zuen Donostiara. Komisarioak purua itzali zuen ateko markoaren aurka. Polizia gehienek zuten ohitura zen zigarroak ateen markoen eta hormen aurka amatatzearena. Psikiatria liburuetan neurosi eta antsietatearen sintoma garbienetakotzat jotzen den zerbait da hori.

– Ikustagun zure txostena. Babesa eta etxebizitza emateagatik zaude hemen. Laguntza ttiki bat ematen badiguzu dexente arindu genezake kartzelaldia. Akaso etxera ere gertura zaitzakegu, amatxok bisita ahal zaitzan eta abar.

– Nire ama hilda dago. Auto istripuan hil zen, ni bisitatzetik etxera zihoala.

Robertok eta Alainek elkarri begiratu zioten, eta gero tantaz tantako soinu gogaikarri bat sortzen zuen iturriari.

– Tira, Koldo, biziki sentitzen dut. Istripuak gertatu egiten dira. Ez nekien ezer, barkatuko didazu.

– Zer dakizu Alargun Beltzaz? –Alain mintzatu zen oraingoan.

– Ez dakit zertaz ari zareten.

– Ez dakizu zertaz ari garen, gudaritxo?

– Jende normala bazinete ulertuko zenukete zergatik nagoen hemen. Gauzak nahasteko joera ikaragarria daukazue. Badakizue zergatik nagoen hemen? Nire lagunik minena nirekin eduki nuelako bi gauetan berak lehergailu bat jarri ondoren. Konforme, ihesean lagundu nion nolabait. Ulertzen ez duzuena horixe da: nik ezingo niokeela babesa ukatu nire lagun minari, edozer egitetik datorrela etorrita ere. Munduko kabroirik handiena zela, edo areago, polizia zela esan izan balit ere ez niokeen ukatuko, pentsa.

– Ikusten dut ez duzula umorea galdu. Hori garrantzitsua da Koldo, horretan ere antza dexente dugu biok.

– Nirekin denbora alferrik galtzen ari zarete. Hala nahi izanda ere, nik ez daukat zuei zer eskainirik –mutikoak irmo mantentzen zuen bisaia.

Robertok argazki bat jarri zion begien aurrean.

– Ea ondo ulertu dudan. Esan didazuna da ez dakizula ezer argazki honetakoaz?

– Alferrik ari zarete nirekin, ez duzue tipoarekin asmatu. Hori da guztia.

Robertok ileetatik heldu eta atzerantz tira egin zion mutilaren buruari. Lepoa tinkatu bezain pronto, bizarra mozteko labana herdoildu bat atera eta ezker patillako ilea moztearekin batera ebaki handi samar bat egin zion masailean.

– Itxuraz dardara egin dizu gaur goizean pultsuak bizarra egiten ari zinela, ezta? Hain ikaratuta al zinen gure bisita zela medio, gudaritxo? Mutu zaude? Gudari mututxoa zaitugu? Tira, odol jario hori sendatu beharko dugu behintzat.

Robertok laguntzaileari keinu bat egin eta honek plastikozko zabor poltsa ireki zuen. Plastikozko krokodilo itxurako piszina puzgarri bat atera zuen bertatik eta lurrean destolestu zuen. Gero, puzten hasi zen, putz eginez, beste edozein egoeratan patetikoa eta barregarria litzatekeen eran. Egoera hartan, patetikoa bakarrik zen. Eta beldurgarria. Robertok, artean, txalekoko patrikatik latexezko eskularru parea atera eta

hizketan jarraitu zuen, aulkian lotuta jarraitzen zuen mutikoaren inguruan.

– Zinez, gauza gutxitan sinesten dudala esan dezaket, Koldo. Jainkoarengan ez, hori seguru. Baina zerbaitetan itsu-itsuan sinesten badut oreka kosmikoan da. Yin eta Yang-aren nire aldaki pertsonala da, hala ikusi nahi baduzu –latexari eskumutur parean tira egin eta txistu desatsegin bat egin zuen eskularruak, egurraz jabetzen ari den suaren antzekoa–. Sinesten dut azken finean badagoela oreka bat gertatzen diren gauza guztien artean, eta oreka hori, zenbaitetan gertuko plano batean azaldu ez badaiteke ere, plano orokor batetik hartuta erabat ulergarria dela deritzot. Eta honek bizitzako gertaera guztietarako balio duela esango nuke, berdin gertaera lazgarri eta dimentsio handiko ezbeharretarako edo eta eguneroko miseria, maitemintze eta desmaitemintzeetarako. Ez duzu oreka kosmiko hori sekula sumatu zure garunean barneratzen, gudaritxo? Bat-bateko zirrara deskonzertante bat da, belarrizulo edo begizuloetatik sartzen dena, eta une horretatik aurrera pertsona berdina ez zarela sentitzen duzu: oreka kosmi-

koa ari da, zure ordez gauzak bere lekuan jartzen, oreka kosmiko horrek gauzak egon daitezen eskatzen duen lekuan. Zurrunbilo horri ezin diozu ihes egin. Eta orduan maitemintzen edo desmaitemintzen gara, edo tornado batek hamar mila pertsona erailtzen ditu Ertamerikan, eta gertaera bat zein bestea dira nire ikuspegitik ulergaitz, eta batak zein besteak du transzendentzia ikaragarria kosmosak bere oreka manten dezan. Gurpilak jiraka jarrai dezan ordaindu beharreko prezioa besterik ez da, gudaritxo. Berdin unibertsoan nahiz gure suburbioetan, gertatzen diren gauzak ez dira guk uste bezain kaotikoak. Horretan sinesten dut, bai, itsu-itsuan. Eta ez dut sekula pentsatzen gure ekintzen onuran edo kaltean, etikotasunean edo etikotasun faltan. Tortura ere ez da existitzen nire hiztegian. Dena erlatiboa baita, azken batean.

– Zu... burutik zaudete zuek, joder!

Robertok bortizki askatu zuen Koldo lotuta zegoen aulkitik eta bere laguntzaileak puztu berri zuen piszina ttikia seinalatu zion.

– Zauria garbituko dizugu.

Robertoren laguntzaileak iturripean jarria zuen bainuontzi puzgarria, goraino urez betetzear zena. Ez zuen metro erdiko sakonera baino askoz gehiago. Alainek iturria itxi zuen eta Robertok, arrastaka inguratu zuen mutikoa bainuontzi puzgarri hura zegoen ertzeraino. Ileetatik heldu eta burua lehen aldiz uretan murgilarazi zionean bekain bat ireki zitzaion Koldori koltxonetaren azpiko zementuaren aurkako kolpearekin. Alainek irribarre egiten zuen. Anartean, Robertok, rutina baten parte balitz bezala, gora eta behera erabiltzen zuen Koldoren lepoa, bere eztula eta arnas estuei entzungor. Latexezko eskularruen hatz puntak mutikoari masailetik behera zerion odolaz zikintzen zitzaizkion, ezarian-ezarian, baina Roberto Goazaren aurpegiko freskotasuna bere horretan mantentzen zen, Koldoren lepoaren kontrako indarrari eusteak inolako ahaleginik eskatuko ez bailion.

Minutu batzuen ondoren, lurrean botata utzi zuen Robertok mutikoa. Eskuburdinak oraindik lotuta zituen.

– Azken aldiz galdetuko dizut. Zer dakizu Alargun Beltzaz?

Segundo batzuk behar izan zituen arnasa berreskuratu eta hitz batzuk elkarren segidan koherentzia minimo batez kateatzeko.

– Sekta puta batekoak dirudizue, nik ez dakit ezer!

Izuaren atalasa pasa zuela ohartu zen Koldo, barre algaraz lehertzeko gogoa etorri zitzaionean. Koldoren begietan bazen distira bat. Egia dioenaren distira izan zitekeen, edo burua berriki urperatuta izatean, amaren sabeleko gozotasun mingarri eta urruna oroitu duenaren distira, baina baita zain zuen destinoaren jakinaren gainean dagoenaren azken argitasun unea ere. Komisarioak uretan murgilarazi zion berriro ere burua, tarte luzez, harik eta eskuburdinen arteko hatzen dardara amaitu zen arte.

Alainek eta Robertok elkarri begiratu zioten. Gero, arnasarik hartzen ez duenarekiko elkartasuna azalduz bezala, jada tantarik ez zerion iturri mutuari. Komisario-burua kolera batean trumoitu eta oihuka lehertu zen.

– Putakumea! Zerbait esan izan balu sikiera!

– Gizonezko gehienekin pasatzen zaidan gauza bera gertatzen zaidan berarekin ere, gehiago gustatzen zaidan ahoa itxita daukanean.

– Ez dinat sinesten gustatzen ez zainenik.

– Zer nahi dun esatea... Institutu garaian esaten geninan bezala, ez dun nire *Elurretako Yetia*.

– Elurretako Yetia! Zergatik Elurretako Yetia?

– Tipo ideala Yetiarena bezala delako: gutxik ikusi diten eta ikusi dutenek ez diten, zer gerta ere, etxean aurkeztu.

– Nik uste baino fantasia liburu gehiago irakurri ditun, Marta.

– Hoa popatik, Olatz. Tipoak beti klabean hitz egiten din. Hori dun bestea. Ba al dakin zer kontatu zidan lehengoan? Ez zekinat zer istorio siniestro moja bati eta marinel bati buruz –zalantza une baten ondoren zalantzarik ezin ager zezakeela erabaki zuen–. Nigana etorri huen zalantzak zituela esanez, bidezkoa ote zen gure borroka, ez zekinat hire biguntasunarekin kutsatzen hasi ez ote den. Zer esan zidan bada? Bakarrik gaudela, moja eta marinela bezala... Tipoak medikuntza ikasten omen zinan garai batean, sine-

tsi egin behar al zionat? Zer eta medikuntza... Bere gorputzak zientziari inork ematen ez zizkionez, inork erreklamatu gabeko moja eta marinel baten hilotzak erabiltzen omen zitiztenan praktikak egiteko... Esaten dinat nik, ustekabez beterik dagoela tipoa. Berezi samarra dun. Zer esanik ez bere musika kontuekin hasten denean.

Egunak eta kantuak eta elkarrizketak, suzesio geldiago edo azkarragoan, etengabe zihoazen. Dena oso arraroa izan zen. Marta kalera alde egina zen eta Olatz bakarrik geratu zen Patakirekin. Nor hasi zen eta nork egin zuen lehen keinua, Olatz ez zen gai izango azaltzen. Olatzek ez zuen esango bera hasi zenik, baina hasi ez zenik ere ez. Patakiren bertsioa entzutea gustatuko litzaioke, baina ez berak galdetuz gero emango liokeena, lagun min bati kontatuko liokeen eran baizik. Gauza da musua ederra izan zela, batere ez bortxatua, «jainkoarren, nire ahoa beste aho bat miazkatzen ari da eta egarri den zakurra baino okerrago sentitzen naiz beste aho hori ez dagoelako musu bat ematen ari den aho batek egon beharko lukeen bezain hezea». Halako pentsamendurik inolaz ere probokatzen

ez zuen muxu eder horietako bat izan zen. Olatzek Patakiren eskua hartu eta hatz luzea apartatu ondoren bere hankartera gidatu zuen, eta galtzak belaunen pareraino jaitsi ostean, hatza bere aluan barnerarazi zion apurka-apurka, neskak sudurrarekin lepoan egiten zizkion laztanen bidez adierazten ziola hatza noiz nahi zuen barruraino sartzea eta noiz nahi zuen erritmoa geldotu edo azkartzea. Polita izan zen, eta egin zutena egitearen arrazoi bakarra elkarren eskura egotea izan bazitekeen ere, gertatukoaren ondoren bien artean harreman berezi bat hastera ote zihoan iruditu zitzaion Olatzi.

Marta apartamentura itzuli zenean, sukaldeko mahaiaren inguruan eserita zeuden Pataki eta Olatz. Marta harritu egin zen apur bat Olatzengan zerbait berezia sumatu uste izan zuelako. Zigarroa pizteko orduan aurreratu egin zitzaiola. Eta ez zekien poztu egin behar ote zuen ala ez, Olatzen jokaera mimetikoa bukatutzat ematean. Baietz suposatu zuen, poztu egin beharko zuela.

Marta etxeratu ondoren, Pataki deseroso sentitu zen. Aulkitik altxa eta zer egin ez zekiela, fri-

gorifiko gaineko zumezko otarretxotik laranja bat hartu eta azala kendu zion. Gero, hatzez laranja zatiak banantzen saiatu zen, baina bere baitara bildutako laranja konpaktu horietako bat zen, laranja-atalak elkarri oso lotuta dauden horietakoa, eta hatzak laranja zatitzeko frutaren bihotzeraino sartzen zituen heinean, laranja erabat sarraskitzen ari zen, alde guztietatik zukua zeriola. Olatzek irribarre samur eta bihurri batez begiratzen zien Patakiren esku zarpailei. Pataki erabat gorritu zen, laranja hark beste zerbait gogorarazi ziolako eta Olatzi ere gogorarazi izango ziola bazekielako. Martak sofan Olatzekin larrutan harrapatu izan balu baino lotsatuago sentitu zen Pataki. Begirada ezkutatu, txiki-txiki egindako laranja zaborrontzira bota, eskuak harraskan garbitu eta sukaldetik atera zen, ezinegonik, alkandorarekin eskuak lehortuz, nonbait, etxeko beste gelaren batean, tren bat zain balu bezala.

Orduan gertatu zen. Marta, zertaz oso ondo jakin ez arren, zerbaitez jeloskor sentitu zen. Edo, beharbada, ordura arte gogaikarri jo izan zuen Olatzen portaera mimetikoa berak uste baino gustukoagoa zuela ohartu zen, besterik

gabe. Zerbait aldatu egin zen haien artean. Elkarrengana iristear egon eta betirako konplizitatea lortzeko aukera bakarra zapuztu zuten, agian.

Beharbada horregatik, gau hartako eztabaida inoiz baino garratzagoa izan zen eta Martak krudeltasun deliberatu batekin sakatu zituen Olatzen ahultasun jotzen zituenak.

Cesar Telleriak harreman berezia zuen zapatekin. Edozein alkandora jantzi zezakeen edo edozein galtza. Apaingarriak besterik ez ziren arropa horiek beretzat. Berdintsu zen jaka bat edo beste janztea. Baina zapatak? Zapatak dira dudarik gabe soinean daramatzagun guztien artean funtzio garrantzitsuena betetzen dutenak. Zapatak dira munduarekin dugun lotura nagusia, lur hurkoarekin elkartzen gaituen mintz kruziala. Teoria oso bat garatua zuen janzteko zer hauen inguruan. Nondik zetorkion zapatekiko zaletasun hura, ez zekien. Beharbada Errege Egunaren bezperako oroitzapen hura zen erruduna, zapatak distiratsu utzi artean berandu arte lustrea ateratze hori. Kaleetatik jada desagertuak ziren zapata-garbitzaileen istorioak, Carpantaren ko-

mikietatik bakarrik ezagunak. Bazuten zapata-garbitzaile haiek profetikotik zerbait, misio baten zain dauden espiak edo jainkoek bidalitako ordezkariak ziruditen. Aingeru zaindari bat irudikatzen zuen bakoitzean, nahi gabe, masailak betunez zikindurik zituen aingeru bat irudikatzen zuen, zapatak garbitzeko eskuila bat esku artean zuela. Pertsonaia biblikoak ziren zapata-garbitzaileak. Noe berriak.

Zaila halako joera eta apeta bitxien iturburuak asmatzea. Zapatena zen bat eta egunean bizpahiru bainu hartzearena zen bestea. Behin eta berriz sartzen zen bainuontzira. Azken bainua hartu zuenean urpean zenbat denbora pasatzeko gai ote zen neurtu nahi izan zuen, egunkarian irakurri zuen berri batek eragin bazion ere urperatzearen saiakera: uretan sartuz gero likido amniotikoaren baitan amaren sabelean genuen sentipen bera izan eta jaio aurretiko memoria berreskuratzea posible omen zen, artikulu haren arabera. Ezer gogoratzerik ez zuela ikusi eta etsia hartu zuenean, zapatekin tematu zen, lustrea atera eta atera. Aspertu zenean, Pasaiako N-1 errepidera ematen zuten leihoak berriro ireki

zituen. Haize-korrontearekin aspertu eta berriro itxi zituen segidan. Gero etxe osoa zeharkatu zuen, bere oin biluzien pean kurruskatzen zen zurezko zoruaren zaratak eta lurrak kontatzen zizkioten sekretuak bereganatu nahian. Hildakoek bezala, etxeek ere hitz egiten zuten, beren hizkuntza berezi eta propioarekin: korridorean oinez zihoan ahala, bakoitzak zuen bere ibiltzeko taxukera berezia, eta taxukera horri kraskateko eta kexa ezberdinekin erantzuten zion etxeak.

Bosgarren pisuan bizi zen eta etxearen alde batetik N-1 errepidea eta Nafarroa etorbidea ikus bazitzakeen, bestaldea patio ilun batean oztopatzen zen. Nafarroa etorbideko patioetako batean afixa bat egon zen luzaro itsatsita: Salgai, zioen afixak. Eta azpian telefono zenbaki bat. Egun hartan ordea, kartela falta zen. Largabistak hartu zituen, hobeto ikusteko. Pertsiana erdi itxita egon arren, barruan norbait zebilela zirudien.

Cesar Telleriak largabistak utzi eta katalogoak birpasatu zituen berriro ere. Ez zeukan zertan halakorik egin, Pasaia inguruan bi baitziren bere bilaketaren helburu eta ez gehiago. Une batez

bederen, Lombroso fisonomista ospetsuaren libururen bat esku artean ez izateagatik arranguratu zen. Lombroso italiarraren teorien arabera, bazen kriminal tipo zehatz bat, jaiotzetik estigmatizatua, fisikoki ezaugarri jakinak zituena eta herentzia genetikoa zela eta kriminal bihurtuko zena. Bere itxura fisikoak berak salatzen zuen beraz gaiztotasuna. Lombrosok lurpetik ateratzen zituen «kriminal gaizto» izandakoen garunak eta eskeletoak, hauen izaeraren arabera lan antropologiko-kriminal fantasiaz beteak eraikiz. Belaunezur edo tibia-hezur higaturen bat, etengabe barkamena eskatzen duela dirudien sorbalda keinu bat, munduko kriminal guztiak salatuko omen zituen sudur okerdura komun bat. Lombroso entretenigarria bazenik behintzat ezin uka.

Astebete zeraman Pasaian gora eta behera eta apur bat etsita zegoen, ezdeusak izan baitziren ordura arteko ahaleginen emariak. Buenos Airesen bi hilabete inolako emaitzarik lortu gabe ematea ulergarri eta barkagarria jotzen zuen, baina bere buruari barkatu ezin ziona zera zen: Pasaia bezalako herri ttiki batean emaitzarik ez lortzea. Jasangaitza zitzaion eta deseroso sentia-

razten zuen. Mila beldurren artean bat gehiago baino ez zen, azken finean. Hurrengo ahalegi-nean ezinak gaindituko ote gaitueneko susmoan oinarritzen den beldurra. Aurreko pauso onbide-ratu guztien ordaina une horretatik aurrera pauso bakar bat ere ezin aurreratu ahal izatean datzala uste izatearena. Une horretatik aurrera edozer egiteko ezgauza garelako sentipen izu la-borrizkoa. Irtenbiderik gabeko egoitza ilun eta okerrera heldu garela sumatzen dugu. Eta oke-rrena da emana izan zaigun hala-moduzko aska-tasun horren erabilera okerrak eraman gaituela atzerabiderik eta konponbiderik gabeko egoitza horretara.

Horixe da beldurrik izugarriena.

Behin eta berriz garbitzen zituen zapatak. Alokairuzko apartamentu hartan zituen liburuak handitik txikira sailkatzen zituen lehenbizi, han-dik minutu gutxira txikitik handira sailkatzeko, li-buru batetik besterako koskan balego bezala gure umore onaren giltza. Beldurrak gure baita-ra kiribilarazten gaitu. Umekiaren jarrera hartzen dugu, urperatu nahi izaten dugu gure burua bai-

nuontzian, auskalo zer gogoratu nahian, horren truke beste guztia ahazteko.

Kalean argiak pizten hasiak ziren. Etxe batean entzuten den zarata bakarra sukaldean ontziak garbitzen dituztenek egindakoa den eguneko ordua ailegatua zen. Cesar Telleriak largabistak hartu eta Salgai iragarkia falta zeneko leihoa fokatu zuen berriro, bi hatzekin zigarro bat pizten zuenaz batera. Ohe bateko koltxoiaren ertza bakarrik ikus zezakeen argi urdinen pean, eta bertan emakume baten hanka biluziak, gerritik behera ia-ia osorik, ohetik erdi aterata. Leihoko argiak itzali zirenean, hogeita hamabost urte inguru bota zizkion itzal bat –gogorra gero, itzalak datatze hau, pentsatu zuen, polizia izateak ekarri zizkion azturen neurriaz harriturik– sumatu zuen ilunpeetan oherantz oinez, biluzik, neskaren ondoan etzaten. Zigarroa leihoko markoaren aurka zanpatu eta ohean etzan zen Cesar Telleria ere, zapatak ez beste gainerakoak jantzita zituela, oheari estalkia kentzeko betarik hartu gabe.

Loak hartu zuenean oraindik piztuta zegoen gelako flexoa, eta haren azpian argazki katalogo

kriminalen bildumako erretratuek irribarre zalantzatiak egiten zituen trafiko gertuaren noizbehinkako argi rafagek lagundurik.

Munduko Lombroso guztiek han nonbait behar zuten ibili, Pasaiako pabilioietako zakurborroka klandestinoei begira, hurrengo bizitzaren batean zakur guztiak gizon eta gizon guztiak zakur izango balira onerako izango ote zatekeen ala ez pentsatzen, edo sare eta txatarra meta erraldoiak zulatzen, beren teoriak baieztatuko zituen eskeletoren baten bila.

Goizean, Marta jaiki eta Olatzen gelara zuzendu zenean, ohea hutsik zegoela ohartu zen. Alde egin zuen neskak. Zigarro bat piztu eta telebista gainean hatzak erritmikoki atabalatzen hasi zen. Salako ispiluan Pataki ikusi zuen, jaiki berria, zahartuagoa, arropak zimurtuta eta arratsean oharkabean pasatzen ziren zenbait ile zuri egun argiak agerian uzten zizkiola.

– Non dago Olatz?

Martak sorbaldak eta bekainak aldi berean altxatu zituen, Olatzek egin ohi zuen keinuaren antzeko bat dibujatuz, bekainekin ere goranzko

keinua azpimarratzen zuela. Gero eskua gela hutsera zuzendu zuen, hemen behintzat ez dago bada, keinu adierazkorrarekin.

– Noiztik falta da?

– Nik zer zekiat *panpina* hori, esnatu naizenean alde egina zuan.

– Tira, agian haizea hartzera atera dun, buelta bat ematera, besterik gabe.

– Haizea hartzera? Ei, ei, baina zein moja inklusatatik lapurtu haugu? Haizea hartzera? Atzoko eztabaidaren ondoren? Ez al duk gogoan?

– Agian arrazoi dun.

– Horixe arrazoi dudala.

– Satorra bera izan daitekeela uste al dun?

– Bai zera. Ondoegi egiten ari duk satorrarena satorra izateko. Ikaratuta zegok. Hori duk dena.

– Eta hi?

– Ni, zer?

– Ikaratuta al hago?

– Ikaratuta ala ez, ni nagok kargura, ez ezak hori ahaztu. Eta orain, apartatu hadi leiho ondotik, gehiegi nabarmentzen ari haiz eta.

Marta, zigarrokina hautsontzian itzali eta salako sofan eseri zen, bere atzetik hautsontzian zigarroak itzaltzen zituen itzala falta zitzaioneko sentipenarekin. Pataki zutik zegoen bere ondoan, eskuak gerrian jarrita zituela. Marta urduriegi zegoen isilik egoteko.

– Zer ari haiz orain, ezpata dantza entseatzen? Egin ezak baliagarria den zerbait. Ez al zaik hire musika zoragarri horietako bat bururatzen une gogoangarri honetan?

Pataki nora jakin gabe geratu zen une batez, Marta benetan ari ote zen ala ez igarri ezinik. Zizpuru egin eta salako CDen artean Billie Hollidayren *Lady in satin* aukeratu zuen. Ahots arrakalatua zuen jada disko honetan Billie Holliday handiak.

So I drive, a little too fast, and I drink a little too much...

– Zein duk atso hau? Ezin al huen zerbait tristeagoa jarri? Joder, hiltzera doala ematen dik eta.

– Egia esan disko hau grabatu eta aste pare batera hil huen.

– Itzel joder, itzel.

Komunean, ispilu aurrean, ez zuen Martak bere aurpegia ere ezagutzen. Ispiluaren bestaldeko simetria munduaz jabetzen ari balitz bezala. Komuneko apaletan lasaigarriren bat bilatu zuen eta pilula pare bat zilarrezko paperetik kanpora sakatu ere bai. Gero ordea, komun-zulotik behera bota zituen. Ez zen hura bidea. Baina ez zen erraza egoera hura jasatea. Batetik Olatzen ihes depresiboa, nolabait berak eta bere erru guztizkoz probokatu zuena, eta bestetik tanatorioetarako DJ bokazioa zuen Pataki madarikatu hura. Gauzak unez une okertzenago zeuden. Bihozkada batek jota, komunaren gainean zutik jarri eta leihoko zirrikitutik –gazteluetako gezi-jaurtitzailearen zirrikitua zirudien leihoa baino areago– begiratu zuen. Aspaldi hartan bertan egon zen Ford Mondeo beltza ez zegoen han. Orduan aitortu zion lehen aldiz bere buruari ikararen sentimendua, komuneko katiluaren gainean zutik zegoela. Mugimendu fisiko bat behar izan zuen bere buruari beldurtuta zegoela aitortzeko. Belaunen dardara bat, hain zuzen.

Gauzak ez ziren ari berak pentsatu bezala gertatzen, eta zerbaitek eskuetatik ihes egin ote zion iruditu zitzaion.

Arma

Jendeak dioenean «barkatzen dut, baina ez dut ahazten» zer ari da esaten? Ez duela barkatzen.
Roger Wolfe

Olatzekin edo Olatz gabe, hura egin beharra zegoen. Zenbait gauza ezin ziren atzeratu.

Uler zezakeen. Jakina, ekintza hura ohiko armekin ez egitea ez zen gutizia bat. Erakundeak bere arrazoiak zituen. Efektibo minimoekin ahalik eta sendotasun itxurarik handiena ematea. Lana garbi eginez gero, egun batzuetan bederen, komando berri baten agerpentzat jo zezaketen ekintza haren ondorioa. Jakina, guztiak zuen bere azalpen logikoa. Baina arriskua handiegia iruditzen zitzaion oraingoan. Durangora autoz joan eta han armak jaso. Gizatxartzeko modukoa zen, nora eta Durangora. Baina egin beharra zegoen. Goizeko zazpietan atera zen. Bakarrik egingo zuen bidaia. Une batez Pataki berekin ez ekarri izanaz damutu zen. Akaso edukiko zuen jatorrizko soinu bandaren bat une hartarako ere. Ziur baietz. Baina ez, nahiago zuen bakarrik eta

isiltasunean gidatu, putzuen zarata lasaigarria zitzaion neumatikoen pean. Durangoraino arazorik gabe heldu zen eta baita esandako garajera ere. Gofi zain zegoen. Zapata kaxa bat zeukan eskuen artean.

– Nola doa dena Marta?

– Itzel, nola joango da ba. Itzel. Hemen al daude? –gi zatxartuta jarraitzen zuen. Aspaldiko istorio batez geroztik Gofi gantz-poltsa hura ez zuen batere gustuko.

– Zapatak zure neurrikoak izatea espero dut –Gofik irribarre egin zion bere ustezko grazia merkeari. Martak kopilotuaren aulkian jarri zuen zapata kaxa eta gero zigarro bat piztu zuen, lehenbailehen handik alde egiteko gogo biziz, lau hatzez oratzen zuela zigarroa, kea ausiki ahala espiralean botaz–. Kontuz ibili beharko zenuke zigarroekin, eder hori, azken bolada honetan mikrofonoak zigarro filtroetan jartzen dituztela entzun dut.

– Ez nazazu izorra, Gofi, ez nazazu izorra. Egidazu mesede hori.

– Ez diot txantxetan, Marta. Egia omen da.

– Baina zer uste duzue? Zuek, ematen du, ematen du dena dakizuela joder. Aterpean zaudete egun guztian behintzat eta gero aholkuak ematen, joder –Gofik begirada beheratu zuen.

– Guk ere hartzen ditugu gure arriskuak, Marta. Denok gaude ontzi berean.

– Ja, bai zera ontzi berean! Baita zera ere. Esango dizut nik zein ontzitan zauden zu: enpresa alu horretan turkiarrei saltzeko armak egiten dituztenen barkuan zaude, zu ere engranajearen zati bat zara, gu bezain biolento eta hiltzaile, baina kontzientzia lasai demonio duzu lan zikina guk egiten dugulako.

– Ez nahastu gauzak, Marta. Nekatuta ikusten zaitut, ez nuke zutaz kezkatu behar, baina... Zer uste duzu, niretzat erraza izan dela merkantzia lortzea?

– Armetan lan egiten duzu, ezta?

– Ederki, ederki, nahi duzuna. Eztabaida honek ez du zentzurik –Marta auto barruan zegoen jada eta motorraren giltza biratu berri zuen–. Ez dira berri-berriak baina bai oso labealdi onekoak. Ez dituzu ikusi nahi?

– Itzel. Ez zaidazu esan. Orain erreklamazio zerbitzua ere badaukazue? Ez, eskerrik asko, fidatzen naiz oraindik.

Garajeko atea emeki-emeki ireki zen eta autoa, garajean bira eman ondoren, pabilioietan barne galdu zen, euripean.

Ez zituen bere zangoak sentitu ere egiten. Hipnotizatuta balego legez zihoan pasillo argitsuan barna. Bai, filmetan bezala zen. Kamara frigorifiko zilarreztatu eta aseptikoak han eta hemen, haragi fresko eta hilberria ezkutatuz. Harritu egin zuen inolako kontrolik pasa gabe gorpu biltegira nola heldu zen ikusteak. Egia esan, berdin zion. Zer gerta zitekeen? Haiek hilda zeuden. Biltegiko gela handi batean, mahai batean lerraturik, bi hilotz ikusi zituen ilunpean abandonaturik. Hilotz bat abandonaturik egotea posible ote zen otu zitzaion, eta kontrakoa posible ote zen, benetan, posible ote zen hilotz batez egokiro arduratzea. Arnasa sakonki hartu eta izara kendu zion aurpegitik lehenengoari: ez zen bere anaia, baina hala balitz bezain inpresio handia egin zion. Metalezko harraskan erretako erretratua,

bera zen, Egiako etxebizitza hartan tirokatu zuten gizona, begiak itxita eta lokian hariz ongi jositako zulo bat zuela. Hotzikara pairaezin baten mende, izaraz aurpegia estali zion. Arnasa hartzeko segundo batzuk behar izan zituen bigarren gorpuaren aurpegitik izara apartatzeko adorea bildu aurretik. Hura bai, hura bere anaia zen. Hainbeste denbora hura ikusi gabe eta nork esan behar zion ezkutuan ikusi beharko zuenik, ez bere anaia, bere anaiaz geratzen zena baizik, non eta ohatila metaliko batean etzana? Lo zirudien eta bere buruarekin lasai. Baina hilda zegoen, jainkoarren, zaila egiten zitzaion sinestea. Bi ebakiondo handi zituen aurpegian. Kopetan musu bat eman eta malkoei doi-doian eusten ziela, aurpegia estali zion berriro. Zorabiatu eta lurrera erortzear egon zen.

Oin hotsak entzuten zituen beraganantz hurbiltzen. Gutxigatik lortu zuen erratz, garbikari, plastikozko lorez eta lorontzi zikinez betetako apalategiz mukuru zegoen gelatxo ilun hartan ezkutatzea. Atearen argi zirrikitutik begiratu zuen. Bi ertzain ziren, uniformez jantziak. Pausoak urrun zirela sentitu zuenean, kanpora atera

zen berriro ere. Jada ikus zezakeen ospitalearen kanpoaldeko lorategia, sahats baxu haiek. Arriskutik ihes egiteko gero eta gutxiago falta zitzaion, alboko gela batetik amets batetik ateratako elkarrizketa zati bat entzun zuenean.

– Bakarrik gaudek, moja eta marinela bezala.

Komun batetik zetorren ahotsa. Bi gizonezko ari ziren elkarri hitz egiten. Polizia judizialekoak izan behar zuten. Dagoeneko begien bistan zeukan kanpoko atea ahaztuta, supituki bere pausoa ainguratu eta komuneko atearen parean geratu zen, elkarrizketaren aiduru.

– Bakarrik gaudek, moja eta marinela bezala.

Bi aldiz entzun zuen edo agian bigarrena oihartzuna izan zen. Baina egia zen. Benetako hitzak. Ez zen bere irudimena, ez zen amesgaizto bat ere.

– Moja eta marinela?

Oraindik ezin zuen sinetsi.

– Gurekin lan egiten zian batek esan ohi zian zerbait duk. Medikuntza ikasten jardun huen Ertzaintzara sartu aurretik. Tipo argia zuan eta zera kontatu ziguan, fakultatean bi gorpu erabiltzen zituztela laboratorioko praktikak egiteko,

eta urtez urte bi gorpu berberak zirela mila medikuntza ikasle promozio ezberdinek bisturia sartu zietenak. Erabat higatuak eta desitxuratuak zeuden hilotz haiek, jakina. Anatomia klaseek galdatzen zuten bezala, emakume baten eta gizonezko baten gorpuak ziren; moja baten eta marinel baten hilotzak, berak kontatzen zuenez. Inork ez zituen erreklamatu bide eta tanatorioak unibertsitateari eskaini zizkion ikasleek erabil zitzaten. Ofizio bakartia diagu guk ere, baina hauena ere halakoa, nonbait. Aspaldi galdu nioan arrastoa tipo hari. KGBkoekin ari ote huen edo. Martxelo uste diat izena ziala. Bai, gogoan diat, Martxelo Negro. Argia huen. Argiegia polizia izateko.

Korrika atera zen Olatz ospitaleko lorategiko atetik eta haize hotzak parez pare jo zion begietan eta sudurrean, pentsatzea bera ere galarazten zion hotzikara batekin.

Irreala zen dena, eta zain geratu zen segundo batzuez, mugitzeko ere ezgauza. Lokamutsetik esnatzea espero zuen, edo gutxienez beste zerbait gertatzea, begiak ireki eta bere burua dena amets bat zela adieraziko zion paraje alda-

kor batean aurkitzea. Ez zen ordea halakorik gertatu.

Pasaiarantz abiatu zen, harantz gidatzen zuen indarra zein ote zen oso ondo jakin gabe.

Cesar Telleriak garbi zekien bi motatako gizonezkoak direla neskaz mozorrotzea gustatzen zaienak. Beren sexu izaerarekin gustura ez zeudenak ziren batzuk, emakume izan nahi luketenak eta emakumearen azalpean gusturago sentitzen direnak. Besteak ordea, gizonezko bakartiak ziren, esperientzia zapuztuez nazkatu eta beren burua bera panpina puzgarri horietako bat bezala erabiltzen zutenak, ohean bakarrik egon beharrean emakume batekin zeudelakora jolastuz, nork bere burua biluztean emakume bat biluzten ari zirela imajinatu eta bi rolak tartekatzen zituzten gizonezkoak, alegia. Bera bigarren talde horretakoa zen: emakumez mozorrotu izan zenetan bere sekretu guztiak ezagutzen zituen emakume perfektuaren bila egin izan zuen, eta komisariako psikologoak uste izan zuenaren kontra, horrek ez zeukan inolako zerikusirik eskizofreniarekin. Jolasa zen eta bera gai zen kontro-

latzeko. Veronica bezala ezagutzen zuen emakumearen argazkia hartu eta bere antz apur bat zuela iruditu zitzaion. Gerrikoa galtzetatik atera eta gerriaren goialdean estu lotu zuen zilueta femeninoaren aztarrenen bat topatu nahian.

Gero ordea, egiten ari zenaz lotsatu eta Cutty Shark botila bat bilatu zuen ohepean. Bart gehiegi edan zuen eta lehen whisky txorrotadak, kosk egin berri zion zakurraren ilajearen zaporea zuela iruditu zitzaion.

Bigarren dzangada askoz hobeto sartu zitzaion.

Pataki kanpoan zen norbaitek atea jo zuenean. Martak, ateko zulotxotik begiratu zuen ireki aurretik, Pataki izango zen ustea zuen arren. Gero, harriduraz asaldatuta burua bortizki atzeratu zuen, atea ireki aurretik.

– Baina jakin al daiteke non ibili haizen Olatz? Atxilotu egin hindutela uste geninan!

– Ez al dituzue egunkariak irakurri, jainkoarren!

Marta erabat astinduta geratu zen, Olatzen anaiaren heriotzaren berri ematen zuen berria-

gatik adina, Olatzek zuen aurpegi nekatu bezain orekatuagatik. Astebete negarrez igaro ondoren edukitzen diren begiak zituen. Argitasun une berezi baten barruan bizi balitz bezala. Heriotzatik itzuli zenaren aurpegi abaildua zeukan, bai, Martak orduan garbi ikusi zuen. Baina ez zeraman astebete negarrez, horixe zen ezberdintasuna eta horixe egoera erabat aldatzen zuena. Olatz gidariaren atzean beste Olatz bat ezkutatzen zen, ordura arte azaleratu ez zena.

Elkar besarkatu zuten. Olatzek ordea, berehala, apartatzeko keinua egin zuen, kezkati, bere sorbalda imintzioa –etengabe zerbaitegatik barkamena eskatzen duenaren keinua– begien aurreko ilea apartatzen zuen esku keinuarekin lagunduz. Ahots leizatu eta isilaz mintzo zen.

– Bazegon beste zerbait ere. Non zegon Pataki?

– Autora joan dun. Laster izango dun hemen.

– Ni ez nindunake hain ziur egongo.

– Zer esan nahi dun?

– Ez zain batere gustatuko, Marta, batere ez.

Azaroko azken egunak ziren. Pabilioiko atea zeharkatu bezain pronto, ihesari ekitekotan egon zen Laranja Mekanikoa, atea zaintzen zuena Roberto ez zela ikustean.

– Ez hadi kezkatu –oihu egin zion zakur tratanteetako batek–. Alain duk Robertoren ordezkoa.

Alainek agur keinu lakar bat egin zion, nik ere nahiago nikek beste nonbait egon, berehala ulertu zuen Laranja Mekanikoak keinuaren esanahia. Hura ere txakurra zen. Igarri egiten zitzaien, ezin zuten ezkutatu. Ez zen zorri-atzemangailuen premiarik, ez horixe. Zigarroak itzaltzeko era bera ere, txakurrarena zuen.

Ordurako bi zakurrak –benetakoak hauek, edo agian ez hain benetakoak, hori ikusteko zegoen– pabilioi barruko metalezko mahai banatan jarrita zeuzkaten eta piztiak mangeraz garbitzen ari ziren, azala substantzia loarazleren batekin igurtzi baliete ere, badaezpada. Huraxe zen amarruetako bat: txakur ahulenaren azala gai loarazleaz espraiatu, beste zakurrak kosk egiten zion orduko lelotu eta bertan zerraldo eror zedin, nerbioak erabat anestesiatuta. Zakur hauetako

batzuk lau hilabeteko kumeak zirenetik entrenatzen zituzten beste zakurren kontra borrokaraziz. Borrokek luze irauten zuten sarritan, ordu t'erdi ere bai kasurik muturrekoenetan, eta askotan hilda bukatzen zuen zakur galtzaileak. Zakurrak jabearekin gurutzatzen zuen begiradaren bat lantzean behin. Tira, ez nazazu gaizki utzi, ez etsi, ekin gogor, eraso Elur, eraso, ez zaidazu huts egin. Eta jabea bere ondoan zeukan zakurrak, zeukan guztia ematen zuen. Bizirik baina berriro borrokatzeko ezgauza geratzen zirenak badia ilunera botatzen zituzten burdina puska bat lepora lotuta, edo tiro batez errematatzen zituzten pabilioitik kanpora arrastaka aterarazi ondoren. Kasurik onenean, tailer mekaniko bateko zaindari bezala bukatuko zuten, burua galduta.

Laranja Mekanikoarentzat bigarren aldia izan arren, ez zen erraza hartara ohitzea. Bi zakur amorratuak hedeetatik eutsiz pintura gorriz margoturiko zirkuluaren erdira gidatu zituztenean, Alainen keinuari itxaron zioten zakurrak askatu aurretik. Gero etortzen zena okagarri samarra iruditzen zitzaion Laranja Mekanikoari. Sekula inori aitortuko ez ziokeen arren, nahiago zuen gi-

zaki bat lurperatu, bere burua zakur bat lurperatzeko atakan aurkitzea baino, kasurik gehienetan. Alainek ordea, disfrutatu egiten zuela zirudien. Apustugileak berriz, gizajo jendea ziren, gutxik zuten esperientzia hura errepikatzeko itxura; beren bizitzarekin zer egin jakin ez, eta emozio berriak agindu zaizkien ludopata aspertuak besterik ez ziren gehienak. Pena pixka bat ematen zuten. Baina beraiena zen errua, dirua hain era hutsalean arriskatzeagatik.

Ospela zen pabilioi barruko giroa. Laranja Mekanikoa, nabearen erdialdea utzi eta Pasaiako portu osoa ikusmiratzen zeneko leiho hautsira inguratu zen. Hotza sartzen zen handik baina ez zegoen leiho hura ixteko modurik. Horrek bere onetik atera zuen, bere buruan ere zerbait itxi ezinik bailegoen. Portuan ainguraturik zegoen karramarroen ontzi hori erraldoia. Handik minutu gutxira, biratu zenerako, Alain bakarrik geratzen zen nabean eta argiak itzaltzen ari ziren. Pinturaz margoturiko zirkuluaren barruan hildako zakur bat zetzan, eta hain zegoen egoera penagarrian, Laranja Mekanikoa ez baitzen lehiatu

ziren bi zakurretarik zein ote zen asmatzeko gai izan.

– Hi, mozolo, har ezak piztia gaixo hau eta desagerrarazi ahal duan lekuan. Desagerrarazi esan diat, ez ezak edozein bazterretan utzi.

Alainek sobre bat atera zuen txalekuaren barruko patrikatik, eta hamar milako sorta gizenetik bost billete apartatu zituen Laranja Mekanikoari luzatuz, deskartaturiko karta parea mahai gainera botatzen duen muslariaren keinu utziaz.

Laranja Mekanikoak zaku batean sartu zuen zakurra eta bere autoko maleterora irauli ondoren, Astigarragako errepidea hartu zuen. Mendiko bidezidor batean barneratu eta zuhaitz baten ondoko lurra zulatu zuen, zakurra zaku eta guzti zulora botaz. Lur zulatu berria estaltzeko sasi bila joan zenean, azken zakurra lurperatzeko erabili zuen kobazulo ttikiaren paretik igaro zen. Zakurraren izena idatzita zeukan domina bat zegoen kobazulo parean: *Platon*. Boladan zegoen nonbait, zakurrei filosofoen izenak jartzea. Poltsikoratu egin zuen, zer gerta ere. Platon, kobazuloan lurperatua, barregarria iruditu zitzaion kointzidentzia.

Autoan sartu eta osteguna zenez, Young Play dantzatokirantz joatea erabaki zuen, oraindik zerbait egongo zelakoan.

Dantzatokira iritsi zenean kontzertu bat zegoena ohartu zen. Hura bai nobedadea, musikari bati ordaintzea, halako lokalen jabeak ohi ziren zuhur demonioekin. Tronpeta-jole beltz xahar bat zen, ez zegoen ordea jende gehiegi hari begira. Aurreko ostegunetan baino are jende gutxiago zegoen. Barrara hurbildu zen.

– Nor arraio duk hau?

– Ona duk oso, ezta?

– Kultuzkoa baduk behintzat, inork ez ziok eta kasu zipitzik egiten.

– Bob Ieregi izena dik, amerikarra. Honekin ordea ez diagu egingo negozio handiegirik. Eskerrak laster boxeo konbate bat duguna.

– Boxeoa? Um, horrek itxura hobea zeukak.

– Errenteriako tipo gazte bat, berria, bere debuta egingo dik hemen Jimmy Sánchez Kolirioren aurka. Kanela fina, txo. Zer nahi duk edateko?

– Atera iezadak gintonic bat, ze arraio.

– Hire kontuan apuntatuko diat hau ere?

Laranja Mekanikoak hamar milako bat atera zuen patrikatik.

– Nire kontuan, bai. Gaur kitatuko dudan kontu horretantxe.

– Arraioa, beldurra ematen didak diru freskoa daukaan guztietan! Enpresari sartu al haiz?

– Nolabait, aixkide. Hik ezagutzen nauk pixka bat. *Free-lance* bat nauk ni, badakik.

– *Free-lance!* Non ikasi duk hitz hori, Lar?

Laranja Mekanikoak ez zion burlaizea zerion galdera zirikatzaile hari erantzun. Barran zegoena sozioetako bat zen –hura bai, benetako enpresaria– eta hamar milakoa atzera bueltatzeko keinua egin zuenean seko harritu zen Laranja Mekanikoa.

– Gorde diru hori.

– Orain niri ematen zidak beldurra hire begirada horrek... Ezagutzen haut hainbeste eta bazekiat ez duala sekula musutruk zorrik barkatu. Zer eskatzen didak horren truke?

– Gauza berezirik ez: boxeorako bi zaku behar ditiagu, harez beteta dauden erraldoi horietakoak, boxeolariak aldageletan berotu daitezen. Borroka serioa egin behar diagu eta federa-

zioak eskatzen dituen kakazahar guztiak bete behar ditiagu. Kristoren ipurdiko mina ematen dik federazioetako jende honek. Pasaiako boxeo klubetik inguratuko al hituzke zaku pare bat?

– Hori besterik ez baduk, egintzat jo dezakek.

Gintonica tragoz agortu eta barraren bestaldekoa agurtu zuen. Zakuz zaku zebilen aspaldian. Bateko *diamantez* betetako zakuak eta orain boxeokoak. Zakudun gizonaren edo Sakamantekasen antza ari ote zen hartzen? Dantzatokiko atea zeharkatu aurretik eszenatokian jotzen ari zen tronpeta-jolearekin begirada bat gurutzatu zuen. Hain leku kakatsuan jotzeko onegia zela iruditu zitzaion eta hala adierazi nahi izan zion begiradaz. Eszenatokikoak ulertu egin zuela zirudien, irribarre antzeko batekin erantzun baitzion Laranja Mekanikoari.

Agure gizajoa, otu zitzaion parkinera atera ahala. Opari galanta egin berri zion berak tronpeta-joleari miresmen faltsuzko begirada ustel eta itxurazko harekin. Eguneko ekintza ona egin ondoren lasai ohera zitekeen. Ez, bere negozioak zakuekin lotura izan arren, ezin zen Sakaman-

tekas izan. Bihotz zabalegia zuen horretarako. Olentzero edo izan behar zuen, derrigor.

Barre egin zuen bere burutazioarekin, parkineko auto baten kristalera tu eginez, begigorri, non harrapatu dek arrain hori.

Gaueroko kontua bihurtu zen bere etxe pareko bikotearen zelata. Cutty Shark txorrotada, tabakoa eta largabistak, ordena berean beti. Sekula ez zuen ez emakumearen eta ez gizonezkoaren aurpegia ongi bereizterik lortu, horretan eginahalak egiten zituen arren. Emakumea zen bereziki jarraitzen eta behatzen zuena. Bizkarretik eta biluzik ikusten zuen bere gerriaren kurba aldakorra. Gizonezkoa beranduxeago iristen zen beti, eta erituala beti zen berdina. Gizonezko biluzia gelara sartu eta argiak itzaltzen zituzten. Gero, bikotearen zango korapilatuak eta joanetorrikoa zen giharren tentsioa besterik ez. Izararik gabe lokartzen ziren lau zango eta Cesarrek bere leihoko markoan itzalarazten zuen zigarrokin baten errautsa, ordena horretan. Leihoko markoa beltzunez eta erreduraz josita zegoen.

Amorruz amatatzen zituen zigarroaren labezomorroak leihoko egurraren kontra, marko hartan preso balego legez, marko hura erretratu batena bailitzan. Bera argazkiaren barruan harrapatuta balego bezala.

Agian bere buruaz behin-betiko ahaztaraziko zuen emakumearen bila zebilen. Bera zen fisonomista nardagarri hura despistatu eta zelatatzen zuen emakume horren baitan errenkarnatzea posible izatea desiratzen zuen Cesar Telleriak.

Pasaia sutan zegoen. Inoren heriotzak aspaldiko hilabeteetan ez bezala, Koldo Lopez gaztearen hilketak goitik behera astindu zuen herria. Ohikoan hain epel jokatzen zuten egunkariek ere ez zuten heriotza haren aurrean ezentzunarena egiterik izan. Greba orokorra, barrikadak nonahi, autobusak eta autoak sutan. Txikizioak edonon. Eta Cioranek behin esan zuen bezala, suntsipena ekintza zen, zerbait egitea, korrontearen aurka sortzea, era berezi batez bazen ere, existitzen zenarekiko elkartasuna erakutsi eta azaleratzea. Gorpua arratsalde hartan ekarriko zuten Donos-

tiara familiak eskatutako autopsia egiteko. Politikariak ere zipriztindu zituen kasuak eta galeriara begira behintzat, hiruzpalau buru erori ziren, haien artean Bilbon bere espedienteak arrasto ilunak utzi eta urtebete lehenago Donostiara aldatu zuten Roberto Goaza komisario-burua, Koldo Lopezen heriotzaren egunean bertan Brievako kartzelan izan zena.

Alain Lizarragak, bere bigarrenak hartu zuen postutik apartatutako komisarioaren lekua. Bere izena ez zuten nonbait, kartzela bisitatu zutenen zerrendan apuntatu.

Inorentzat izatekotan, Cesar Telleriarentzat dexente aldatzen zituen horrek gauzak. Robertok berekiko zuen konfiantza eta begirunerik ez zuen inolaz ere aurkituko Alainengan. Haien arteko harremanak beti izan ziren hotzak, eta Alain bera, KGB barruan Cesarren fisonomista zerbitzu bereziak martxan jartzearen kontra sutsuen agertu zenetakoa izan zen, bere garaian. Cesarrek beti uste izan zuen Alain bere frakaso edo irristadaren baten zain zegoela aspaldi, bere tesiak berpiztuko zituen aukera ttikienaren bila. Gorroto zion, Robertoren laguntzailea izatean

bere gorrotoa ezkutatzen saiatzen zen arren. Alain buruzagi izendatu izanak areagotu egiten zuen Pasaian zeraman denboran ezer lortu ez izanak sorrarazten zion antsietatea.

Telebista piztu zuen guztia apur bat ahaztu nahian. *Bend of the river* western ezaguna ari ziren botatzen. Kanpamentua, kalesak eta su izekia errekazulo isilean egon arren, James Stewart eta bere lagunak errekazuloaren gorenean ezkutatuta daude, eta goialde babestu honetatik otsoaren eztarrian sartu berri diren zaldizko pertsekutatzaileak –Hendrix izeneko bat buru dutela– tirokatu egiten dituzte. Segizioa osatzen dutenak hogeita hamarretik gora dira ordea, eta James Stewartek tiroketa geratzeko agindua ematen du, zaldizko pertsekutatzaile koitaduek iheserako bidea hartu bezain pronto.

«Bizkor, atera gaitezen hemendik!».

«Nahikoa daukate, utz iezaiezue ihes egiten».

«Zergatik baina? Zergatik?».

«Zeure kabuz zergatia ez badakizu, nik ezin dizut erakutsi».

James Stewart eta bere kideak errekazulora jaitsi eta Hendrixen gorpuari so egiten diote.

«Lastima da, mutiko ona zirudien».

«Hala izan zen, urrea aurkitu zuten arte».

Pataki kafea hartzen ari zen, Marta ohikoan baino goizago bueltatu zenean.

– Giro ona zegon gaur korri egiteko, ala?

– Ez zekiat ba. Gaur beste lan batean ibili nauk.

– Zein beste lan? –harritu egin zen Pataki, bere azturak nekez aldatzen zituen Martak diziplina hautsi izanagatik hain ezaxolati ikusteaz.

– Bilera batean izan nauk. Hau ez nikek esan behar, baina bihar goizeko zortzietan Madril erdierdian lehertzekoa duten lehergailu baten berri izan diat. Dinamitazo galanta, ziurra duk hori. Gure eginbeharrak atzeratu egingo ditik horrek. Bide batez... egunkariak erostea ahaztu zaidak, Pataki, jaitsiko al haiz herori? Hala haize pixka bat hartuko duk, zurbil samar hago aspaldi honetan. Gaur giro ona zegok paseatzeko, arrazoi huen horretan.

Zapatak jantzi eta kalera irten zen Pataki. Olatzek ezker oinaz atea bultza zuen, erabakior. Elkarrizketa guztia entzuna zuen atearen bestaldetik. Kaleko jantziarekin zegoen jada. Biak atera ziren Patakiren atzetik. Ezkaratzeko atea hersten sentitu zutenean, korrika batean jaitsi zituzten eskailerak, bata bestearen segidan, zaratatsu, arrapaladan.

Zumardian, Bahia Hostalaren inguruan zegoen telefono kabina baterantz zuzendu zen Pataki, presaka. Martak begirada azkar bat bota zion Olatzi.

– Ito nadila demonio putzuan! Arrazoi huen! Berun eta guzti irentsi dinagu amua.

– Ederra sakatu zigunan ia.

Etxera itzuli ziren gero, eta egun hartakoagatik, antzerkiarekin aurrera jarraitzea erabaki zuten. Hurrengo goizean, Pataki izan zen esnatzen lehena. Hamaikak paseak ziren eta hatza dialean jarrita –egunak aurrera eta atzera pasarazteko ahalmena duela dirudien dialarekin kontuz– irratiari adi zegoen. Ez zen dinamitazorik izan, ez Madrilen eta ez beste inon. Atxiloketen berririk ere ez zen. Irratia itzali zuen urduri, eta

lepoa biratu zuenean, metal hotzaren kontaktua sumatu zuen kolkoan.

– Gihar bat ere ez. Izan sator ona eta ez atera zulotik. Ez esan ezer, mesedez. Gauzak nahikoa nahastu dituk dagoeneko, *Martxelo*.

Oraingoan argiak zauritu egiten zuen begirada. Patakiren ile adats beltz eta luzea ezpainen artean pilatzen zen, ahoa kiribiltzen zion zinta aislantez inguratua. Eskuak loturik zituen bizkarrean eta aulki batean eserita zegoen –teknikoki ez da egokia eserita zegoela esatea, halabeharrez baitzegoen hala– hankak ere zinta aislantez eta desegindako pertxa kateatuen alanbrez estekaturik, oinak bata bestera bilduta.

– Begiak estali beharko genizkiokeela uste al dun?

– Ez. Utz ezan horrela. Nahikoa izango dun.

Martak telefonoa hartu eta hankartean ezarri zion Patakiri, kolpe lehor batez. Pataki, kordel estuek uzten zioten doia makurtu zen kolpearekin. Bere ahotik ez zen ordea ez hitz erdi ez oihu ttikienik ere atera. Marta belaunen gainean eseri zitzaion. Errebolberra esku artean zeukan eta

jostari erabiltzen zuen, kargatu eta Patakiren kokotsetik zilborreraino eramanez, pistolaren kanoia Patakiren azal eta arropen gainean emeki irristatuz. Olatz Pataki lotuta zegoen aulkiaren atzean zegoen zutik. Olatzek eta Patakik begirada bat trukatu zuten, baina trukatu bakarrik, dagoeneko ez zuten konpartitzen.

Ahoko mozala une batez kendu zion Martak.

– Ez diat ukatuko sator lan ona egin duanik. Nahikoa urrun heldu haiz. Baina honezkero jakin behar huke gure funtzionamenduaren arabera ezinezkoa dela nik Madrilgo ekintza baten berri izatea. Akats barkaezina hire aldetik. Xalo ibili haiz hor, aixkide. Baduk zerbait esateko?

– Deus ez, zoritxarrez, egoera hau alda dezakeenik.

Berriro bozatu zion ahoa. Pertxazko alanbrea lepoaren inguruan lotu zion Martak, Patakik arnasa hartzeari utzi zion arte. Pastazko betaurrekoak soinean zituen artean, eta kristal zikinaren bestaldean, begiak irekita zituela ematen zuen. Hildako pausatu eta lasaia zen. Ez zuten beste aukerarik izan. Denbora irabazteko, exekutatutakoa desagerraraztea zen hurrengo pausoa.

Ez zen hitzik egon haien artean. Olatz leihotik begira zegoen, malkoei eutsi nahiko balie bezala. Haien egunak, han, Pasaian, atzerakako zenbaketa bat ziren. Litekeena zen, honezkero, apartamentua inguratuta edukitzea ere. Zain zuten zelda hutsak ihesezina zirudien, unetik unera gertuago zegoen iturriko itogina, aulkia, Gela Zebratua.

Olatzek hautsi zuen isilunea.

– Ez dakit erakundekoek honen berri balute zer...

– Honen berri izango dute, izan behar dutenean.

– Zer egingo dugu orain?

– Ezagutzen dut nik bide bat.

Telebista piztuta egonagatik ahotsa kenduta zeukan. *Chinatown* filma ari ziren ematen eta Jack Nicholson telefonoz mintzatzen zen une hartan bere bulegotik. Ahotsa kenduta baitzegoen, ez zuten telefonozko elkarrizketa entzuterik izan.

«Bakarrik zaude?» galdegiten du telefonoaren bestaldeko emakumeak. Jack Nicholson ez

dago bakarrik, bere kidea ondoko mahaian baitago. Halere, zera erantzuten du:

«Eta zein ez?».

Goizeko seiak inguru ziren eta karramarroen ontzi horiak han zerraien. Pasaiako garabiek ikusmira ezin ederragoa eskaintzen zuten behelainoaren artetik. Ontzien izenei so egin zien: *Flinterzul - Finland*, *African Gardenia - Monrovia*, eta guztien artean bereziena iruditu zitzaiona: *Senokozulua - Pasajes*. Senoko zuloa, hara bueltatu eta handik ez ateratzeko gogo instintiboa. Itsasontzi batentzat izen egokia.

Pasai Donibanerako txaluparik ez zegoen artean, pabilioietako komun abandonatuetan Martak atea jo zuenean. Atea poliki ireki zen, Martaren hatz hezurtsuen kolpe leunekin bakarrik. Goiztiar aguretu den gizaseme horietako bat, espantu aurpegiarekin esnatu zen bat-batean, lurra jergoi hartuta zuen loalditik.

– Zu zara eta! Arranopola! Zelako sustoa. Portuko zaindariren bat zelakoan nengoen. Garitetako pikoloak aspertu eta harat honat ibiltzen

dira aspaldi honetan, haize boladak jota... Zertan zabiltza hemen ordu hauetan?

– Zera, pasieran. Zer iruditzen zaizu? Mesede bat eskatzera natorkizu. Oso garrantzitsua da guretzat.

– Et, et, et... Nor da *gu*? Hartzen diot kiratsa eskatu behar didazun mesede horri, eta ondotxo dakizu nik zer pentsatzen dudan era horretako mesedeei buruz. Zoaz popatik, neska. Ni txatarra tratante bat besterik ez naiz.

– Benetan? Azken aldi honetan beste negozioetan ere bazabiltzala entzun dut. Ulertzen ez dudana da nolatan jarraitzen duzun zulo zikin honetan bizitzen.

– Hori ez da zure kontua, neskatxa.

– Berrehun musker ordainduko dizkizut.

Gizasemeak baldosa apurtuz betetako hormari begiratu zion eta gero zoruari. Hiruzpalau zakur madarikatu harrapatu behar zituen igualeko kopurua lortzeko. Baiezkoa adierazten zuen zizpuru etsitu baten ondoren lotu zitzaion, ostera ere, mintzoari.

– Nor da oraingoan?

– Sator bat. Kabroi horrek denok engainatuta eduki gaitu. Ezin dugu armairuan gorde, ulertuko duzun moduan.

– Sator batek ez du momia baten adinako estimaziorik, ezta? Leninen garrantzia historikorik ere ez, nonbait! Entzun al duzu azkazalak hazi egiten zaizkiola oraindik? –kar-kar batean barrez eta hortz zikinak erakutsiz mintzo zen. Bere ahoak bazuen portuko pabilioi abandonatuen antza: horma eroriak, falta diren hormak, horma batetik besterako koska irregularrak. Mundu ttikiak zeuden, mundu handiagoen baitan, eta istorio guztiak ziren antzekoak, miseria ttikiak miseria handiagoen baitan.

– Mesedez, Lar, ez da txantxetarako garaia.

– Ongi da, ongi da. Zeuen buruez apur bat gehiago barre egingo bazenute... Tira, gaur gauean pasatuko naiz, nire kontu. Zazpietan, ohiko lekuan. Dirua prest eduki, besterik ez.

– Argi ibili, Lar. Lan hau ez da besteetan bezalakoa. Pagamendua ere ez, ohartuko zinen moduan.

– Ez zara orain nitaz mesfidatzen hasiko, ezta?

– Beste aukerarik geratzen al zait?

– Badakizu zergatik deitzen didaten Laranja Mekanikoa?

– Ideiarik ere ez, Lar.

– Istorio luzea da, baina egunen batean kontatuko dizut.

Handiustea. Diruagatik edozer gauza, Leviatan ttiki hark. Horixe bazekiela zergatik deitzen zioten Laranja Mekanikoa. Bera zen itoak sekula gehiago ur azalera ez azaltzeko moduan non eta nola bota behar izaten diren zekien bakarra. Zurrumurruek ziotenez, aspaldiko urteetan Pasai Donibanetik gertu erdi urperatuta zegoen ontzi laranja herdoildu baten sotoa zen infernurako lasterbidea.

Juan Perro zen Laranja Mekanikoak Pasaiako boxeo klubean zeukan konfiantzazko pertsona. Diamante lapurretatik ezagutzen zuen. Ez zuen batere arazorik izan boxeo zakuak maileguan hartzeko. Entrenamenduetarako erabili ez, eta soto batean bazterturik zeuzkaten parea utzi zion. Laranja Mekanikoa, bere autoan justu antzean sartzen ziren bi boxeo zakuak hartu eta

arratsalde hartako zakur-borrokara zuzendu zen. Lehenbizi ordea, geldialditxoa egin zuen Martarekin geratu zen iltze fabrika abandonatuaren barruan. Hiru pardel gehiegi zirelakoan, boxeo zakuetako bat hondarrez hustu eta satorraren zerraldoa bertan ezkutatzea erabaki zuen. Borroka bukatzen zenean, berun apur bat lotu eta zaku biak botako zituen uretara.

Roberto izan zen iristen azkena. Laranja Mekanikoaren alboan jarri zen, apustuak egiten zituzten dozena erdi pertsonekiko aurrez aurre.

Betiko rutina zen. Zakur galtzailea hartu eta ezkutatu beharra. Ez zitzaion ordea zakurkina autoan sartzen, boxeoko zakuak atzeko eserlekua eta maletero osoa okupatuz, bertan zeudenez. Arraioa. Eskatzen zion jende guztiari mesedeak egiteagatik gertatzen zitzaion hori. Zakuetako bat hartu zuen –bestea ezin, nahita ere– eta barruan zuen hondarraren erdia hustu egin zuen. Gero, zakurra zakura sartu zuen. Zerraldo portatilak ziren zaku haiek. Orain bidean kontrolik ez egoteko errezatu beharra zeukan. Bolada hartan errepide guztiak hartuta zeuzkaten.

Autora sartzear zela Robertok uju egin zion.

– Ez zaidak esan boxeozalea haizenik. Nora hoa hi ordu honetan bi punching zaku horiek hartuta?

Laranja Mekanikoak ezin izan zuen hasieran urduritasuna ezkutatu. Baina Robertok ez zekien ezer. Ezin zezakeen deus jakin.

– Young Playra noak, ostiraleko konbaterako behar ditiztek zakuak.

– Ez zaidak esan, hau kasualidadea! Sarrerak zeuzkaat eta konbate horretarako!

Entzunda zeukan bai, Ertzaintzako komisarioa boxeozalea ote zen. Halako jendeari gustatzen zaio nonbait, mutur joka dabiltzan bakarrak haiek ez direla ikustea. Orduan bururatu zitzaion, hozki begiratuta oso ideia krudela eta arriskutsua zen hura. Alanbrearen aurrean sentitzen dugun inpultsu hori. Dohaineko eskolta eta guzti eduki zezakeen, nahi izanez gero.

– Nahi baduk nirekin etorri eta zakuak bere lekuan jartzen lagun diezadakek. Boxeolariak bertan egotekoak dituk gaur, lekua ikusten eta. Interesgarria suerta dakiake giro horiek gustatzen bazaizkik.

– Primeran!

Nork esan behar zion berari polizia bat hainbeste beratuko zenik halako eskaintza batekin. Denok dugu izan, gure gurinezko puntua bihotzean. Diana egin behar.

Atzerako ispiluan begiratu zituen maleteroa eta atzeko eserlekuak betetzen zituzten bi zakuak, ezer igarriko ote zen beldurrez. Irrazionala zen beldur hura, jakina. Ondo gordeta zihoazen atzekoak. Bi zaku, gidaria eta gidari laguntzailea. Lau zihoazen orotara auto haren barruan. Lar zen ordea, lauretatik hiru txakurrak zirela zekien bakarra.

Latza zen erdibituta egotea, pentsatu zuen Martak. Pasaian ere bi Pasaia zeuden. Pasaia bat zen garabiena, ur-er tzean konpontzeko luze-luze lerratutako sare apurtu zerrenda berdeena, txatarra meta erraldoiena. Eta bestea zen gasolio putzuetan islatutako garabi, sare eta txatarra meta haiek berberek osatzen zuten ispiluaz bestaldeko mundua. Batzuetan ez zen erraza jakitea bi Pasaia haietatik zeinetan ari zinen bizitzen, bietatik zeinetan esnatu zinen goiz hartan.

– Marta, Patakirena egin genuenean... Ez huen ezer sentitu?

– Sator bat besterik ez huen, ederki zekinan hark zertan ari zen. Zer nahi huen sentitzea?

– Ez zekinat, zerbait.

– Sentitzea gauza bat dun, piztia bat nindukenan deus sentitu izan ez banu. Baina zein beste aukera geneukan?

– Arrazoi dun.

– Itzel orduan.

Martak bizkarra erakutsi zion Olatzi eta egunkari bateko txatalak ebakitzen hasi zen guraizeekin. Auskalo zergatik, guraize haiek egunkaria moztean egindako traiektoriak bere bizitzan traszendentzia ikaragarria izan zezakeela iruditu zitzaion: paperkia ezkerrerantz moztu beharrean eskuinerantz mozten bazuen bere bizitzak norabide bat edo beste har zezakeela. Zerbait zentzugabea zen, baina Patakiren lepoa inguratzen zuen kordela asfixiaraino estutzeko inolako zalantzarik izan ez zuten esku irmoek dardara egin zioten apur bat.

– Zer hartuko duzu, jauna?

– Garagardo bat.

Whiskya eskuzabal zerbitzen jakingo bazenute whiskya eskatuko nuke, pelakatu, pentsatu zuen.

– Kañakoa edo botilakoa?

Apustu egingo nuke kaña horrek ez dituela sanidadeko arauak betetzen, pentsatu zuen.

– Botilakoa.

– Zein botila?

Tematia zen gero. Kamarero putakume hauek gero eta gogaikarriagoak dira, pentsatu zuen.

– Naufragoarena, iruditzen bazaik.

– Heineken, Guinness, Bass?

Dale.

– Atera iezadazu beira iluna duen bat.

Azkarregi edaten dudala igar ez dakidan, esan zuen ahapeka Cesarrek. Azken batean, gertaeren gatibu zen bera ere. Alferrik zen gauzak aldatzen saiatzea. Alferrikakoa iruditzen zitzaion erabat gauzei zentzua aurkitzen saiatzea. Zerbait argi baldin bazeukan, hauxe zen: ibai berdinak garamatzala denok herrestan eta ibaiaren ertza harrapatu ahal izateko azken unean ureta-

tik ateratzen den beste esku bat oratu behar badugu, oratu egiten dugula –ireki eskua, jauna, ireki eskua–. Jakin ez arren norena den esku hori, latexezko eskularrurik jantzi ote duen sekula, nor den ibai ertzetik eskua luzatzen digun hori, zein den bere iragana, bere atzean ez baizik eta alboan igeri dituen istorio guztiak; bere etxeko hormetako kristalezko hilkutxa eta erretratuen aurrean ezikusiaren egiten dugu. Edozein ikuspuntutatik begiratuta ere, esku bat esku bat da eta behin ezezagun hurkoaren eskutik ibili garenean, zaila da berriro ere esku horren atzean ezkutatzen dena munstro bat izan daitekeela onartzea.

Esku bat esku bat da. Batzuek ukabilka hartzen gaituzte eta beste batzuek laztanez. Ez eskatu besterik esku bati. Etika, garantiak edo segurtasuna nahi bazenuen, epeka ordaindu beharreko mikrouhin-labe bat erosi besterik ez zenuen.

Gertaeren esklabo gara denok, esan zuen ozenki. Kamarero inozoak aurpegi xelebreaz eta saihetsetik begiratu mesfidatia luzatu zion Cesarri, eta garagardoaren prezioa ordaintzeko gal-

datu zion, mozkorra ote zegoeneko ustean. Inuxentea. Cesar ez zegoen mozkortuta. Garagardoa bukatu eta kalera irten zen. Urperatzear zegoen gizasemearen burutazioak hartu zion berriz ere gogoa.

Eskizofreniko bat bezala jokatzen ari zen. Aspaldiko sasoi ilunak etorri zitzaizkion burura eta hiruzpalau aldiz pentsatu ondoren farmaziara sartu zen. Ez zeukan errezetarik, baina igualtsu zen, plaka atera eta ez zioten eragozpenik jarri. Droga gogorra zen gero hura. Polizia izateak bazuen halako gauzak jakitearen abantaila. Ez nahastu edari alkoholdunekin, zioten prospektuko letra berdeek. Etxeratu eta lau pastilla irentsi zituen, Cutty Shark txorrotadarekin batera. Gero gauzak ikaragarri argi ikusten hasi zen, objektu bakoitza bere inguruko objektu guztietatik bereizteko gai zen, bakoitzak bere entitate propioa izateaz gain inguruko beste guztiekin batere zerikusirik edukiko ez balu bezala. Baina aldi berean gauza guztiek harmonia ikaragarri bat zutela zirudien. Egundoko segurtasunak hartu zion barrena. Telefonoa deseskegi eta egunkariko prostituta haietako bati hots egin zion. Larrua

behar zuen. Inoiz baino gehiago gozatuko zuen gainera egoera hartan, bere gelako eta bere gorputzeko atal bakoitzak entitate berezia zuen hartan, emakumearen atal bakoitzak ere hala izanen zuela uste izatekoa zen eta. Dena ikusten zuen hain ongi fokatuta. Betaurreko desegokiak jantzi izan balitu bezala bere bizitza guztian, eta bat-batean, begien aurretik zapia kendu izan baliote bezala. Irazkirik ez gehiago bera eta munduaren artean.

Atearen bestaldean borroka antzeko bat sumatu uste izan zuen. Bi emakume ziren oihuka. Ez zen seinale ona. Eskizofrenia berriro ere. Atea ireki zuenean, beheko peorako atea itxi egin zuen norbaitek. Baina Telleria ez zen horretaz ohartu. Izan ere, bere aurrean, eskatutako prostitutaren ordez Veronica izeneko emakumea azaldu baitzen, edo berak hala uste izan zuen, droga haren eragina besterik ez izatea ere baztekeen, bera bezalako fisonomista bat drogek hain erraz nahastea harrigarri samarra iruditu zitzaion arren. Veronica izan edo ez, bere bizitzako larrujotzerik ederrena izan zen hura.

Hurrengo goizean, esnatu zenean, gelako anabasa inoiz baino nazkagarriagoa eta jasangaitzagoa suertatu zitzaion. Droga haren eraginak alde egina izan behar zuen, nonbait.

Ez zuen gauza handirik oroitzen. Flash batzuk bakarrik, emakumea berari eta bera emakumeari argazkiak ateratzen aritu izan balira bezala, jolas erotikoren batean. Ez zuen oroitzen nor izan zen jolasa hasi zuena. Zerbait gehiago ere oroitzen zuen: kalean zehar ibili ote zen batera eta bestera, bere gelara itzuli aurretik, emakume harekin kanpoan afaldu ote zuen. Gauza garbirik ez. Une batetik aurrera guztia bikoiztuta ikusten hasi zela, bi Cesar eta bi Veronica ohean eta larrutan. Gogor jo zioten pastilla haiek, gogorregi, ispiluko argazkian ageri zen emakume harekin prostituta nahasteraino. Veronica hura honezkero kartzela zuloren batean zegoen, ordea.

Ez zuen oroitzen prostitutari ordaindu izana ere, horixe zuen kezkarik handiena. Hitzeko gizona zen bera horretan. Largabistak hartu zituen bere betiko zelatarekin jarraitzeko, baina zelatatu ohi zuen gela hutsik zegoen.

Ispiluan bere aurpegiari so egin eta bart gaueko bikoiztasunak asaldatu zuen berriro. Une batez, bikoiztasuna baliatuz fantasiazko Cesar aluzinatu eta inexistenteak benetako Cesar ordezkatu ote zuen iruditu zitzaion. Erokeria galanta, inondik ere. Ispiluan itsatsita zirauen katalogotik erauzitako Veronicaren argazkiak, baina Veronica bezala ezagutzen zuten emakumearen argazki erdibitua eta Cesarrek Lisboatik bere buruari bidalitako postala falta ziren.

Ni ez naiz sekula hemen izan, eta igual igual bizi naiz.

Baina izan al zen *benetan* norbait bere etxean? Ez ote zen guztia bere irudimen kezkagarriro gaixoaren fruitu sukartsua izan? Eta norbait izan bazen, nor?

Tiro

«Nahikoa daukate! Utz iezaiezue ihes egiten».
«Zergatik baina? Zergatik?».
«Zeure kabuz zergatia ez badakizu, nik ezin dizut erakutsi».
Bend of the river

Marta ohe gainean dago eserita, bota beltzak lotu eta deslotzen, behin eta berriro. Ez du lortzen gustura lotzerik. Erabat artega dago. Burua altxatzen duenean ikusten duenak izu laborria eragiten dio, burutik pasatzen zaion lehen gauza da ohepetik pistola ateratzeko denborarik ez daukala. Mamu bat du bere aurrean: Patakiren mamua. Olatz da, mutil jantzian eta ileorde beltz bat jantzita duela, haren pastazko betaurrekoak ere soinean. Barre ttipi urduri batean hasten da Marta, eskua kopetan duela lehenbizi eta hatz erakuslearekin torloju-lotzailearen keinua eginez gero, hi erotuta hago esanez bezala, Olatzen ideiaren nondik norakoak bat-batean ulertuta.

Inguratuta bazeuden ere, agian sinetsarazi ziezaiekeen Pataki haiekin zegoela eta bizirik. Pentsatzekoa zen ez zela dagoeneko Martxelo

deitu beharko luketen arren oraindik Pataki deitzen zuten haren eta bere nagusien artean astean behin edo biko komunikazio zuzena besterik egongo. Litekeena zen, eman zuen informazioa okerra izanagatik, bere buruzagiei Pataki oraindik bizirik zegoela sinetsaraztea lortuz gero, nagusiek berari konfiantza tarte bat ematea oraindik. Agerikoa zen tratu berezia zeukatela, Egiako tiroketan ere parte hartu baitzuen Patakik. Pistola enkaskillatu egin zitzaioneko itxura egin zuen, jakina, orain guztiak enkajatzen zuen. Baina argi zegoen sator berezia izan zela Pataki, eskuak oso libre zituen horietakoa eta tratu bereziren bat izango zuena bere nagusiekin. Buruzagitzara iritsi nahi zuten akaso eta horretarako prest zeuden antzerkia ertzik arriskutsuenetaraino eraman eta satorra norbait tirokatu beharreko posturan jartzeraino. Poliziaren aldetik estrategia ausarta izan zenik ezin uka. Zorte apur batekin, eta polizia Olatzek uste bezain ausarta izan bazen, ez zeudekeen oraindik lokalizatuta ere. Patakiren mugimenduen berri izanda ere, denbora apur bat izan zezaketen. Astebete edo

pixka bat gehiago, kasurik onenean eta gauzak sinesgarri samar egin ondoren.

Hori gutxi balitz, hurrengo ekintza Pataki bezala mozorrotuta egiten bazuten, eta ekintza horretan, nahi gabe bezala, lekukoren batek ikusiak izatea lortuko balute, erabat burutik nahastuko zituzten Patakiren nagusiak, hau haiekin elkartzera heldu ote zen planteatu behar izateraino. Poliziaren moralak erreka joko zuen eta haiek Pasaia utzi eta harrapaturik zeuden zingira hura abandonatuta Bermuden Triangelu berri baterantz abiatzeko aukera izan zezaketen.

Martari erokeria iruditu zitzaion, baina hain seguru ikusi zuen Olatz, ezen ezin izan baitzion ezer esan. Beldurra ematen zion hildako bat bezala mozorrotu eta Pataki bere memoriatik ezin ezabatzeak. Ideia gogaikarria eta deserosoa zitzaion erabat. Olatzek peluka eta betaurrekoak kendu eta Martari pasa zizkion. Jakina, gidatzea izango zen Olatzen lana.

Robertok deitu berri zion. Bera kargura ez egon arren, animatu nahi zuen. Alargun Beltza oraindik Pasaian zegoela susmatzen zuten,

azken telefono deia handik egin zuenez –dei honen bidez Madrilen lehertaraztekoa zen auto baten berri eman zuen, halakorik gertatu ez bazen ere–, baina ez zuten beste berririk. «Cesar, zu zara bera aurki dezakeen bakarra. Boxeoan esaten duten bezala, flakiak ahaztu eta *hirugarren hatsa* bilatu behar duzu». Hirugarren hatsa zen indar guztiek alde egin eta bat erabat derrotatua dagoenean bilatzen dena. Presio handiegia beretzat. Mozorro batekin saiatu zen arratsalde hartan: itsu-makila eta eguzkitako betaurrekoak hartuta, itsuaren gisan Topoko bagoi batetik bestera ibili zen. Hendaiatik Donostiarako bidea sei aldiz egin zuen egun berean inolako arrastorik, ezer garbirik atera gabe.

Etxeratu aurretik emakume arropak erosi zituen denda batean eta ohepetik Cutty Shark txorrotada luze bat edan ondoren, emakume arropak ohe gainean lerratu zituen: zapatak, galtzerdi luzeak, soinekoa... Txorimalo bat osatzen ariko balitz bezala. Ordurako geratzen zitzaion Veronicaren argazki bakarra soinekoaren lepo gainean jarri zuen, txorimaloaren buruak egon beharko lukeen lekuan. Gero ohean etzan eta

txorimaloaren soinekoaren besoari helduta loak hartu zuen, Veronica bezala ezaguna zen emakumea berekin bailuen.

Esnatu zenean, ohe gainean eraiki zuen txorimaloa haserre desegin eta itsuaren mozorroa hautatu zuen berriro. Pareko ezkaratzeko emakumearen bila joatea erabaki zuen. Egun osoa eman zuen gora eta behera ezkaratzaren parean, baina handik ez zen berak gauero ikusten zuen zangorik atera. Ezinegonak gero eta kikilduago zegoen, abailduta, goibel eta ahulduta. Gau osoa luzatu zuen bere egonaldia ezkaratzaren aurrean emakumearen zain eta handik ez zen zango pare haren inolako antzik zeukan ezer irten. Goizaldeko seiak ziren eta kale-garbitzaileak azaltzen hasiak ziren. Orduan izan zen. Argi zirrinta minimo bat egin zitzaion bere buruan zuen leize ilunean: berak ordura arte inola ere lotura hori egin ez zuen arren, neska haren zelata bere eguneroko bizitza aspergarriari aurre egiteko antidoto huts jo bazuen ere, orain ezin argi eta fokatuagoa zitzaion lotura. Zango haiek, bila zebilenetako batenak ziren, eta klandestinitatea

zen hura etxetik ez ateratzearen arrazoi bakarra. Nola ez ote zitzaion lehenago bururatu?

Etxeratu bezain pronto, telefonoa hartu eta komisariara deitu zuen. Robertori buruz galdetu zuen hasieran, Roberto jada jokoz kanpo zegoela oroitu gabe. Alainekin hitz egin behar izan zuen ordea.

– Alain, entzun. Ez nago seguru baina uste dut zerbait badaukadala.

– Harira Telle, zer da daukazuna?

– Bikote susmagarri bat, nire apartamentu parean, 20. ezkaratzean.

– Eta? Nor da? Alargun Beltza? Biak dira bilatzen ari garenak?

– Egia esan ez dakit oraindik, jauna. Ez diet aurpegia ikusi.

– Ez diek aurpegirik ikusi? Eta nola dakik orduan haiek direla?

– Ilunpean ikusten ditut gauero nire leihotik, oheratzen direnean.

– Txantxetan ariko haiz noski, Cesar.

– Ez diat batere gustuko hire ahots tonu hori...

– Nire ahots tonua? Ez duk gustuko beraz nire ahots tonua? Aizak, prakak erantziko ditiat hire aurrean ados, prakak erantziko ditiat eta txupaidak zakila iruditzen bazaik, ongi? Ea nire zakilaren ahots tonua gustuko duan... Ze jolasetan habil Cesar? Ez diagu ordaintzen *Playboy*rako erreportaiak idatz ditzaan. Egin ezak hire lana, eta behingoz, egin ezak txukun!

Telefonoaren bestaldean ospitale tonu luze bat. *Galdu egin dugu, jauna*.

Gizonezkoz jantzitako emakume bat. Peluka beltz bat eta pastazko betaurrekoak soinean zituela, autotik atera zen, Durangon fabrikatutako pistola bat esku artean zuela. Lekukoek bere deskribapena emango zuten beranduago, baina ez ziren gai izango emakumezko bat edo gizonezko bat izan ote zen zehazteko.

Lou Reedek aspaldiko disko bateko portadan zuen itxura zeukan, adieraziko zion prentsari iheslariak ikusi izana ziurtatu zuen lekuko batek.

Giroa hotz zegoen. Jende gutxi eta zebilena presaka. Zoazen lekura iristeko kalkulatutako denbora baino bost minutu gutxiago behar iza-

ten diren goiz garbi horietako bat zen. Autotik jaitsi eta pausoa lasaitu zuen beraz, azkarregi zihoala ohartu orduko. Etxeko bebarrutik ateratzen ikusi zuen. Espaloiz aldatu eta bere izenaz hots egin zion. Andres. Burua biratu zuenean, Martak konketan erre berri zen aurpegia ikusi zuen bere aurrean eta pistola automatikoa altxatu zuen. Paralizaturik eta zurbil geratu zen gizasemea eta Martak katuari sakatu ondoren, zutik iraun zuen une batez gorputzak, arnas puntu bat behar izan bailuen lurrera erori aurretik.

Ezagutzen ez zuena gorrotatzen saiatu zen. Gero eta gehiago kostatzen zitzaion halere hitz haiek bilatu eta xuxurlatzea.

Inork ez zaitu faltan botako, putakumea.

Zeruak kolore gorrixka zuen. Zoazen lekura joateko kalkulatutako denbora baino bost minutu gutxiago behar izaten den goiz horietako bat zen. Behin metro batzuk urrutiratuz gero, odol arrastoa ere ez zen sumatzen.

Marta geldirik geratu zen une batzuez, autora igo aurretik, lelotuta balego bezala. Egin zuten egin beharrekoa, baina gauzak lehen zirenean jarraitzen zuteneko sentipen asaldagarria

zuen. Pertsona bat hiltzeak ez zeukan inolako misteriorik, erraza zen, hutsa, ordu gutxitan koagolatuta egongo zen gorputz haren odola. Zenbait ekintzak jendearengan sortzen zuen lilurаren sorburua gehiago zegoen jendearen irudimenean eta memorian, ekintzaren burutzean bertan baino. Hala bururatu zitzaion Martari, zonbi baten gisara zutik zegoen une haietan.

– Marta! Zeren zain hago! Igo autora!

Olatz zain zuen autoan. Haize rafaga batek balkoietan lehortzen jarritako izarak puztu zituen une batez eta gero oihu kate bat etorri zen, sutan den etxe bat itzaltzeko orduan osatzen den kuboz kuboko giza-katearen antzekoa, ihes zihoan autotik entzuterik izan ez zutena.

Denbora luzea zeraman bakarrik. Bakarrik eta bakartuta. Veronica bezala ezaguna zen emakume haren antza zuen prostituta harekin izandako harreman hura izan zen bakarra hilabete askotan. Eta mesedea baino handiagoa izan zen eragin zion buru desoreka. Orain ezin zituen katalogotik erauzitako argazkia eta berria erkatu, gau hartaz geroztik Pasaiako bere apartamentu-

ko ispiluan erantsitako argazkietako bat eta postala falta baitziren. Harritzekoa zen. Baina, drogatuta dagoenean batek gauza arraroak egiten ditu, argazkiak tarratatu, norberaren miserian barrena algaraka nabigatu, kaxoietako gauzak atera eta lekuz aldatu. Droga nazkagarri hark gauzak ongi oroitzea galarazten zion. Ziur aski Cesar bera izan zen postala eta argazkia ezkutatu zituena. Orain antzinako katalogo hartako argazkia bakarrik geratzen zitzaion.

Ez pasa sekula gau bat bizitza guztia berekin pasatuko ez zenukeen emakume batekin. Lelo harroa agian, emakumeak bere inguruan soberan izan dituela dirudien harroxko batek esandako leloa bezain harroputza, eta hala ere, Telleriak lelo hura orpoz orpo jarraitu zuen urtetan, huraxe zen egia. Baina zer esan nahi zuen horrek? Bere buruari edozein emakume hil arte maitatu izango lukeela sinetsarazteko gai zela minutu gutxitan? Edo konformista bat zela agian? Edonorekin pasatuko zukeela gau bat eta edonorekin bizitza guztia? Hain traszendentetzat saldu nahi izan diguten bikotekidea *aukeratzeari* ez ziola hainbeste garrantzirik ematen esan nahi

zuen agian, aspaldi ikasi zuela emakumeen bizkar garatxo eta orbainez beteen aurrean ezikusiarena egin eta ezpain zoko ilun batean konpentsazio guztiak aurkitzen? Dena kimika kontua zela, yin eta yang, begiak itxi eta abstrakzio une horretaz gozatu, une horretan edozein emakumerekin larrutan ari zela imajina zezakeela? Etsi egin ote zuen bere berrogei estreinatu berrietan neskalaguna zerbait ezarria eta derrigorrezkoa den ideiaren aurrean? Plazer istant zikoitz eta minimo hori edozein alutxotan abstraitu ahal izaterainoko hipokrita zela sinetsarazi ote zion bere buruari, kariñoa ukazioaren eta miseriaren babeslekuari ematen zaion beste izena zela sinesten ote zuen?

Ez pasa sekula gau bat bizitza guztia berekin pasatuko ez zenukeen emakume batekin, edo bestela damutuko zara. Plazer istant ziztrin, minimo eta soilik *a posteriori* idealizatu hori balantzaren alde batean jarri eta goizeko maindire zimurtuak zuk bakarrik esnatzean zuk bakarrik bildu eta zuk bakarrik garbigailuko ateleihoan barna sartu behar dituzuneko goiz luzea –esnatu zaren unetik bertatik alferrik galdua– eta usain

gogaikarrien alde egin nahi eza eta zuk bakarrik leihoa ireki beharra eta zuk bakarrik irratia piztu eta akaso zerbait gogoratzeko gai izan. Hori guztia balantzaren bestaldean eta oraindik esan beharra al dago konpentsatzen ote duen gau horretako plazer istant labur eta zikoitzak, soilik *a posteriori* idealizaturiko istant horrek? Norbait etorriko da esanez hau eta bestea, maitasunean ere, itsasoaz gaindiko espedizioetan bezala gertatzen dela: konkista zirraragarria dela eta kolonizatu nahiak galtzen gaituela beti, baina hoa popatik esango zenioke zuk horri, hi, hoa popatik. Hoa popatik.

Bizitza: ezertarako balio ez duten hitzaurre sorta bata bestearen gainean pilatu hori, bakoitzak nahi ez duena zer den argi duenean. Ez pasa sekula gau bat bizitza guztia berekin pasatuko ez zenukeen emakume batekin. Haiek ere alferrikako hitzak ziren, tranpa bat baino ez, bera ere ez zegoen jada ados hitz haiekin. Ez pasa gau bat bizitza guztia berekin pasatuko ez zenukeen emakume batekin, damutuko zara eta. Alajaina, bestela ere damutuko ez bazina bezala. Azken batean, dena doalako paraleloki

eta ezer ez delako bukatzen. Iragana ez dago atzean, alboan baizik. Edo gainean. Atzean dauden gauzek ez dute trabarik egiten. Bai ordea alboan edo gainean daudenak, eta iragana horietako bat zen. Cesar Telleriak orain bazekien alferrikakoa zela azokara doanak bezala zerrenda egin eta hersten eta bukatzen doazen istorioak handik ezabatzen joatea. «Urlia? A, ez, ez dakit ezer hari buruz aspaldi honetan, finito, kaput, gurea bukatu zen...». Alferrik da. Gezurra da. Zerrenda horretatik gure eginbeharrak eta zor afektiboak ezabatzea ezinezkoa da, gure ekintza inozo eta barregarriez ahaztu daitezen eskatzea, xaloegia.

Hurkoaren ahuldadea sakatzea, hori da gure lana. Horretara emanak bizi gara eta gustatu egiten zaigu.

Guk geure buruari fiktizioki ezarri arren sekula existitu ez den penitentziarentzat ez da inoiz ez benefizio ez inbentariorik izan. Agian sekula maitatuko ez dugun norbaiti zor diogu bizitza, eta zor izango, baita hil ondoren ere. Nahita edo nahi gabe hasitako maitasun istorioak izanda ere, ezin dira ezabatu. Denak gurekin doaz, gure

orpoen pean edo hatz-oskolen gainean, korronte zirkular batean, pausoa edonon jartzen dugula ere.

Ezer ez da bukatzen. Sekula hasi nahi izan ez genituen –eta gure harrokeriak, baiki, has ez zitezen lortu zuen– istorioak ere ez dira sekula bukatzen. Pertsekutatu eginen gaituzte, ustez lehen aldiz zapaltzen dugun hiri bateko taxistaren ezusteko begiradan, atzerrian bizi den osaba zahar baten etxeko horma erlojuko atea ireki eta penduluari eragiten diogun unean atzerako tiktak zenbaketa bat hasten dugunean; aireportu batean, gure eskua laztantzen duen beste esku baten tiradizoan, esku horrek zure hatzen artean eraztun bat paratzen duelarik. Horretan emakumeak askoz argiagoak eta askoz hotzagoak dira. Karta gehiago jokatzen dituzte, eta hasiera hasieratik jokatu ere. Partida hasi baino askoz lehenago zelairatzen dira, eta beren tranpak eta beren begiradak jartzen dituzte zepoetan eta zelaiko putzuen hondoan. Eta toki guztietan. Edo akaso kasualidadea zen emakumeek akzioak han eta hemen inbertitzeko duten abildadea besterik ez dena onartu nahi eza? Keinu labur

horiek, deus ez diruditenak, keinu inofentsiboak, sorbalda ukitu bat, edo zure antezko txaketa berria, aiba-be rria-da-eta esanez gustuko balute bezala bizkarra ukitzen dizutenean, benetan zer egiten ari diren jakingo ez balute bezala. Nekanek utzi zion mezua bera: «Ezin dugu horrela jarraitu. Deitu... Deitu nahi baduzu, baina utzi egin beharko genukeela uste dut». Beti uzten zuten ate bat irekirik, baina haientzat bakarrik. Epe labur eta luzerako begiradak eta laztanak uzten ari dira etengabe, atzerapenez eztanda egingo dute gero haiek detonagailuari berriro sakatzen diotenean, urte asko geroago izanagatik eta beste eszenatoki batean, beste obra bat izanik ere orain jokatzea tokatzen dena. Nahikoa izango dute sorbaldan ukitzea edo apur bat exajeratuki behiala egin zuten jertse tiradizo urrunki sentsuala errepikatzea, edo antezko txaketa behialako hartan egindako jestu instintiboki buruz ikasi hura airean dibujatzea, eta kito, beren sareetan edukiko dute, istorio hori bukatutzat jo zuen notario mediokrea baino ez den gizonezkoa, gizontxoa.

Edonoren autoestima txikitzeko burutazio hauen ondoren, Cesar Telleriak Cutty Shark botila erdi bat hustu zuen trago bakar batez. Horretan ez didate irabaziko, erreflexio infantila, ateleiho bat bezala ireki zitzaion.

Ez pasa sekula gau bat bizitza guztia berekin igaroko ez zenukeen emakume batekin. Orain koartada bat zen esaldi hura. Aspaldi hartan, zenbait urte lehenago berekin erotuta ere gau bakar bat berbera ere pasa izango ez zukeen emakumeren baten bila ari baitzen, emakume harekin bere bizitza guztia pasatzeko.

Beste hartan bezala. Egian, segurtasun neurri guztien kontra kalean egin beharrean bigarren pisu hartara igo eta Patakiri pistola enkaskillatu zitzaioneko hartan bezala sentituko zinen. Zuk bukatu behar izan zenuen lana, Marta. Eta gizagaixoa bere gelaraino hurbildu eta ohepetik errebolberra ateratzen saiatu zen. Alferrik. Ez zuen denborarik izan. Inoiz ez zenuen hain tarte luzez ikusi zure biktima. Eta inoiz ez zizun hainbeste lastima eman.

Inork ez zaitu faltan botako, putakumea.

Zure aurpegian garatxo ttiki bat atera zitzaizun egun hartan bertan eta garatxo hura, zure aurpegia ispilura nahikoa hurbilduz gero hildakoaren aurpegiaren berbera zela iruditu zitzaizun. Hildakoaren erretratu ttiki bat zeneraman aurpegian. Eta geroztik kalean zehar zihoan jendearen garatxoei begiratzen zenien. John Fitzgerald Kennedy presidentearen itxura aurkitu zenion telebistako elkarrizketatzaile haren ezker masaileko orin handiari. Une hartatik aurrera eta tupustean, ikusten zenituen haiek guztien aurpegietan zegoen hiltzaile bat. Budismoan edo beste edozertan sinesten hasiko zinen, baina soilik garatxoak ziren errenkarnatzen zirenak. Garatxoak eta agian hodeiak eta agian zigarroen kea eta agian.

Agian beleak balebiltza bezala balak burezur batetik bestera aldatzen: domadorea hil zuen tigrearen burutik Kennedyren burura eta Lauaxetaren burura eta. Garatxoak aurpegi batetik bestera aldatzen. Denoi tokatu zaigu edo zitzaigun, edo tokatuko, noizbait hiltzaile izatea. Garatxo, erretratu, begirada baten zama.

Alainek ez zion telefonoa hartu ere egiten. Baina zein bihozkada ez da irrazionala? Bere lana ere halakoxea zen, irrazionala, erokeria hutsa, hotz-hotzean begiratuz gero behintzat. Eta gauzak ez zitzaizkien hain gaizki joan. Eta zer, gutun bat idatziko balu, zer egunkarira deitu eta erreportari pare bat eskatuko balitu, esanez Poliziak ere bidenteengana jo izan duela behin baino gehiagotan –ireki eskua jauna, ehun eskudo, ehun eskudo bakarrik–, legearen eta justiziaren beilariak erabat galduta eta arrastorik gabe egoten direnetan prozedurak ez direla beti hain logikoak izaten. Erraza litzateke beretzat anonimatuaren maskarapean halakorik kontatzea... Polizia barregarri geratuko zen, jada barregarri geratzera ohituta ez baleude behintzat. Bermudetako Triangeluarena, adibidez, hura patetikoa izan zen. Baina ez. Itxuraz, orain ez zuten ulertzen. Roberto Goaza komisarioa buruzagitzatik baztertu zutenetik bakarrik geratu zen Cesar itxura guztien arabera. Bere kabuz jokatzea erabaki zuen beraz. Lehen aldiz urte askotan, aginduak ez jarraitzea deliberatu zuen.

Emakume hura zegoeneko gela hartan Salgai zioen kartela oroitu zuen eta hitz erabakigarriaren azpian jarritako telefono zenbakia zein ote zen. Betidanik izan zuen oso oroimen txarra zenbakitarako, baina hau, ez zekien oso ongi zergatik, gogoan hartua zuen. Telefonoa markatu zuen. Lehen seinalea eman orduko eskegi zuen ordea berriro. Zer esan behar zion telefonoz bestaldekoari? «Badakit etxea jada saldu zenuela, baina nori saldu zenion, jakin gura nuke norenak diren ohearen diagonalean gauero ikusten ditudan oin biluzi zoragarri horiek...». Hobeto pentsatu ondoren, telefonoaren besagia berriro hartu eta Telefonicara deitu zuen zenbaki hari zegokion helbidea zein zen galdetzeko. Ez zegoen urruti. Gabardina jantzi eta eman berri zioten helbiderantz joatea erabaki zuen. Igogailurik gabeko ezkaratz ilun horietako bat zen. Ulergaitz samarra egin zitzaion halako arratoi zuloan bizi zen norbaitek bigarren etxebizitza bat edukitzea, eta are ulergaitzagoa bigarren etxe hori –harako hura baino argitsuagoa eta berriagoa, inondik ere– saltzea, bera han bizitzen geratuta. Agure batek ireki zion atea. Ez dut ezer behar, hoa he-

mendik, kartoizko biblia saltzaile hori, horrelako zerbait irakurri zuen Cesar Telleriak agurearen aurpegian. Ertzaintzako plaka atera eta agerian jarri zion.

– Arratsalde on jauna. Barkatu eragozpenak, baina ikerketa batean lanean nabil. Oker ez banago zure jabetzakoa da Nafarroa etorbidean dagoen 20. peorako bosgarren solairuko etxebizitza, duela gutxi saldu duzuna. Bertan egun nor bizi den jakin nahi nuke, axola ez badizu.

– Axola dit, bai. Zer egin behar duzu, ni atxilotu?

Agure kaskagogor haietako bat zen. Samur jokatzea erabaki zuen, hala ere.

– Ez nago hemen inor gogaitzeko, jauna. Izen-deiturak esan besterik ez duzu eta kito lana. Bai zurea eta bai nirea.

– Ez ditut izen-deiturak gogoan baina setati jartzen bazara kontratuan begiratuko dut.

– Benetan estimatuko nizuke.

– Tarte bat beharko dut, paper asko ari zait pilatzen azken aldi honetan. Nire uste xumea jakin nahi baduzu, zuena bazterrak nahastu eta

jendea bakean ez uzteko zaletasun aparta besterik ez da.

– Sentitzen dut, nire lana da.

– Ongi da, ongi da, otoi zaude isilik, bilatuko dizut eta.

Agurea marmarka desagertu zenean etxeko sarrerako argi apurraren pean pilatzen ziren liburu eta trepetei begira entretenitu zen Cesar Telleria. Lekua erabat hautsak estalia zegoen eta liburuen artean, hormetan zintzilikatu ohi diren kuku-erloju horietako dozena erdi bat zegoen barreiaturik, era guztietako erreminta ttikiekin batera. Eternala egin zitzaion itxaronaldia Cesar Telleriari. Etorri zen ordea azkenean agurea, ertz zimurtuak zituen orrialde single batekin.

– Hau izango da noski nahi duzuna. Ni ez nauzu ongi moldatzen betaurrekorik gabe. Begiratu zerorrek, hor azpian dago izena.

Cesar Telleriak paper zikin hura eskuratzeak eragiten zizkion hozkirria eta jakingura nahasten zituen sentimendu gazi-gozo bat sumatu zuen eztarrian gora. Sentimendu kontrajarri horiek guztiak desagertu egin ziren ordea, paper hartan, bere sinadura ikusi zuenean, eta bere sina-

duraren pean, amesgaiztoa borobilduz, bere izena eta lehen bi deiturak. Ez da posible, ahoskatu nahi zuen, baina ez zuen lortu. Edo lortu arren ez zuen inork aditzerik izan –berak ere ez– ate-sarrera hartako hormen iluntasunean ezkutaturik bide zeuden dozenaka kuku-erloju arratsaldeko zortziak ematen hasi baitziren, aldi-bereko zaparrada espantagarri batean.

Veronicaren antza zuen prostitutarekin igarotako gauaz oroitu zen, Veronica bikoitzaz eta Cesar bikoitzaz. Orain dena iruditzen zitzaion posible. Baita nonbait bigarren Cesar bat izatea ere.

Postaz heldu ziren foto haiek.

Sukaldeko ilunpean, bi pertsona eta lau esku eta lau begi. Martak eta Olatzek zerbait pasatzen diote elkarri, eskutik eskura. Harraska metalikoa argitzen du sugar bat-ba teko batek. Inora gehiegi barreiatu beharko ez lukeen alkohol usaina zabaltzen da sukaldean. Leihoak itxita egon behar luke eta hala dago. Bi harraskaz osaturiko harraska metalikoan argazki bat erortzen uzten dute, eta argazki bat da sugarrak argitzen

duena. Bertan gizaseme ile beltzaran bat ageri da, bi hatzekin zigarroa piztu eta bi hatzekin zigarroa erretzen duena. Dantzatoki bateko parkinean dago eta argazkian agertzen ez den norbaitekin ari da hizketan, boxeolari baten afixen ondoan. Gorputz erdiko plano amerikanoa den argazkia sugarretan kixkali ahala, argazkiko gizasemeak aingira batek arroka artean geldirik dagoenean egiten duen dardara kurbatu bera egiten duela dirudi, errauts bihurtzen ari den arren hotzikara balu bezala.

Eta erretzen ari den gorputz hark badu arnas erritmo bat, zerbait zirraragarria, boxeoaren munduan hirugarren hatsa esaten zaion hori, betirako amai daitekeen azken aukera bat.

Bat-batean errazegia dirudi era guztietako mugak zeharkatzea.

– Badakizu zer den zure barruan erdibituta egotea? Gauza bat pentsatu eta beste bat egitea... Ez ausardia faltagatik, beharragatik baizik.

Baietz esan zion, ulertzen zuela zer esan nahi zion.

Norbait azpijokoan ari zitzaion. Baina nor? Cesar Telleria presaka eta urduri itzuli zen Pasaiako autobidearen parean alokaturik zuen bere apartamentura eta Cutty Shark botila andana atera zuen ohepetik. Gero, leiho ondoan lerratu zituen eta banan-banan, tapa kendu zien botilei. Kopeta zimurrean sortutako izu laborrizko ilintiak bekainetan oztopatzen zitzaizkion. Sekula izan ez zituen begizulo batzuk loratu zitzaizkiola zirudien, botiletako kristaleko islan baieztatu ahal izan zuenez. Nekeak eraginak baino areago, kontzientzia lasairik ezak sortu ohi dituen begizulo horietakoak ziren. Nor ari zitzaion azpijokoan? Ez zitzaion inor bururatzen. Ez zitzaion buruan sartzen norbait bere mugimenduak jarraitzen ibil zitekeenik. Pentsatze hutsak nekez bazter zezakeen antsietatea eragiten zion. Konturatu izango zen norbait atzetik izatera.

Ez zen posible. Ezin zuen sinetsi.

Telefonicako liburukotea hartu eta Nafarroa etorbideko 20. ezkaratzeko bosgarren pisuko helbideari zegokion izena begiratzea erabaki zuen. Ia lehertu zen negar batean. C. Telleria Sa-

gasti. Oraingoan ere bi deitura zituen amesgaiztoak. Gutxien espero zuena aurkitu zuen, eta istorio guztien ertz ilunetara eta bigarren planoko paperak jokatzera ohitua, erabat artegatu zuen, tupustean, bere burua zurrunbilo ilunaren erdian, historiako protagonista bihurturik ikusteak. Nornahi zelarik ere bera bidetik apartatu nahi zuena, ongi ezagutzen zuen, bazekien bere puntu ahula zein zen. Alkandora apur bat laxatu eta banan-banan, leiho ondoan lerraturik zituen Cutty Shark botiletatik zurrupada txikiak edaten hasi zen, gero eta trago luzeagotan, harik eta leihoko arasan lerraturiko botila haiek kristalezko xilofono itxurako bat osatu zuten arte, isurkin horia gero eta beheratzenago, botila batetik bestera eskailera beherakor erregular bat sortuz, ahosoinu bat bailitzan. Sudurra inguratu zuen botilen muturrera eta sudur leihoetan alkoholaren kilika sentitu eta gero, begiak erabat irekita zituela, trantze egoera hipnotiko batean murgildu zen. Urduritasuna baztertzeko saiakera egin eta botilen barrura emeki-emeki airea botatzen hasi zen, txistuka ari balitz bezala, Eguberrietako afalosteetan patxaran edo whisky botila kor-

txogabetu berriekin egiten den bezala, edo beirazko edalontzi huts, bete edo erdi beteak koilaraz jotzen direnean bezala, dena afalosteko musika joko baten parte bailitzan. Ordea leihoko arasan lerraturiko Cutty Shark botila haien tutuek irazten zuten doinua, txorroskilero mendekugose batena zen, oinaze zahar batena, negu gorriko hotzak sortzen dituen burruntzi haien tartetik pasatzean haizeak sortzen zuen berbera.

Edonork ikusi izan balu, han, leihoan lerraturiko whisky botilekin txorroskileroarena egiten, erreka jotako burugaldutzat hartuko zukeen. Kiebra jotako infernu baterantz zihoan alderraitzat.

Boxeoko zakua erraldoia izanagatik, kosta egin zitzaion Laranja Mekanikoari bere garaian gorpua hara sartzea. Zerraldo izateko ttikiegia zen, izan. Apur bat kukutu, apur bat kizkurtu egin behar izan zuen hildakoaren gorpua, umekiaren gisan. Eta gero beso eta sorbaldapetik gorantz tirarazi. Aspaldiko urteetan abandonatuta zegoen ontzi bat hautatzen zuen beti Laranja Mekanikoak gorpuak desagerrarazteko. Beti zen ontzi bera. Infernurako bere xendra partikularra jotzen

zuen erdi urperatuta zegoen ontzi hura. Eskailera batzuk zeuden ontzitik uretara zihoazenak, ontzi-bizkarraren erdialdean bertan, eta zinez, batzuetan, lana bukatu ostean hara salto egiteko gogoa ematen zuen.

Erakargarria zen putzu infernal hura. Bazuen zerbait.

Honaino iristen da nire pazientzia, pentsatu zuen Cesarrek, eta hau pentsatzeaz batera, jada atzean utzitako puntu bati begiratu zion. Nafarroa hiribideko 20. ezkaratzera sartu eta jokoa amaitzeko ordua zen.

Giltzorde batekin eta erraztasun handiz ireki zuen atea. Gela erabat hutsik aurkitu zuen. Koltxoi bat zegoen lurrean eta txistu elektriko gogaikarri bat entzuten zen etxe guztian zehar. Irrati bat frekuentziatik kanpo sintonizatuta dagoenean bezala. Azkenik han zegoen, hain luzaro zelatatu zuen emakumearen apartamentuan. Argia piztu zuenean, ia zorabiarazi egin zuen begitazio bat izan zuen. Bere amesgaiztorik gaiztoenean ere irudika ezin zezakeen zerbait: hiru maleta beltz zeuden bere aurrean. Hiru maleta

beltz zilarrezko ertzak zituztenak eta oso ezagunak zitzaizkionak. Hirurak ziren Lisboan jarraitu zuen Veronica zelako emakume hark estu-estuko laguna zuen maleta haren berdinak. Begiak igurtzi zituen. Itxi eta berriro ireki. Oraingoan bi maleta bakarrik ikusi zituen. Hirugarrena leihoko kristaleko isla besterik ez zen. Erretzeko erabiltzen zituen bi hatzez sudur-zubia estutu eta begi keinua kizkurtu zuen berriro ere, zerbait gogoratu nahiko balu bezala, edo areago, gertatzen ari zitzaionarekin lotutako zerbait garrantzitsuren bila balebil bezala bere buru barruan. Hankak eta besoak mugiezinik zituen. Begiak berriro ireki zituenean maleta bakarra ikusi zuen. Koltxoi gainean zegoena. Bigarrena armairuko ispiluko isla besterik ez zen. Komunera jo eta aurpegia freskatu zuen, estudioko gela bakar eta nagusira heltzean espejismoaren azken herena ere desagertua izango zelakoan.

Baina maleta beltza, ertz zilarreztatuekin erremataturiko larruzko maleta zurruna, han zegoen oraindik.

Leihora inguratu eta bere zelata lanak egin zitueneko apartamentua bilatu zuen begiradaz.

Berehala aurkitu zuen. Cutty Shark botilak leiho arasan lerraturik zeuzkan huraxe zen eta ondo bereizten zen handik, largabistarik gabe ere. Koltxoian eseri eta maletak bereganatu zuen berriro Cesar Telleriaren arreta. Eskuetan hartu zuen, erremate zilarreztatuak hatzen puntaz ukituz. Maleta belarri pareraino altxatu zuenean ohartu zen ez zeukala ezer pisutsua barruan. Gora eta behera apur bat astindu zuen, barruan zegoenari buruzko ondorio erabakigarririk atera gabe, hala ere. Magalean jarri eta zalantza une baten ondoren takateko batez ireki zituen giltzatu gabeko bi sarrailak. Bigarren zalantza une bat izan zuen oraindik, bisagrak biratu eta maletaren estalkia altxatzera deliberatu baino lehen.

Maleta barruan aurkitu zuenak erabat nahastuta utzi zuen Telleria. Hark guztiak ez zeukan zentzurik. Jostailuzkoa zirudien pistola bat, peluka beltzaran luze bat eta pastazko betaurreko batzuk besterik ez. Hark guztiak ez zeukan ez hanka eta ez bururik. Ez nora eta ez zertara ez zuela geratu zen, ahoa bete galdera. Peluka eta pastadun betaurrekoak janztea deliberatu zuen azkenik, bere aspaldiko amets hura (bera zen fi-

sonomista ikaragarriak ere ezagutuko ez zukeen beste baten azalean sartzea, –*mozorrotzea*, hura zen hitza–) gauzatu nahian. Zertan ari zen oso ongi jakin gabe, armairuko ispilu aurrean peluka jantzi zuen lehenbizi eta pastazko betaurrekoak gero. Norbait ezaguna ikusten zuen ispiluan orain, baina ez zen konturatzen nor izan zitekeen. Ahalmenak galtzen ari zen, nonbait. Salara bueltatu eta koltxoian eseri zen, etsita. Jostailuzkoa zirudien pistola hura esku artean hartu eta ispiluko bere bikiari apuntatu zion. Luzaro zerbait desiratu eta lortu ondoren guk nahi genuenarekin zerikusi gehiegirik ez zuela ohartzen gareneko sentipena zuen.

«Goiti eskuak, Polizia!».

Edo makurtu lurrera putakumea. Hitzak ez zituen ulertu, tonua zen inporta zuena.

Saka eta maka sartu ziren. Atea behera bota eta lehen tiro rafaga sakatu zutenean, ispilu aurrean belaunikaturik, bere bikiari apuntatzen zion oraindik Cesar Telleriak pistolarekin. Alainen ahotsean «Zureak egin du Martxelo!» hitzak entzutean konturatu zen ispiluan ikusten zuena zein zen. Bizkarrean jo zuen bala ez zion beraz,

ispiluko bikiak bota. Ikusi egin zuen, hala ere, bala beraganaino etortzen. Ispiluan. Eta Cesar Telleriak zenbait errealitateren aurka borrokatzea ezinezkoa zela zekien arren, ispiluaren bestaldekoari begiratu zion lehenbizi, damua adierazten ez duen begirada batekin eta desatsegintasuna adierazten ez duen eta resignazioa adierazten ez duen eta aukera okerra egin izanaren zalantza adierazten ez duen eta lotsa adierazten ez duen, baina apur bat hauek guztiak adierazten dituen begirada batekin, eta gero, jada lurretik, bere aurrean argizarizko aurpegi zurruna zuen Alaini begiratu zion. Laguntza eske.

Orain ezin zuen leihoa ikusi, baina ahalegin berezia egin zuen: destolestu eta lebitatuz bezala, bere irudimena leihotik atera eta arropak zintzilikatzeko kordelen gainetik pasatuz, bere bijilantzia burutu zueneko pareko apartamentura heldu zen eta whisky botilaz osaturiko harmonika ikusi zuen eta baita leihoko arasan abandonatutako largabistak ere, eta bere burua, edo bere buruaz geratzen zen erdia, han, largabistak hartu eta beraganantz begira.

Etorkizuneko istorio paraleloren bat bilatzen saiatu zen ispiluaren bestaldean. Badira hiltzen duten simetriak, nonbait.

Cesarrek, azken keinu sinbolikoa bailitzan, erretzeko erabiltzen zituen bi hatzekin jostailuzkoa zirudien pistolaren katuari sakatu zion, lurretik. Ez zegoen kargatuta. Gizon asko zeuden bere inguruan, ez zioten arnasten uzten, baina ezin entzun zitzakeen, haien ahoak mugitzen eta haien zapatak lurra bortizki kolpatzen suma bazitzakeen ere, ez zuen deus entzuten. Zapata horiek zikinak daude, zapata horiek ez daude egon behar luketen bezain garbiak, gustura garbituko nituzke nik zapata-garbitzailearen pertsonaia biblikoa bereganaturik, profeta berri baten gisan. Zapatak garbitu eta eguneroko ogia era duin batean irabazi. Paradisua zen hori. Polizia batek eskumuturretik heldu zion, pultsua hartzeko asmoz. *Ireki eskua jauna, etorkizuna iragarriko dizut. Ehun eskudo, jauna, ehun bakarrik.*

Aingeru zapata-garbitzaile bat emango dut, zilarrezko paperaz estaltzen nautenean. Horixe izan zen bere une hartako burutazioa. Gero begiak itxi egin zituen, eta han bestaldean, ez zuen

maletarik ikusi. Hainbeste aipatzen zuten argi tunelik ere ez. Bestaldean ez zegoen ezer. Lo-kuluska luze baten ondoren mundua beste kolore batekoa ikusten da, otu zitzaion azkenik. Edo ez da ikusten inola ere. Hirugarren hatsik ez. Robertok askotan erabili ohi zuen beste esaera hori, sekula zentzurik hartu izan ez ziona, orduan ulertu zuen. Orduan ulertu zuen Cesar Telleriak, zeri deitzen dioten boxeoan *argi beltzak ikustea*.

Gehiegitan ari ziren aspaldian segurtasun neurriak errespetatu ez, eta jokabide neurri nahiz prozedura guztien aurka gertaerak sakatzen.

Martak, Patakiren pastazko betaurrekoak eta ileorde beltza soinean zituela, Cesar Telleriaren etxe alokaturako eskailerak igo zituen. Olatz ezkaratzean geratu zen, irteera zaintzen. Etxeko txirrina jo zuenean ez zuen inork erantzun. Giltzorde batekin atea ireki eta barrura sartzea erabaki zuen, apur bat berandutuz gero Olatz kezkatu egingo zela bazekien arren. Apartamentuko leiho arasan zazpi Cutty Shark botila zeuden, eskailera beherakorrean, gero eta hustuago. Benetan bitxia zen apartamentu hura: emakumezko-

en arropak, itsu-makila... Apartamentuko leihora gehiago hurbildu zenean, asko harritu zuen zerbait ikusi zuen: Cesar Telleria pareko etxe baten pean, espaloian zegoen. Nafarroa etorbideko 20. ezkaratzera sartzen ari zen. Leiho arasako largabistak hartu eta 20. ezkaratzera zuzendu zuen begirada: Cesar Telleria pareko apartamentu batean zegoen orain, ispilu baten aurrean, ertz zilarreztatuak zituen maleta bat irekitzen. Maletatik zerbait atera zuen, ileorde bat, pistola bat eta betaurreko batzuk, eta soinean jarri zituen. Martak largabistak begietatik apartatu behar izan zituen izu laborriz: bere berdina zen Cesar; hobe esan, Patakiren berdina.

Pataki, berriro ere. Tipoa hilezina zen nonbait, akabatu zutenetik suge erdibitua bezala ugaltzen zen: lehenbizi Olatzen ideiaren ondorioz Martak janzten zuen mozorroaren baitan, eta orain, baita bere biktima izan behar zuenaren baitan ere. Gertaera zentzugabe haiek guztiek zerbait esan nahi ote zuten otu zitzaion; mezu bat ote zen Cesar Telleria Patakiren mamuaren gisan antzaldatuta ikustea. Ez zuen ezer ulertzen, baina gertaeren simetria kezkagarrie-

gia iruditu zitzaion. Tupustean ordea, mugimendu arraroak sumatu zituen kalean. Berehala ohartu zen Ertzaintzako bereziak zirela, linternadun fusilak eskuan hartuta, pareko etxea inguratzen ari zirenak. Pareko etxeko bebarruan gora polizia lerro bat igo zen. Marta, bihotza josteko makina baten gisan zuela, apartatu egin zen leihotik, mugimendu erreflexu batez. Tiro bat entzun zen goian. Gero beste bat. Agian lehenengoaren oihartzuna izan zen eta agian ez. Largabistekin leihotik begirada azkar bat bota eta Cesar Telleria ispilu aurrean zerraldo zegoela baieztatu zuen. Cutty Shark botilei azken begirada eman eta korrika abiatu zen beherantz. Handik ahalik eta urrunen egon nahi zuen: harraskan bere argazkia erre berri zuten Cesar Telleriaren apartamentuan egoteak bere amesgaiztoak profanatzen aritzearen sentipen okaztagarria sorrarazten zion. Denak zoratzen ari ziren. Zer pentsatu ez zekiela, Olatzengana bildu eta oinez aldendu ziren, etxerantz. Gauza asko ziren orain eskuetatik ihes egiten zietenak.

– Zertan ibili haiz Marta? Kirioak airean nitinan!

– Aurreratu egin zaizkigun, Olatz.

– Nola?

Marta zurbil-zurbil zegoen.

– Aurreratu egin zaizkigula, joder. Itzel, joder, itzel. Poliziek hil diten! Ez dinat ezer ulertzen, joder, ez dinat ezer ulertzen!

Pasaiatik hanka egiteko unea iritsi zen. Litekeena zen ordea, dagoeneko berandu izatea.

– Olatz, gogoratzen al dun nire istorio gogokoenari buruz galdegin hidan hura?

– Jakina. Metamorfosia. Kafkarena. Dinosauro eta guzti.

Konplizitate keinu batez erantzun nahi izan zion Olatzek Martaren konfesioari. Une batez, paperak trukatu eta segurtasuna eta lema ziurtasunez eramatearen ardura, ideien argitasuna Olatzi balegokio bezala; eta zalantza, koipea bezala, Martaren pentsamenduez jabetu izan bailitzan laino baten gisara. Zerbait aldatua zen bien artean, eta zaila zen jakiten noiz topatu zuten elkar bidegurutzean.

– Egia esan ez dun hori nire istorio kuttuna.

– A ez?

– Ez. Nire istorio kuttuna beste bat dun. Tren bateko bagoi batetik bestera norbaitengandik ihesi doan emakume baten istorioa dun. Azkeneko bagoira heltzen denean era eta kolore guztietako maletaz beteta dagoela ikusten din. Kanpoaldera ematen duen bagoia dun hau, azken bagoia, eta han, banan-banan hasten dun maleta guztiak bagoitik errailen ertzetara botatzen. Trena azkar zoan, eta azkar desagertzen ditun maletak trenbide ertzean. Askotan maletak itxita geratzen ditun, sekretu guztiak barruan gordez sekula betiko. Beste batzuetan aldiz, apurtu eta ireki egiten ditun eta barruko arropa eta gainerako guztiak hor zehar geratzen ditun barreiatuta. Eta badakin? Maletak trenbide ertzera jaurtitzen ari den bitartean zoriontsu dun, eta ez zeukan puta ideiarik ere zoriontasun horren zergatiaz. Iristen dun une bat ordea, maleta gehiago geratzen ez zaiona bagoian. Eta orduan jauzi egiten din trenbide ertzera eta bere altuera bitan duen gari sail batean barneratzen dun korrika. Eta orduan ere zoriontsu dun, eta zoriontasun horren arrazoiaren puta ideiarik ere ez zeukan. Lasterka zihoanan eta pozik, besterik gabe, bere

altuera bitan baden gari sail hartan barna. Zentzugabea dun ezta?

– Zentzugabea den bakarra trena dun, Marta. Beti bide berean doan tren madarikatua.

Sirena hotsa eta anbulantziak kanpoan. Zergatik iristen dira beti bi, hiru anbulantzia hildakoa bakarra dela jakin arren? otu zitzaion Martari. Anbulantzien artean apustuak eta lasterketak egingo balituzte bezala zen. Agian egiten zituzten. Gertaerarik tragikoenen atzean ere, komikotasun handia ezkutatzen zen, tragedia horretan lekuko besterik ez zirenen aldetik. Errezela eta estoreak itxi zituen Martak. Olatz dagoeneko zigarro bati azken sakatuak ematen ari zen.

Gabon gaua eta errepidean. Elurra bazterretan. Autorik ez. Olatz nirekin eduki banu, pentsatu zuen. Gidatzea beti izaten zen bere lana. Baina ez, Olatzek garbi utzi zion Pasaiako portuko elkarrizketan bi txartel zituela aitortu zionean: «Ezin hobeto, Yetia eraman dezaken hirekin». Geldirik zeuden kamioi erraldoien zerrendak besterik ez ziren ikusten. Arima bat bera ere ez. Egun egokia aukeratu zuen Martak bidaia egiteko, nahiz

eta iheserako garraiobide publikoak erabiltzea komeni den beti, ahal izatera: besteek eramaten gaituzteneko sentipena beti da erruduntasun konplexuen askatzaile eta zama kentzaile ihes-lariarentzat. Denak afariaren inguruan egongo ziren bilduta, harrezkero. Egun egokia aukeratu zuen bai, nahiz eta bide hura lehenago egin izanaren irudipena eta une hura lehenago bizi izanaren sentipena zituen. Eta egia zen. Ez zen lehen aldia bere burua ataka hartan aurkitzen zuena.

Irratia piztean frantsesezko irrati kate bat gaztelerazko batekin nahastuta entzun zuen. Gabon kantuak jartzen ari ziren irrati kate batean, eta bestean berriz gitarra elektrikoen soinua entzun zezakeen. Gogaiturik, irratia itzali zuen. Jada ez zuen elurrik ari eta lasai-lasai zihoan.

Autobus geltoki baten ondoan, zubi bat zeharkatzen ari zela, gizaseme bat ikusi zuen binilozko disko sorta bat ibaira botatzen. Blues diskoak, zurienak, beltzenak. Elurretako Yetia. Ogirina eta hondarra. Elurra nonahi.

Behelaino itxiak errepidea desagerrarazi zuen eta bere autoaren motorraren zarata zen kanpo mundutik jaso zezakeen bakarra. Begiak itxi eta Bera parean Guardia Zibilak jarrita zeukan errepide kontrola ikusi zuenean, bazekien oraingoan zaila suertatuko zitzaiola egoera hartatik onik ateratzea. Alto keinuak errepide bazterretik. Martak mugimendu erreflexu bat egin zuen soinean ez zeraman errebolberra eskuratu nahian eta guardia zibilek ezagutu egin zuten mugimendu horren asmoa. Hala iruditu zitzaion. Arnasa hartu eta azeleragailuari sakatu zion Martak, bolantea ertz batera bortizki biratuz.

Bi aukera zeuden, baina beti bezala, ez bere aukeran.

Zilarrezko papera bezala zulatzen dute balek auto baten karrozeria. Ez zuen bala bere gorputzeko zein tokitan sartu zen asmatu. Agian bat baino gehiago ziren. Agian bai eta agian ez. Flash baten ondoren, ahuspez aurkitu zuen bere burua, intxaur baten eran kraskatu zen autotik kanpo, baso izoztu baten erdian. Arboletako izotza urtzean gari sail baten erdian zegoela ohartu zen. Moja zahar batek lurretik burua altxatzen

ziola. Gero, marinel bat inguratu zitzaion irribarretsu keinu galdetzaile batekin nola-zaude imintzioka. Hara nola heldu zen ideiarik ez zeukan arren, itsasontzi batean egon behar zuen, inondik ere, Antartidako ur izoztua txikituz motel doazen ontzi horietako batean, eta marinelak lemari utzi izango zion une hartan, ontzia olatu ikaragarri batek kolpatu eta bortizki dardarazi baitzuen. Bai, lemazainak ontzia utzi bide zuen eta bere begien aurrean zegoen orain, berari begira, belauniko. Aizak aitona, ez kezkatu nigatik, hobe duk lemari eutsi ni bakean utzita, norbaitek hartu beharko dik bada egoeraren ardura, norbaitek borrokatu behar dik soken kontra daudenen alde, horixe erranen zion Martak marinel hari eztarrian nahikoa indar biltzen zuenean.

Ez zegoen ontzirik. Ez zegoen inor. Gari sail ikaragarri handi bat irudika zezakeen, bakarrik zegoen berriro. Bere buru gainean argindar kable nahasiak anabasa geldi batean. Ez zebilen inor korrika.

Berriro begiak ireki zituenean oraindik auto barruan zihoala ohartu zen. Zinema pantaila bilakatua zen parabrisan, lurrunak eta erortzen ari

zen elurrak sorturiko begitazioak besterik ez ziren izan ikusitako haiek guztiak, ziur aski. Lainoen baitan eta zigarroen kean Sacco eta Vanzettiren aurpegiak ikustea bezala. Agian bai eta agian ez. Ez zegoen kontrolik, ez poliziarik, ez istripurik, ez intxaur erdibiturik. Une batez mugiezin geratu zen, bolanteari tinko helduz, oharkabean marraren bat igaro bailuen. Behelaino itxia eta elurra bazter guztietan. Hori zen guztia. Antzinako argazkietakoa zirudien zuritasun ikaragarri haren erdian, Ford Mondeo beltz bat zihoakion aurretik bidea irekitzen. Autoaren gurpilak lebitatuz zihoazela zirudien errepide izoztuaren gainean, errepidea trenbide bailitzan. Buenaventura Durrutiren biografiako pasarte harekin gogoratu zen. Bartzelonako tiroketan Durruti babestu zuen auto beltz misteriotsuarekin. Irribarre egin zuen.

Blues

Heriotzak eta biziraupenak
mudantzetan kolazko pianoek duten itxura bera hartu dute,
asunto handiak, eguna bukatzerako ahazten direnak.
Richard Ford

Veronica bezala ezaguna zen emakumea Amarako geltokian zegoen zutik, nasa bakartiko ertz batean, betaurreko beltzak soinean zituela. Oinetan zeukan ertz metaleztatuak zituen maleta eta eskuetan argazki sorta bat eta postal bat sustengatzen zituen. Lehen argazkia Pasaiako apartamentu batean ateratakoa zen eta bertan Cesar Telleria ohean ageri zen, izarapean biluzik eta irribarrez, zigarroa ezpainetan eta erretzeko erabili ohi zituen bi hatzekin guraizearen keinua egiten, argazkiak ateratzeari uzteko erregutu nahian bezala. Ohe ondoko ispiluan Veronica zegoen, argazkilari lanetan, kamisoi bat besterik soinean ez zuela, irribarrez baita ere, Polaroida zilborraren alboan sustengatuz, era horretan argazkian biak aterako ziren jakitun. Argazkian asko erreparatuta bakarrik ikus zitezkeen erre-

tratua atera baino lehen gaumahaitxotik zarpailki apartatuak izan ziren pastilla antidepresiboen dozenaka kartoizko kaxa eta plastikozko ontzi. Gero beste argazki batzuk zetozen, hauetako bat Pasaiako jatetxe batean ateratakoa. Jatetxe honetan pastilla gehigarri bat bota zion Cesarri ardora, gau hartan bere memoria erabat linboratuko zuena. Errestauranteko kontua kreditu txartelarekin ordaindu zuen Cesarrek eta handik lortu zuen Veronicak bere sinadura kontratua faltsutzeko.

Postala Cesarrek bere buruari Lisboatik bidalitakoa zen eta *Ni ez naiz sekula hemen izan eta igual igual bizi naiz* esaldia zegoen eliza bateko hainbat graffitiren artean nabarmen idatzita. Postalaren bestaldean hitz hauek irakur zitezkeen: «Zortea nirekin dago eta ez zait burutik pasatzen noizbait nire ondotik alde egin dezakeenik. Alde egiten duen egunean, jada gehiago beharko ez dudalako izanen da. Veronica harrapatu dut oraingoan eta ez da azkena izango».

Erdibitutako argazki baten erdia ere bazuen Veronicak eskuartean. Argazki desfokatu honetan, Veronica bera ageri zen, ohe batean eserita.

Hiru bat aste lehenago Lisboako hotel bateko kafetegian bitan erdibitu ondoren abandonatutako argazkiaren erdia zen. Cesarrek kafetegiko hautsontzitik hartu eta zuela egun gutxira arte bere apartamentuko ispiluan itsatsita eduki zuena. Pasaiako Cesar Telleriaren apartamentuan bere ohean azken honi atera zion argazkiaren gainean Veronica ageri zen argazki puska hura jarri zuen eta erdibitutakoa behekoari erabat egokitzen zitzaiola iruditu zitzaion, bata Lisboan eta bestea Pasaian aterata egonagatik, gela berean ateratako argazkiak bailiran. Argazki erdibituaren beste erdia gabardinaren barruko patrikan zeukala uste zuen, baina ez zen hala suertatu. Ezin izan zuen beraz, patrikatik atera eta argazki erdibitua osatu. Cesarren argazkiari begira geratu zen honenbestez, Lisboan ateratako argazki puska gainean jarrita zuela. Harrigarriro ongi egokitzen ziren. Cesarrekin bikote ona osatuko lukeela iruditu zitzaion Veronicari, eta –saiatu zen arren– ezin izan zuen bere burua sentimendu hartaz errudun sentitzeko adina estutu.

Esku bat esku bat besterik ez zen eran, sentimendu bat sentimendu bat zen, eta kito. Alfe-

rrikakoa litzateke norberak zituen sentimenduengatik errudun sentitzea.

Veronica bezala ezaguna zen emakumea, argazkiak patrikan gorde, trenera igo eta bagoi hutsean eseri zen. Leihatila ondoan jarritako emakume baten ondoan jesarri zen. Bagoia ez erretzaileentzakoa zen eta Veronicaren ondoan eseri zen emakumeak lau hatzekin zigarro bat sustengatzen zuen arren, zigarroa itzalita zegoen. Leiho ondoan eserita zegoen emakumea Marta zen.

Bi emakumeek elkarri begiratu zioten. Bietako inor errugabea ez zela eta bietako inork jaiotzatik emana izan zaigun injenuidade dosi hartatik deus ere gordetzen ez zuela ohartu baitziren, deseroso sentitu eta beste norabait begiratzea erabaki zuten.

Herrerako geltokian trena geratu zeneko, Veronica bezala ezaguna zen emakumeak ertz metaleztatuak zituen maleta hartu eta berriro abiatzear zegoen trenetik irten zen. Gauza bera egin zuen beranduxeago Martak, Pasai Antxoko geltokian. Ateak hersten ari ziren une hartantxe, itsumakilaz hornituriko gizon itsu bat sartu zen

hustu berri zen bagoira, itsu batenak izateko garbiegiak ziren zapaten gainean erdi arrastakako ibilera batekin.

Veronica bezala ezaguna zen emakumea, Herreran aparkatutako Ford Mondeo beltza hartu eta Pasaiarantz abiatu zen autoz. Pasaiara heldu zenean estibadoreen greba bukatuta zegoela ohartu zen, aste luzeetan portuan ainguraturik egon zen merkatontzi egiptoar nabarmena desagertua zenez. Nafarroa etorbideko 20. ezkaratzera iritsi eta bosgarren pisurako igogailurantz zuzendu zituen bere pausoak. Maleta eskuetan hartu eta oso pisu gutxi zeukala baieztatu zuen. Koltxoiaren gainean abandonatu zuen maleta, ispiluaren parean. Gero, sarrailaren begira giltza kateatu, bira bakar batez atea itxi eta kalera atera zen, telefono kabina baten bila.

– Martxelo Negro aurkitu dut. Nafarroa etorbideko 20. ezkaratzean da, bosgarren pisuan. Cesar Telleriaren informazioa zuzena zen.

Alain argazki erdibitu bati begira zegoen, Veronicaren telefono deia jaso zuenean. Erditik moztutako argazkian Alain bera ageri zen ohe

batean erdi biluzik eta argazkiaren beste erdira begira. Alainek argazkian zuen begirada zulo beltzarena zen, bainuontziko zuloarena: inguru dena zurrupatu eta trukean ezer ematen ez duen begirada nekagarri horietako bat. Bera etzanda zegoen oheko izaretan *Media Vida* irakur zitekeen letra bordatuz. Argazkiaren erdia falta zen: bera bezala erdi biluzik, oheko izarapean sartuta, Veronica amorantea ageri zen berak ez zeukan argazki apurtuaren bigarren erdian, automatikoarekin ateratako erretratuan. Ez zen erraza onartzea, baina Cesar Telleriak arrazoia zeukan orduan. Nafarroa etorbideko 20.ean zeuden. Begietan pozoia zuela, argazki erdibituari begiratu zion berriro. Leihoaren zati ttiki bat baino ez zen ikusten apurtutako argazkiaren ertzean. Baina argi tonu hark ez zuen inor engainatzen. Argazki erdibitu hartako hormen atzean zegoen Lisboa.

Agian Lisboa zen X batez markaturiko lekua. Hiriren bateko ganbararen batean lurperaturik egon behar zuen zapata kaxa batek. Durruti, Kennedy, Lauaxeta, eta beste hainbaten argazki horituekin, ginkgo hostoekin eta egunkari txata-

lekin betea. Eta ertzak erreta zituzten argazki guztien gainean koilare bat egiteko erabili zen bala batek egon behar zuen gordeta.

Beleak zulo batetik atera eta beste zulo batera aldatzen zuen bala. Beti bala berdina zelako ez zirenen munduan.

Alain Lizarragak inola ere susmatu ezin zuena Veronica bera engainatzen ibili zitekeenekoa zen. Uler zezakeen beste guztien gainetik egotea, bazuen halako aire misteriotsu eta hotz bat, ia flematikoa, baina ez zitzaion sekula burutik pasa ere egingo bera ere amua berun eta guzti irentsi zutenen artean egotea. Alain eta bere gizonak Nafarroa etorbideko 20. ezkaratzera heldu eta Alargun Beltza pistolaz armatuta ispilu aurrean ikusi uste izan zutenean, ezin izan zuten arrisku sentipen gertukoaren aurrean traidorea tirokatzerik ekidin. Alain berehala ohartu zen ispilu aurrean zegoena Alargun Beltza ez baizik eta Cesar Telleria zela, baina dagoeneko beranduegi zen. Ulertezina zitzaion Cesar Telleria 20. ezkaratz hartan, ispilu aurrean, pastadun betaurreko eta ileorde beltzaz jantzita ikustea, pistola

eskuetan zuela. Zer egiten zuen apartamentu hartan? Zergatik zeukan esku artean arma bat, betidanik armak gorrotatu izan zituenean? Eta batez ere, zein arrazoi demonio izan zen Cesar Alargun Beltza bezala janztera eraman zuena? Alain Lizarragak ziurtasunez zekien bakarra zera zen: nola egin ote zuen ez jakin arren, Veronicak engainatu egin zuela, ezinezkoa izango zitzaiola prentsaurreko batean KGB barruko berezietako baten heriotza absurdu hura justifikatzea eta bere aparraren gisako karrera gorakorra jarraitzeko aukera guztiak zapuztu zituela Cesarren nahi gabeko heriotzak. Amaiera zen beretzat. Ziur zegoen hartaz guztiaz, Cesar Telleriaren eta bere artean betidanik harreman kaxkarrak eta bekaizkeriaz beteak izatearen ondorioz, heriotza Alainek berak prestaturiko tranpa bati egotziko ziotela zekien bezain ziur. KGB barruan inork ez zuen bere erruduntasunaz zalantzarik izango. Bereak egin zuen.

Veronicarengan lerratu zuen berriro pentsamendua. Ez zeukan bere argazkirik ere. Istorioa eromenezkoa zen, barre egingo liokete egia esaten saiatuko balitz. Etorri bezala lurrundu zi-

tzaion emakume hura. Lisboan, ohean elkarrekin zeudela automatikoarekin ateratako argazkiaren erdia bakarrik geratu zitzaion eta argazki erdibitu horretan Alain bera ageri zen eta ez Veronica. Horrek harremanaren lausotasuna areagotu eta mingarriago egin besterik ez zuen egiten. Orain berak ere zalantzan jartzen zuen haren emakume izate fisikoa. Veronica mamu bat zen, ilunpeko arnas erritmo soil, hirugarren hats, izara huts, haize rafaga batek une batez puzten duen balkoietako izara lehortzen jarria. Xake partidako mugimendu guztiak aurrez zekizkien igarlea zen, erregea arriskuan zegoenean dorrearekin ordezkatzen zuen endroke egilea, kasualidade urrunetara gidatzen zuten ate guztietako maratilaren jabea; adinik eta zauririk gabeko terrorista eternal bat zen Veronica, mila aurpegi aldakorreko samuraia eta espia, bisaiarik gabeko Eztarri Sakona, bere auto beltzean herrialdez herrialde eta mendez mende zebilena, kalesan eternitate guztia errari ibiltzera kondenatutako pertsonaia antzinakoaren eran. Legearen ertzaren bestaldean zeuden guztiei laguntza ematen zien aingeru guardako misteriotsu gisako bat zen Veronica:

bere sigletan alfabetoko hizki guztiak zituen sindikatu ezkutuko partaide. Lerro zuzenak marraztu eta heriotza kondena ofizialak sinatzen zituzten estatu gizonen eskuak kilimatu eta dardararazten zituen izpiritua zen.

Lisboan Veronicarekin oheratu zenean ohartu zen maiteminduta zegoena. Bere bular ederrek malko erraldoien forma zuten. Baldin eta benetako malko batek gure buruan malko batek duen forma berbera duela onartzen badugu behintzat. Izan ere, benetan isuritako malko batek ez baitu inoiz gure adimenean dugun malkoaren forma simetriko, puntadun eta ideal hori izaten. Malko batek zeren itxura du? Diamante batena, esan genezakeen, baina nork ikusi du bere bizitzan benetako diamante bat? Pasaiako diamante-lapurrek ere ez zuten ez diamanterik eta ez malkorik lapurtzen. Malkoen eta diamanteen formez mintzo ginen, eta ez geneukan ideia zipitzik ere benetako forma horiei buruz. Hitzek beren esanahia galdu zuten, eta gure buruko forma guztiek ez zuten jada benetako forma fisikoekin batere harremanik. Benetako formarik ez zegoen. Konbentzio kontuak ziren: malko forma, genio-

en, eta guztiok ulertzen genuen malko horrek zuen forma, komikietakoa zela esan nahi genuela.

Benetako malkoek ordea, komikietakoek ez bezala, ez dute masailean behera irristatzean lerro zuzenik maite. Espiralean engainatu zuen Veronicak Alain ere.

Alainek azken begirada zuzendu zion argazki erdibituari eta sailburuaren bulegoraino gidatuko zuen korridore luzerantz abiatu zen, burumakur, abailduta, esku hutsik. Agian egia esaten saiatu beharko zukeen: sailburu jauna, bere bularrek malko erraldoien forma zuten, malko batek malko baten forma duela onartzen badugu behintzat.

Abenduak hogeita lau zituen. Olentzeroak zebiltzan batera eta bestera, Olentzeroak eskaparateetan, Olentzeroak telebistan, hormetako afixetan. Zakua hartuta. Hormirudietako batzuk alderantziz zeuden zintzilikatuak, pertxa batetik buruz behera zintzilik zeuden saguzarren antza zuen Olentzerok hauetan. Begi gorri, non harrapatu dek, arrain hori. Jai bezpera izatean, greba-

tik lanera itzuli berriak ziren estibadoreek ohikoan baino lehenago utzi zieten beren zereginei eta portuko Olentzero bereziak, *diamante-lapurrak*, alegia, txatarra meta inguruetan kizkurtuta zeuden su ttikiak pizteko ahaleginean. Ijito batzuk elkartu berri zitzaizkien eta hala-moduzko flamenko arrasto eta gitarra doinu garratz, baina hala ere ederrak, entzuten ziren tarteka.

Egundoko hotza egiten zuen. Gabon giroa nonahi, argiak eta guzti. Ez zen erraza ulertzea zergatik jarri zen boladan Eguberrietan kaleetan zintzilikatzen zituzten argien kontra hitz egin behar setati hori: goizegi jartzen omen zituzten eta gogaikarri suertatzen omen zen azaroaren bukaeratik haiek jasan beharra; hipokrisiaren adierazleak omen ziren, makillaje hutsa, kontsumismoaren ikurra. Ondo pentsatzen jarrita, ez al zuten hiriek Gabonetako argi koloretsu haiek guztiekin adierazten beren benetako izaera? Autopista ertzeko gau-klub hortera baten eran bonbilla kolore anitzez apainduak, hiriak benetan ziren bezalakoak agertzen ziren, mozorro guztietatik aske, mundua zen putetxe erraldoi eta mugagabea, denon bistara. Elurra bakarrik falta zen

gabon-postal hura borobiltzeko. Baina Pasaia bezalako leku batean, abenduaren hogeita lauan elurra eskatzea gehiegi eskatzea zen. Abenduaren hogeita lauan ez zuen sekula elurrik egiten. Ez Pasaian.

Martak bide luzea egin zuen oinez eta Olatzekin elkartu zen Pasaiako portuan, txatarra meta erraldoien artean. Urpekontzi errusiarren periskopio hautsiak, haizezko musika-tresna akastunak, hemendik Moskura bitarteko trenbide urtuak. Oinez zihoazen, elkarri hitz egin gabe.

– Nik hau utzi egiten dinat, Olatz.

– Ez haut ezagutzen... Amore ematen al dun? Pasa dugun guztia pasa ondoren? Zergatik orain? Ezin dinat sinetsi, benetan.

Martak zizpuru sakon bat egin zuen. Kainabera urrutira bota eta amua noraino heldu den baieztatu nahi duenaren begiradarekin.

– Gauzak zer diren, ezta? Kontrako bidea egin dinagu biok. Gustatuko litzaidake jakitea noiz gertatu zen. Noiz gurutzatu ziren gure bideak. Agian zigarroen kearekin figura inozoak irudikatzeko jolas inozo hartara jolasten ginenean. Beharbada une hartan inoiz baino elkar-

tuago geundenan. Une hari eutsi eta elkarrekin batera edo bestera egiteko aukera alferrik galdu geninan, agian, konturatu gabe. Pentsatzen dinat horrelako gauzak ez direla egun batetik bestera gertatzen, eta hala ere lastima ematen zidan. Baina ziur nagon egon zela une bat inoiz baino elkartuago egon ginena. Behin eta berriz galdetzen zionat nire buruari zein izan ote zen une hura. Zertan egin geninan huts. Zerbaitetan huts egin genuela esan badaiteke behintzat –Martak zerurantz begiratu zuen, baina ez ezer bereziren bila–. Ni bestaldera noan, zerotik hastera. Etorri nahi al dun nirekin?

– Haur ipuin bat dun hori. Ez dinat sinesten horretan. Ezinezkoa dun zerotik hastea.

Oinez jarraitu zuten, isilik, beste apur batez.

– Entzun, Olatz... Donostian izan nindunan eta bi hegazkin txartel zeuzkanat.

– Ezin hobeto, Yetia eraman dezaken hirekin.

Ukigarria eta samurra zen zerbaiten ertza ukitu zuten. Ertza bakarrik.

– Ez dun jakin nahi zein lekutara noan?

– Leku guztiak ditun leku berdina. Leku guztiak ditun ertzak. Eta gu, soken kontra egongo gaitun beti.

– Noiz arte?

– Beharrezkoa den denbora guztian. Herorrek erakutsi hidan hori. Ez al dun oroitzen?

Martak irribarre egin nahi izan zuen baina beranduago, galdeketa gela batean, Gela Zebratuaren atarian galdetu izan baliote benetan irribarre egitea eta irribarre hura azaleratzea lortu izan zuen, kirofanoko argi bateria baten pean mehatxuka galdetu izan baliote irribarre egin ote zuen ala ez, berak ere ezin izango zukeen ziurtasun osoz baieztatu. Portuaren amaieraraino heldu berriak ziren. Martak orduan, keinu bitxi bat egin zuen, berezkoa ez den keinu horietako bat, naturala ez baina ikasia, eta ikasia izateagatik meritu gehiago zeukana, agian. Ama hizkuntza ez den bigarren bat ikasi duenak bezala. Etengabe barkamena eskatzen ari dela dirudien pertsonaren sorbalda keinu lotsatia zen. Martak keinu hura egin ondoren errebolberra atera zuen besapetik eta eskuetan jarri zion Olatzi. Gero, inguruetako txatarra multzoei so egin zien. Biek so

egin zieten. Meta erraldoi haiei, sua pizten zuten ijito eta diamante-lapurrei, eta zeruari. Oso behean zegoen zerua: bere azal hauskarari harramazka egin eta benetan bi aukeretako bat zeru hura ote zen baieztatzeko gogoa ematen zuen.

– Hau burdina pila, ezta?

– Pila bat, bai.

Putakume bakoitzak bala bat merezi badu, hasiko al gara hemendik Moskurako trenbideak funditzen balak egiteko ezta, fundituko al ditugu urpekontzi errusiarren periskopioak, haizezko musika-tresna akastunak, eta halere bizitza ez da balore absolutu bat, bai, pila bat, burdina pila bat. Esandako esaldiak baino zerbait gehiago zegoen airean. Zulo beltzen gertutasunaz oharta-razten gaituzten gamma izpiak ziren, agian. Haizea hotza zen: labana batekin zauri garbi bat egin eta odola ateratzen hasi aurretiko sentipena oroitarazten zuen. Lehen elur malutak emeki-emeki hasi ziren lurraren kontra lehertzen. Zeudenen eta ez zeudenen harridurarako.

– Itzel –esan zuen Olatzek, sekula esan ez den hitz bat estreinako aldiz esatea agur esateko dauden hamaika moduetatik bat besterik ez

zela ohartu gabe. Beste hainbat modu bezain zilegia. Hiri ferrobiarioen zerrendak eta buruz ikasitako trenen ordutegiak totelka errezitatzen hastea bezain zilegia. Biek zekiten inork ez zuela beste gauza handirik esateko. Ez ziren hitz eta esaldi handietarako jaioak.

Martak eta Olatzek kontrako norantzatan ekin zioten nork bere bideari, elkar agurtu gabe. Biek ireki zuten eskua elurra erortzen ari zela sinetsi ezinik, eta irekita eduki zuten nork bere eskua, tarte luzez. Elurra zen, bai, elur arrunta, eskuaren ahurrean berehala urtzen ziren elur malutak. Martak txandalaren kapusaiaz estali zuen burua, eskuak patrikatan sartuta oinez zihoan ahala. Biek zalantza egin zuten, biratu ala ez, elkarri azken agurra egiteko. Ez bata eta ez bestea, ez ziren biratu, baina biek mantendu zuten, nork bere kolkorako, beste lagunak zorte ona opatuz samurtasunez biratu eta sikiera begiradarekin agur keinu isil bat egin ote zioneko itxaropena. Behar adina denbora emanez gero oroitzapen asmatu bihurtzen ziren itxaropen horietako bat zen.

Bi boxeo zaku erraldoi ezarian-ezarian urperatzen ziren badiaren erdian. Eternalki urperatzen ziren, sekula erabat urperatu gabe. Pasaiako bainuontziak ur irakinez betetzen ziren eta bainuontzira sartu aurretik, ispilu aurrean errudun sentitzen ziren biztanleek eskuetako hatz mami dardaratiez, Durruti, Lauaxeta edo Kennedyren erretratuak ziren garatxo atera berriak asmatu nahi zituzten bizkar biluzietan, aurpegi biluzietan, gorputz-adar biluzietan. Anartean, leihoan jarraitzen zuten botila haiek: zazpi Cutty Shark botila, eskala musikal bat dibujatuz, eskailera beherakor bat osatuz, gero eta hustuagoak, leihoko arasan txorroskileroaren ahosoinu baten gisara eraikiak. Sweet home, sweet home, Pasaia. Norbaitek asmatu behar zuen melodiaren bat leihoko musika tresna harentzat. Whisky botilak hustu behar ziren eta Pasaiako badiako ur zikinarekin bete. Eta Pasaiako badiako ur zikin horrekin bakarrik zen zilegi eta onargarria azken topa. Gora eskuak eta egin azken topa, baby.

Flinterzul - Finland, *African Gardenia - Monrovia*, eta guztien artean bereziena: *Senokozulua - Pasajes*. Senoko zuloa, hara bueltatu eta handik

ez ateratzeko gogo instintiboa. *Senokozulua.* Itsasontzi batentzat izen egokiena: itsasora ihes egitea, noizbait bere sabelean geratzeko asmo inkontzientearekin. Nola ez ote zen inor lehenago konturatu. Pasaiako ur zikin haiek behar zuten izan behin bildu gintuen likido amniotikoa, amaren sabeleko sentipen urrun haiek guztiek egon behar zuten han, urpean.

Baina memoria ito horretaz gain, ordurako ez zen portuan inor geratzen. Eta geratzen zirenak, ez zirenak ziren: mamuak bezala, ezkutuan daudenak, eta halere, gauero belarrira hitz egiten diguten horiek. Gauero buruz ikasitako hiri ferrobiarioen izen zerrendak eta trenen ordutegiak xuxurlatzen dizkigutenak belarrira. Polaroid ikusezin baina entzungarriak.

Amaren eskutik alde egina zirudien haur fantasma batek elur bola bat osatzen ziharduen esku batean eta beste eskuko hatz lodiaz elurra sakatzeaz batera, gogor estutzen zuen ukabila. Gero, sare-meta berdeen artean ezkutatu zen.

Handik ordu pare batera, elurrak ia erabat zuritu zuen itsas portua, gauza guztiei lehen ez zuten uniformitate bat emanez. Behingoagatik,

guztiak zentzu bat balu bezala, gauza guztiak elkarrekin lotuta baleude bezala, ezer ez bailitzan zegoen lekuan bere zorte eta miserietara, besterik gabe, saldukerian abandonatua izan.